



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko apirilaren 17a

39-1. ZK.

A U R K I B I D E A

I S A I L A:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria (2007–2010). Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia ([2. or.](#)).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bi aletan argitaratzen da, 39-1 eta 39-2. zenbakietan).

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria (2007–2010).

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2007ko otsailaren 27an egindako bileran, Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria (2007–2010) onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2007ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria (2007–2010)

39-1 ALEKO AURKIBIDEA

SARRERA (4. or.).

1. KAPITULUA: EGOERAREN DIAGNOSTIKOA (7. or.).

1.1. TESTUINGURU HISTORIKOA – GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN ARAUDIA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN (7. or.).

1.1.1. Testuinguruaren azterketa (7. or.).

A) Nazioarteko testuingurua (7. or.).

B) Estatu-esparrua: Garapenaren aldeko lankidetzaren espainiar politikaren bilakaera. (8. or.).

C) Lankidetzaren Deszentralizatuaren (LD) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (GNL) Nafarroako Foru Komunitatean (9. or.).

1.1.2. Nafarroako Gobernuak lagundutako nafar lankidetzaren arau esparrua eta arlo instituzionala (10. or.).

A) Instituzionalizazioa (10. or.).

B) Arauen garapena (11. or.).

1.2. NAFARROAKO GOBERNUAK LAGUNDUTAKO NAFAR LANKIDETZAREN EGOERA GAUR EGUN (13. or.).

1.2.1. Nafarroako Gobernuak babestutako nafar lankidetzaren zenbakietan (13. or.).

A) Datu orokorrak (13. or.).

B) Eragileak (17. or.).

C) Geografia-eremuak. (19. or.).

D) Lankidetzaren sektoreak (20. or.).

E) Modalitateak eta lanabesak (24. or.).

1.2.2. Diagnostiko kualitatiboa (26. or.).

A) Nafar lankidetzaren orokorrean (26. or.).

B) Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate Departamentuaren Garapenaren aldeko Lankidetzaren Programa (27. or.).

C) Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeak (GGKE) (27. or.).

D) Lankidetzaren ari diren beste eragileak (28. or.).

2. KAPITULUA: NAFAR LANKIDETZAREN PRINTZIBIO GIDARIAK (30. or.).

2.1. SARRERA (30. or.).

2.2. AGENDA BATERATUAREN PRINTZIBIOAK (30. or.).

2.3. GARAPENAREN ALDEKO NAFAR LANKIDETZAREN BERARIAZKO PRINTZIBIOAK (32. or.).

2.3.1. Lankidetzaren deszentralizatuaren oinarriko ezaugarriak (32. or.).

2.3.2. Nafar lankidetzaren printzipio gidariak (33. or.).

A) Funtsezko printzipio gidariak (34. or.).

B) Printzipio gidari operatiboak (35. or.).

- 2.4. PRINTZIPIO GIDARIEN SINTESIA, BEREN ITURRIEN ARABERA (38. or.).
3. KAPITULUA: HELBURUAK ETA ESTRATEGIA-ILDOAK (39. or.).
- 3.1. PLAN ZUZENTZAILEAREN HELBURU OROKORRAK (39. or.).
- 3.2. JARDUKETARAKO ESTRATEGIA-ILDOAK (40. or.).
- A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak (40. or.).
- A.1. Lankidetzaren deszentralizatuaren eredu finkatzea. (40. or.).
- A.2. Kudeaketa hobetzea. (40. or.).
- A.3. Koherentzia eta Koordinazioa Nafarroako GNLn* (41. or.).
- A.4. Lankidetzan ari diren eragileak arlo instituzionalean sendotzea (41. or.).
- B) Jarduketerako zehar-ildoak (42. or.).
- B.1. Pobrezia desagerraraztea (42. or.).
- B.2. Genero berdintasuna sustatzea (42. or.).
- B.3. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea (42. or.).
- B.4. Giza Eskubideak babestea, demokratizazioa eta kultur nortasuna errespetatzea (43. or.).
- B.5. Gaitasunak sortzea eta gizarte antolatzea (43. or.).
- C) Lehenetsitako sektoreak (43. or.).
- C.1. Oinarrizko giza premiak asetzeko gaitasunak hobetzea (44. or.).
- C.2. Gobernamentu demokratikoa, garapen instituzionala eta gizarte zibila sendotzea (44. or.).
- C.3. Ekonomiako eta ekoizpeneko gaitasunak hobetzea (45. or.).
- C.4. Garapenerako Hezkuntza – Sentsibilizazioa eta Prestakuntza – Ikerketa (45. or.).
- D) Lehenetsitako geografia-eremuak (46. or.).
- D.1. Lehenetsitako herrialdeak, lotura historikoaren arabera (47. or.).
- D.2. Gutxien Aurreratutako Herrialdeen* edo Giza Garapen Adierazle* apala dutenen aldeko lehentasunak (47. or.).
- D.3. Etorrinen jatorri herrialdeak lankidetzan sartu eta sendotzea (48. or.).
- LEHENTASUN GEOGRAFIKOEN LABURPENA (49. or.).
- 3.3. NAFAR LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENDARIAREN HELBURUAREN ETA ESTRATEGIA-ILDOEN HELBURUA (50. or.).
4. KAPITULUA: NAFAR LANKIDETZAKO ERAGILEAK (51. or.).
- 4.1. SARRERA (51. or.).
- 4.2. GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO ERAGILEAK NAFARROAN (52. or.).
- 4.2.1. Eragileak, laguntza jasotzen duten herrialdeetan (52. or.).
- 4.2.2. Nafarroako Administrazio Publikoak (52. or.).
- A) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa (52. or.).
- B) Nafarroako Toki Administrazioak (53. or.).
- 4.2.3. Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak (53. or.).
- 4.2.4. Beste eragile batzuk (53. or.).
- A) Unibertsitateak (53. or.).
- B) Sindikatuak (54. or.).
- C) Enpresa sektorea (54. or.).
- D) Beste eragile batzuk (55. or.).
- 4.3. NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO BESTE ERAGILE BATZUEKIKO HARREMANAK (55. or.).
5. KAPITULUA: LANKIDETZAREN LANABES ETA MODALITATEAK (56. or.).
- 5.1. SARRERA (56. or.).
- 5.2. MODALITATEAK ETA BERE LANABESAK (57. or.).
- A) GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA (57. or.).
- A.1. Mikroekintzak (57. or.).
- A.2. Garapenerako proiektuak (57. or.).
- A.3. Garapenerako programak (57. or.).
- B) GARAPENERAKO HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA (58. or.).
- B.1. Sentsibilizazio Ekintzak eta Kanpainak (58. or.).

- B.2. Garapenerako Hezkuntzako Proiektuak eta Programa(k) (59. or.).
- C) AHOKULARITZA TEKNIKOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA (59. or.).
- C.1. Aholkularitza teknikoko proiektuak (60. or.).
- C.2. Prestakuntza, Ikerketa eta Erakundeak sendotzeko proiektuak Nafarroan (60. or.).
- D) EKINTZA HUMANITARIOA (61. or.).
- E) LANABES BERRIA: ESTRATEGIA MISTOAK (62. or.).
- MODALITATE ETA LANABESEN LABURPENA (64. or.).
6. KAPITULUA: AURREKONTUARI BURUZKO ARGIBIDEAK (67. or.).

SARRERA

Oro har, giza garapenari*buruzko gaur-gaurko eztabaida eta ikuspegietatik, esan beharra dago ez dagoela aurrez diseinatutako garapen eredu unibertsal baliagarririk. Jarrera horrek azpimarratzen du pertsonen eta gizarte erakundeen gaitasunetatik beretik abiarazteko garrantzia eta, era berean, oso garrantzitsua dela aipatu gaitasunak handitzeko eta aukera berriak eskaintzeko parada ematen duten lanabesetatik abiatzea, pertsona eta giza erakunde bakoitzak beren aukerak egin ditzaten, dela garapenari buruz ulertzen dutenaz, dela garapen hori lortzeko bidez. Azken finean, kontua da pertsona bakoitzari behar dituen lanabesak eskaintzea gizarte zuzenagoa erdiesteko, bai erabakiak hartzeko orduan, bai ekonomia, gizarte eta kultura arloko baliabideak berdintasunez eskuratzeko orduan.

Ikuspegi horrek pertsonen eta gizarte erkidegoei aukera eman diezaike, beren egoerarekin bat datozen bizitza eta garapen ereduak entseatu eta asmatzeko, eta, aldi berean, beharbada, aukera ere eman dezake, Mendebaldeko garapen ereduak azken hamarkada hauetan sorrarazitako arazoak eta ondorioak galarazteko. Bide horrek hurbilketak irekiagoa, sortzaileagoa eta errespetagarriagoa ahalbidetzen du giza garapenaren alde-askotako izaeratik beretik abiatuta, aintzat hartzen dituelako giza erkidego bakoitzari berez dagozkion prozesuak.

Aurrekoa oinarri harturik, zein da nazioarteko lankidetzak* aipatu prozesuan izan dezakeen eginkizuna? Eta, zehatzago, zein izan daiteke Nafarroako Foru Komunitatetik bultzatutako lankidetzaren ekarpena? Lehendabiziko abiapuntu bat da nazioarteko lankidetzak, funtsean, honelako jardueratzat jotzea, aitortzea: toki eragileak bere garapenaren ardatz egiten dituen prozesuak sustatzeko jarduerak.

Nafarroako gizartea aspaldidanik dago nazioarteko elkartasunari lotua. Mugimendu hori gizartearen ekimenekin egon da bat eginik, eta ekimen horietan politika, giza eta erlijio arloko sentsibiltate guztiak egon dira ordezkatuak. 80ko hamarkadaren erditik aitzinera, gora egin dute herritarren sentsibiltateak eta gizartearen presioak gai hauei buruz. Ondorioz, berriazko aurrekontu publikoak onetsi ziren garapenerako, eta horrek lan horri zuzendutako diruak igorarazi zituen. Aldi berean, igo ere egin zen lan horretan ari ziren erakundeen kopurua.

1993ko 2,5 milioi eurotik 2006ko 16 milioi eurotik gorako dirutzara, bide luzea egin da zinez. Horrela, Nafarroatik garapenaren alde egindako lankidetzak bi eragile nagusi izan ditu: GGKEak eta instituzio publikoak (Nafarroako Gobernuak eta Toki Administrazioak).

Hala instituzioen lankidetzak politika horren sorreran, nola politikaren beraren garapenean, bereziki nabarmentzeko modukoa izan da GGKEek proiektuak gauzatzekoan bere gain hartutako erantzukizun maila handia. Gure Foru Komunitatean dauden GGKEek, bai eta Nafarroako lankidetzan ari diren beste eragile batzuek ere, zubi lana egin dute gure gizartea garapen-bidean dauden gizarteekin harremanetan sartzeko eta, horrez gain, erantzukizun izugarria ere badute geure gizartearen barnean. Izan ere, gure munduaren gertakariak aintzat hartuko dituzten herritar arduratsuek hezten lagundu behar dute eta, era berean, administrazio publikoak sentsibilizatzen lagundu nazioartean eginkizun garrantzitsua bete dezaten, gizatasunean eta zuzentasunean oinarritutako garapenaren alde hartu beharko liritekeen neurri politikoak eta ekonomikoak bultzatze aldera.

Nafar eragileek nazioarteko lankidetzan kudeatutako ekintzen kalitatea hobetzea helburu duen erronka berria da Plan Zuzentzaile hau egin izana. Plan honek ez du egungo ahalbide guztientzako ametssezko irtenbide zoragarria izan nahi, baina aurrerapenak eta nazioarteko lankidetzan ari diren

(*) Testuan * batez adierazitako kontzeptu batzuk ageri dira. Kontzeptuen edukia Glosategian ikusgai dago.

eragileak indartu nahi ditu, beren lankidetzaren xede diren herrialdeetako garapenean eraginkortasun handiagoz eragitea lortzeko.

Plan Zuzentzaile hau egiteko, partaide aritu dira Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluan berariaz eraturako batzorde teknikoetako eragileak, eta Estatuko Plan Zuzentzailea hartu da erreferentzia gisa, bai eta autonomia batzuetako administrazio publikoen planak ere.

Metodologiari dagokionez, aurreproiektua egiteko, batera erabili dira plangintza estrategikoaren lanabesak -alde horretatik, Ikuspena (printzipioak eta balioak), Eginkizuna (Planaren helburuak) eta jarduteko estrategia-ildoak ezarri dira- eta Kalitate Osoa-Bikaintasunaren oinarritzko irizpideak, non funtsezko prozesuak izanen baitira etengabeko hobekuntza, eragileen parte-hartzea eta etengabeko ebaluazioa.

Xede horrekin, agiri hau zazpi kapitulutan egituratua dago. Kapituluotan ibilbide estrategikoa egiten da, egungo egoeraren azterketatik etorkizuneko ekintzak egituratzeko. Horregatik, **lehenbiziko kapituluak** abiapuntuko egoeraren nolakoa aztertzen du eta, horretan oinarriturik, aurrera jotzen du. Zehazki, Nafarroako Gobernuaren lankidetzaren historikoki zein araudiri lotu zaion aztertu da, hau da, zein izan den Foru Gobernuaren jarduketaren arau esparrua eta, zehazki, Estatuko arauak eta Nafarroakoak bertakoak ekarri ditugu lerrootara. Bestalde, lankidetzaren gero eta deszentralizatua goa da eta horrek behartu gaitu nafar lankidetzak sortu zen une beretik izan duen bilakaera berrikustera. Lehen Plan Zuzentzaile honen testuingururik hurbilenak izan dira arauen garapen prozesua eta garapenaren aldeko ekintzen erakundetzea. Azterketa horrekin batera, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluan ari diren eragileek urtebetetik gorako ibilbidean hainbat azterketa aurreratu zituzten lankidetzaren egoeraz, zenbatekoari eta nolakoari dagokienez. Hain zuzen ere, kapitulu honen bigarren zatia aipatu azterketen daturik eta gogoetarik esanguratsuenak jaso ditu, erabat justifikatzen dutelako Plan Zuzentzailea prestatu behar izatea. Izan ere, azterketa horiek atzeman dituzte badirela ahuldadeak eragileen jarduketan eta, bestalde, laguntza oso barreiatua dagoela herrialdeei, sektoreei eta eragileei dagokienez.

Bigarrenik, garrantzitsua da kontuan hartzea Nafarroako Gobernuaren eta gure komunitateko lankidetzan ari diren beste eragileen jarduketaren printzipioak eta balioak. Printzipio horiek honela banatu ditugu: batetik, funtsezko printzipio gidariak eta printzipio operatiboak. Lehenbizikoen aldean, bigarrenen izaera osagarriagoa da eta jarduketari begira emanak daude. Lehenbizikoek, ordea, fun-

tsezko izaera dute garapenaren aldeko lankidetzan. Gainera, nafar lankidetzaren jarduketa gidatuko duen Nafarroako lehenengo Plan Zuzentzailea denez, egoki iritzi zaio Foru Komunitateak bere gain hartutako printzipioak aurretik aipatzeari, betiere beren garrantziagatik eta eraginagatik kontuan hartzea merezi dutenak. Esan nahi baita, nazioarteko printzipioak, eta Espainiako lankidetzaren gidatzen dituen printzipioak, autonomia erkidegoei zuzenean eragiten dizkietenak. Horiez guztiez osatua dago **bigarren kapituluak**.

Hirugarrenik, eta aurreko kapituluarekin zuzenean lotuta, **hirugarren kapituluak** planifikazio horren helburuak eta estrategia-ildoak landu ditu. Helburuak helburu global eta estrategikoa batetik daude egituratua zein bere xede zehatzarekin. Bada, Nafarroako Gobernuaren jarduketa helburu horietara bideratua dago, eta hurrengo lau urteetako (2007tik 2010era) jarduketa-ildo handien bitartez zehaztuak daude, lau taldeotan sailkaturik: nafar lankidetzaren hobetzeko estrategia-ildoak; lankidetzaren jardueraren orotarako zeharkako ardatzak; eta geografia eta sektoreak lehenesteko irizpideak. Ildo horietako bakoitzaren helburu estrategikoa ebaluagarriak azaltzearekin batera, helburu horiek lortu ahal izateko egin daitezkeen ekintza estrategikoak aurreratzen dira.

Lerrootan esaten dena ezin izanen da gauzatu ez baldin badago hori guztia bururaino eramanez duen eragilerik. Alde horretatik, **laugarren kapituluak** Nafarroako Gobernuaren lankidetzako eragileen sorta ezartzen du. Lankidetzaren Kontseiluan Planeko Batzordeetan ari diren eragileen ekarpenen arabera, bereizi dira lankidetzaren parte-hartzen duten eragileak izanik ere, Gobernuaren zuzeneko diru-laguntzajaso ez dezaketenak.

Bosgarren kapituluak funtsezkoa da Plan Zuzentzailearen egituraketan eta zehaztapenean. Denboraldi honetarako nafar lankidetzaren lanabesen definizioa da. Kapitulu honetan egituratu dira Nafarroako Gobernuak nazioarteko lankidetzan egiten duen jarduketaren bost modalitate nagusiak: garapenaren aldeko lankidetzaren garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa, laguntza teknikoa, prestakuntza eta ikerketa, giza ekintza edo ekintza humanitaria eta, azkenik, estrategia mistoak. Azken hori gauza berria da Nafarroako Gobernuaren lankidetzaren kudeatzeari dagokionez, eta, gauza berria ere, oro har, autonomia erkidegoetarako Estatuko Plan Zuzentzailearekin irizpideak batzeko bidean. Alde horretatik, estrategiak lanabes berriak dira nafar erakundeetan konfiantza eta beren epe luzerako kudeaketa indartzeari begira.

Seigarren kapituluan ageri da Plan Zuzentzaileak oinarrian izan beharko lukeen aurrekontuaren kalkulua. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak aurrekontuei lotua dago, baina saiatzen da aurrekontu-konpromiso batzuk ezartzen, aurreko kapituluetan aurreratutako estrategiekin bat.

Azken kapituluak, zazpigarrenak, Plana bera eta bere jarduketa-ildoak ebaluatzeke sistema agertzen du. Planifikazio estrategiko honen jomugak lortzeko ekintzak neurgarriak eta ebaluagarriak dira. Ildo horretan, Plana gauzatzeko behar diren lanabes, eragile eta ebaluazio tresnak ageri dira kapitulu honetan.

Bukatzeko, **glosategia** dago. Zehazki, bilduta daude garapenaren alde nazioartean dagoen sistemaren egungo zentzua ulertzeko funtsezkoak diren kontzeptuak.

Plan Zuzentzailea prestatzen aritu diren pertsonak:

Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren lan batzordekideak.

Enrique Abad. Nafarroako Unibertsitateen ordezkari gisa (Nafarroako Unibertsitate Publikoa).

Argia Aldaya. Nafarroako Comisiones Obreras sindikatuaren ordezkari gisa.

Alfredo Amilibia. Nafarroako GGKEen ordezkari gisa (Medicus Mundi Nafarroa)

Javier Andueza. Nafarroako GGKEen ordezkari gisa (Alboan fundazioa)

María Artieda. Osasun Departamentuaren ordezkari gisa.

Jesús Blanco. Nafarroako GGKEen ordezkari gisa ordezkari gisa (PROCLADE – Nafarroa)

Andrés Carbonero. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren ordezkari gisa.

Jesús Chocarro. Garapenaren aldeko Hezkuntzan aditua (Medicus Mundi Nafarroa)

Miguel Donézar. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren ordezkari gisa.

Juan Jesús Echaide. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari gisa.

Maidor Gabilondo. Garapenaren aldeko Hezkuntzan aditua (UNICEF, Espainiako Batzordea)

Enrique Jaurrieta. Hezkuntza Departamentuaren ordezkari gisa.

Jose Antonio Larrea. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ordezkari gisa.

Esteban Puig. Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren ordezkari gisa.

Marina Roncal. Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ordezkari gisa.

Mertxe Rubio. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren ordezkari gisa

Maeva Tellechea. Unión General de Trabajadores - UGTren ordezkari gisa.

Aholkularitza enpresa:

Lara González (Red KALIDA-DE-A. Acompañamiento, Calidad y Desarrollo). Laguntzaile teknikoak: Olga Benítez, Lara Cuevas eta Víctor Torres. Laguntzaileak: Felipe Gómez, Gonzalo Fernández eta Carlos Azkunze.

Bekarioa:

Gonzalo Torres

1. KAPITULUA: EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

1.1. TESTUINGURU HISTORIKOA – GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAREN ARAUDIA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN

Kapitulu honetan bildua dago Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (GNL*) –hala bere ibilbide historikoan nola juridikoan– laburpena, bai eta testuinguru globalean, eta bereziki Estatuan, gertatu diren gertaeren laburpena ere, eta arreta berezia eman zaio Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jaso dituen lankidetzari.

1.1.1. Testuinguruaren azterketa

A) Nazioarteko testuingurua

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren funtsezko gertakariak garapenerako beste herri batzuen osoko garapenerako elkartasunaren adierazpena da. Egungo globalizazio prozesuaren baitan, zeinean ugaltzen baitira elkarren arteko mendetasun mailak, demokraziaren arabera antolatutako gizarteek betebeharrak moral eta politikoa dute beste gizarte batzuen osoko garapenera lagundu eta elkarlanean aritzeko, bai eta nazioarteko erkidego antolatutako ezarritako helburuak betetzen laguntzeko ere. Jakina, herrialdea Nazio Batuen Erakundearen sartzaren denetik –beraz, San Franciscoko gutuna onartzen duenetik–, nazioarteko lankidetzaren printzipioari egiten zaio men, gutunaren 1.3 artikulua dakarrenarekin bat: “Nazioarteko lankidetzaren egitea nazioarteko ekonomia, gizarte, kultura eta giza izaerako arazo konponbidean, giza eskubideak nahiz funtsezko askatasunak garatu eta errespetatzeari aldeko lanean, inola ere bereizkeriarik egin gabe arraza, sexu, hizkuntza edo erlijio arazoengatik”; esan nahi baita, ikuspuntu horretatik Nazio Batuen Erakundearen kide ororentzako betebeharrak juridikoa da.

Alde horretatik, eta bi mundu-gerren ondoren, Ginebrako lau Hitzarmenen bidez Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH) sortu zen 1949an. Geroago, 1977an, bi Protokolo Gehigarri erantsi zitzaizkion. Arau-esparru hori estatuen arteko harremanak zuzentzen dituen arau multzo batez osaturik dago, eta bere xedea da gerraren basakeriari muga jartzea eta, testuinguru horretan, borroketan parte-hartzen ez duten pertsonak babestu nahi ditu (zibilak, babes zibileko erakundeetako osasun langileak, erlijiosak, giza erakundeetako kideak eta errefuxiatuak), bai eta borroka egiteari utzi diotenak ere (zaurituak, gaixoak, naufragoak, gerra-presoiak, etab.). Araudi horrek azpimarratzen du pertsona orok baduela bere bizitza eta bere osasun fisikoa zein

moralaren errespetatuak izateko eskubidea, hala nola berme juridikalak izateko eskubidea. Gobernu eta beren indar armatuek gain, oposizioko talde armatuek ere errespetatu behar dituzte NZHren itunetan adostasun bidez hitzartutako arauok, bai eta gatazkan partaide den beste alde orok ere.

Garapeneraren* teoriak aztergai izan dira eztabaida teorikoan eta politikoan azken mende erdian. Teoria horiek segitu eta gidatu dituzten printzipioak, jarraibideak eta indar-ideiak bilakatu egin dira gizarte bakoitzaren baitan ideologian, testuinguruan eta gizartean gertatu diren aldaketekin bat. Horrela, lehenbiziko hamarkadetan, garapeneraren aldeko politikak garapenera ekonomikoa azpimarratzen zuten. Beraz, ikusmolde horren arabera, garapenera bidean zeuden gizarteetako biztanleen bizi-maila pixkana handitzea ahalbidetuko zituzten azpiegiturak eta inbertsioak egiten ziren. Ikusmolde horrek, gainera, erabat nabarmentzen zituen errentaren adierazleak. Bada, ekonomia hutsari lotutako lehen fasearen ondoren, garapenera buruzko eztabaidan indarrez azaleratu zen garapenera beste modu batean ikusteko ideia, hots, garapenera lotua dago gizakiek dituzten oinarritzko behar sorta sistemikoari eta behar horiek ez dira soilik errentaren bidez neurgarriak. Beraz, gizakiaren ikusmolde holistagoa ireki zen garapeneraren ideian.

Ekarpen garrantzitsu horren ondorioz, 90eko hamarkadan Giza Garapeneraren* kontzeptua hasi zen erabiltzen. Giza Garapenera sustatzen du pertsonak eta beren aukerak nahiz askatasunak garapeneraren muina izatea. Gainera, oinarritzko hirugarren osagaia ere sartzen da eztabaidan, parte-hartzea, alegia. Izan ere, demokraziaren ideia modernoaren arabera, gizarteak parte-hartzeko maila minimoak behar dira, idealki gizartearen beraren baliabide politiko eta ekonomiko guztien bitartez zabaltzen direnak. Horrela, garapeneraren ideia ekonomia hutsari lotuta egoteak ikusmolde konplexuagoa eraikitzen pasatu da, non errenta-mailak hobetzearekin batera barne hartzen baitu gizon-emaumeen oinarritzko premiak ase beharra eta, horrez gain, pertsonak eta gizarte taldeak garapenera bertan txertatu beharra. Horrenbestez, garapenera erantzukizun partekatua da, non eragile guztiek –erkidego onuradunek barne– eginkizun aktiboa duten.

Gaur egun, egia da gutxienez bi eredu daudela Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (GNL*) gainean, baina nazioartean nola halako adostasuna dago hiru ardatzotan oinarriturik:

• Batetik, lortu behar diren helburuak, eta beren kuantifikazioa, Giza Garapenaren minimo batzuk erdiesteko*: Milurtekoko Garapen-Helburuak (MGH*)⁽¹⁾, Milurtekoko Adierazpena (2000) sinatu zuten 189 herrialdeek erabakitakoa. Beren helburu nagusietako bat izan zen garapena sustatzea eta pobrezia errotik desagerraraztea. Adierazpenak barne hartzen du zortzi helburu lortzeko dagoen konpromisoa, bai eta helburu horietako bakoitza noraino lortu den neurtzeko irizpideak ere:

1. Helburua. Pobrezia gorria eta gosea errotik desagerraraztea.

2. helburua. Lehen hezkuntza unibertsala lortzea.

3. Helburua. Genero berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea.

4. Helburua. Haurren heriotza-tasa murriztea.

5. Helburua. Amen osasuna hobetzea.

6. Helburua. GIB/HIESari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea.

7. Helburua. Ingurumeneko iraunkortasuna bermatzea.

8. Helburua. Garapenerako munduko ituna sustatzea.

• Beste alde batetik, garapena herrialde garatu-ekarpenen bitartez finantzatu* beharra (herrialde horietako bakoitzaren Garapenaren aldeko Laguntza Ofiziala-GLO* bere BPGren % 0,7 izaitea).

• Azkenik, GLO* eman eta jasotzen duten herrialdeen berregituraketa garapenaren aldeko oinarriko lehentasunei dagokienez (20/20 estrategia*)

B) Estatu-esparrua: Garapenaren aldeko lankidetzaren espainiar politikaren bilakaera.

1978ko Konstituzioaz geroztik, Espainiako Estatuaren zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko gisa eratua dago eta, dagokion erantzukizuna hartu du bere gain garapenaren aldeko lankidetzaren politikari dagokionean, azken bi hamarkadan nazioartean egin duen jarduketaren barnean. Bada, Konstituzioaren Hitzaurrean bertan daude garapenaren aldeko lankidetzaren espainiar politikaren oinarri juridikoa eta etikoa. Halaxe dio,

zehazki: Espainiako nazioak harreman baketsuak sendotu eta Lurreko herri guztien arteko lankidetzara eraginkorra lortu nahi du.

Hortaz gain, Espainiak, Nazio Batuen erakundeko kide den aldetik, nazioartean konprometitua dago aipatu erakundea sortu zuen Gutunarekin, zeinaren 56. artikulua dioen kide diren estatuak konpromisoa hartzen dutela elkarrekin edo nor bere kasa Gutun bereko 55. artikuluan ezarritako asmoak betetzeko. Asmo horien artean daude pertsona guztientzako bizi-maila altuagoak sustatzea, aurrerabideko eta garapen ekonomikorako nahiz sozialerako baldintzak bultzatzea, nazioartean ekonomia, gizarte eta osasun arloetan dauden arazoak konpontzea, hezkuntza eta kulturaren elkarlanean aritzea eta, azkenik, giza eskubide guztiak inolako bazterkeriarik gabe errespetatzea (2).

Azkenik, Europako Batasuneko kide den aldetik, gogoratuko dugu Espainiak parte-hartzen duela Europar Batasuneko garapenaren aldeko politikan*. Politika horren oinarri juridikoa dago Europar Batasuna Eratzeko Itunaren beraren XVII. Tituluko xedapenetan.

Garapenaren aldeko espainiar politika* hutsari dagokionez hutsari dagokionez, bere funtsa Garapenaren aldeko Lankidetzaren arautzen duen uztailaren 7ko 23/1998 Legea da. Lege hori eta berrikitan onetsitako Plan Zuzentzailea (3), aipatu legearen aginduz egindakoa, saiatzeko dira saiatzeko direnez koherentzia handiagoa ematen Espainiako GNLr*, betiere emaitzarik onenak, eraginik handiena eta, batez ere, sistemaren eragingarritasun handiagoa lortu nahian.

Aipatu Legearen 20. artikulua dioen bezala, Autonomia Erkidegoek garapenaren alde egindako lankidetzaren aurrekontu-autonomiaren printzipioan oinarritua dago, bai eta gauzapenaren autoerantzukizunean ere. Konstituzioan ez dago garapenaren aldeko eskumen-titulua berariazkorik eta horrek instituzio maila guztien jarduketarako aukeren interpretazio malgu eta zabala ahalbidetzen du (instituzio mailak, funtsean, Estatu, Autonomia Erkidegoak, Probintziak eta Udalak dira), baina horrek ez du bazterrean uzten ahaleginak koordinatu eta errentagarri bihurtzeko betebeharrak, Estatu osorako legean aurreikusitako

(1) Nazio Batuen Erakundeko Batzarrak onetsitako ebazpena, A/RES/55/2.

(2) Nazio Batuen Gutuna, 55. eta 56. artikulua.

(3) GNL* politikaren planifikazio elementuen artean, Lankidetzarako Plan Zuzentzaileen prestaketa, eztabaida eta onespene nabarmendu behar da lau urterako. Planotan lankidetzaren helburuak eta lehentasunak adieraziak daude, hala nola helburuak betetzeko dauden aurrekontu-baliabideak, zeinak Urteko Planetan (PAC) zehazturik dauden.

printzipioak eta gutxienezko helburuak errespetatuta (4).

Estatu osorako egituratuak dauden printzipio eta helburuekin batera, garapenaren aldeko lankidetzara arautzen duen Estatuko araudiak koordinazio organoak eta plangintzarako lanabesak aurreikusten ditu. Lehenbizikoen artean nabarmendu behar da Garapenerako Lankidetzaren Lurralde arteko Batzordea, zeinean beste erakunde batzuen artean Autonomia Erkidegoak ordezkatuak baitaude. Batzordearen xedea da Estatuko Gobernu eragile guztien garapen-politikak nola edo hala koordinatu eta bateratzea.

C) Lankidetzaren Deszentralizatua (LD) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (GNL) Nafarroako Foru Komunitatean

Lankidetzaren deszentralizatua kontzeptuak (LD)* esanahi bat baino gehiago du eta bi joera handi nabarmendu behar dira: batetik, Europar Batasuneko Garapen-politikarako ZDK* duen esanahiari lotua dagoena, zentzu zabalean ikusten duena; bestetik, GNL* horizontalago eta partehartzaileago gisa ikusten duen joera, eta xede du protagonismoa ematea GNL* prozesuetan ari diren herrialde guztietako gizarteekin lotura duten eragileei.

Ikuspegi zehatzagotik, Espainian lankidetzaren deszentralizatua esaten zaio administrazio publiko deszentralizatuek kudeatutako harexeri, hau da, Autonomia Erkidegoek eta Toki Entitateek gobernatutakoari.

Erakunde horien parte-hartzea gero eta handiagoa izan da Espainiako GLOean eta, ondorioz, haien ekarpen nabarmena sartua dago Espainiako Garapenaren aldeko Lankidetzaren Legean, eta Gobernu Zentralarekiko koordinazio bideak ere zehaztu dira.

Zenbait egilek dioten bezala, garapen deszentralizatuaren berezitasun handienak dira gizarte zibil antolatuarekin eta, oro har, herritarrekin zuzenean duten harremana, bai eta interes politiko eta komertzialekiko duen independentzia handia. Gai-

nera, baliabide gehienak GGKEen bitartez bideratuak daude deialdi bidez edo zuzeneko esku-hartzearen bitartez, eta horrek laguntzaren kalitatea hobetu du eta, era berean, hurbilpen handiagoa eragin du giza garapen iraunkorraren helburuak lortzeko bidean.

Aipatu esparruan, azken urteotan Nafarroako Gobernuak lankidetzarako bere politika finkatu du eta, hartara, instituzio eta arau-esparru egokia eraiki da, betiere jarduketa arduratsuari lotua eta gainontzeko administrazioekin koordinaturik. Bereiziki arretaz betetzen dira Estatuko araudiak ezarritako printzipio eta helburu bateratuak, betiere Estatuaren Lankidetzako Plan Zuzentzaileetan hainbat urtetarako biltzen diren aurreikuspenen osagarri.

Esku-hartzen duten Administrazio Publikoen ikuspuntutik, lehenik eta behin Nafarroako GNL* osatua dago Nafarroako Gobernuak arlo honetan egiten duen jarduketaz, Plan honen xede dena. Bigarrenik, Iruñeko Udalaren jarduera nabarmendu behar da bere ibilbideagatik, instituzionalizatzeko mailagatik eta GNLri* emandako dirutza handienagatik. Hirugarrenik, azpimarratu behar da Nafarroako gainerako udalerrri gehienek nafar lankidetzaren sustatu eta dirua eman dutela proportzionalki laguntza ofizialerako. Eta, azkenik, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (FNMC) (5) jarduketa nabarmenduko dugu, **Garapenerako Lankidetzaren Udal Fondoaren** programaren eragile (6), toki entitateen ekarpenak eta ahaleginak bateratzeko sortua, hala nahi badute. Zehazki, garapen-bidean dauden herrialdeetako herri pobreen oinarrizko beharrak asetzera bideratutako ekintzak finantzatzen ditu.

Aurrerapen horiekin batera, badira beste elementu historiko eta soziologiko nabarmen batzuk. Esaterako, nafar ugari betidanik aritu da munduko beste eskualde batzuetan eta, bereziki, aipatu behar da Nafarroako zenbat erakunde eta pertsona ari diren garapen-bidean dauden herrialdeeta-

(4) Espainiako Konstituzioaren 149.1.3 artikulua dio nazioarteko harremanak estatu zentralak eskusiban dituen eskumena direla. Artikulu horren interpretazio estua egitera, Autonomia Erkidegoek ezin izanen lukete hasiera batean behintzat inolako parte-hartzerik izan kanpoaldean, garapenaren aldeko lankidetzaren barne. Alde horretatik, Auzitegi Konstituzionalak berak argitu du artikulu horrek ez duela esan nahi Autonomia Erkidegoek ezin dutela "kanpoaldearekiko jarduera nabarmenik" batera egin, baizik eta Estatu zentralari dagokiola Estatuaren ordezkaritza kanpoaldean, baina Autonomia Erkidegoek badutela parte-hartzeko aukera, eta parte-hartzeko bide horietako bat lankidetzaren da.

(5) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa Nafarroako toki entitateez osaturiko elkarte da, beren borondatez sartutakoak, eta elkarren arteko beren interesak defendatzea dute xede, bereziki toki autonomiaren defentsa.

(6) Eratu zenetik beretik, Fondoak urtero Nafarroako GGKEentzako proiektuak diruz laguntzeko deialdia egiten du. Gainera, hitzarmena egingo du GGKEen Koordinakundearekin, gizartearen sentsibilizatzeko ekintzak egin ditzaten. Era berean, noiz edo noiz larrialdiko egoera batzuetarako laguntza bideratzen du. 2005ean, lehen aldiz hirurteko hitzarmena sinatu da hainbat udal-ekin garapenaren aldeko laguntza egiteko.

ko proiektuetan, aurreko garaietan hasitako gizarte-ekintzen eta misiolari-lanen ondorioz.

Beste alde batetik, Nafarroako gizartea etorkinak hartzen ari da orain eta horrek aukera berria ekarri du GNL* sendotzeko eta garapen teknika berriak aztertzeko, esaterako, baterako garapena, azken urteotan Nafarroara bizitzera etorritako pertsona eta etorkin-erkidego ugarien parte-hartze aktiboaren bitartez.

1.1.2. Nafarroako Gobernuak lagundutako nafar lankidetzaren arau-esparrua eta arlo instituzionala

Lankidetzarako politika orokor eta koherenteak antolamendu instituzional egokia behar du, bai eta arau-esparru erregulatzaileria eta behar bezalako plangintza ere. Nafarroako Gobernuak, aipatutako elementuak osatzen ditu Plan Zuzentzaile honen bitartez, eta lehen aldiz aipatu politikaren planifikazioa antolatzen du. Horrenbestez, Plan hau da orain arte gauzaturako prozesu instituzionalizatzaileen eta arau-emaileen emaitza, bai eta behar den osagarria ere.

A) Instituzionalizazioa

Nafarroako Gobernuaren baitan, Nafarroako GNLren* jatorria 80ko hamarkadan kokatu behar da, garai hartan egin baitziren lehen diru-emate ofizialak lankidetzaren arloko proiekturen bat finantzatzeko. Era arautuagoan, prozesua hamarkada horren akaberan hasi zen, urte haietan hasi baitziren garapenaren aldeko lankidetzaren proiektuak Nafarroako diru publikoekin batera finantzaturik (1989koa da Nafarroako Medicus Mundi erakundeak Ruandan sustatutako proiektua finantzatzeko lehen aurrekontu-ildoak). Garai horretan, Nafarroako Gobernuak hiru Departamentu egiten zuten lankidetzaren baina ez koordinaziopean (Lehendakaritza, Osasun eta Gizarte Ongizate Departamentuek, zehazki).

1991ko bukaeran, fase berriari heldu zitzaion, garapenaren aldeko lankidetzaren programa sortu eta antolatu baitzen zentzu hertsian, eta gaia Departamentu bakarraren esku utzi zen (Gizarte Ongizatea). Zehazki, berriazko administrazio-unitate bat eratu zen lankidetzaren kudeatu eta arlo horretako proiektuen finantzaketa arautzeko

(1992an, garapenaren aldeko lankidetzarako dirulaguntzak era integratuan arautzen dituen lehenbiziko araudia, martxoaren 9ko 95/1992 Foru Dekretuaren bidez); era berean, hona hemen araudia ezaugarritu zuten oinarritzko ildoak:

- Zeharkako ekintza, hau da, eragileak dira Nafarroan dauden GGKEk eta toki bakoitzean dituzten bazkideak edo kontraparteak; Nafarroako Gobernuak beretzat gordetzen du finantzatu beharreko proiektuak aukeratu eta kontrolatzeko esku-mena, subsidiarotasun printzipioarekin bat.

- Aldebiko izaera, alde askotako programetan parte hartu gabe.

- “Giza garapena” lehenetsutako sektoreetan bultzatzen bideratua, bereziki osasun, hezkuntza, oinarritzko saneamendu eta elikadura-segurtasunera, besteak beste.

1994an, Nafarroako Parlamentuak ez-legezko ebazpen bat onetsi zuen. Horren bidez, Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiazten zuten pixkana % 0,7a garapenaren aldeko lankidetzaren bideratzeko helburua lortzera. Aipatu portzentajera lehen aldiz 1977ko urtealdi ekonomikoan iritsi zen eta, bere horretan iraun du orduz geroztik joan diren urte gehienetan.

Beste mugari nabarmena Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaeratu zuen 222/1996 Foru Dekretua izan zen. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren organo aholku-emailea zen lankidetzaren kontuarentako. Lankidetzaren programa 1997-1999 urteetan sendotu zen. Horrela, dirulaguntzen deialdien araudia hobetu zen, beste administrazioekiko harreman instituzionalak indartu (funtsean, horrelako proiektuak bultzatzen dituzten administrazioekin) eta nafar gizarte osoaren sentsibilizazioa landu zen.

Horrela, bada, 2000. urtean, ikusi zen nafar lankidetzari aplikatzekoak ziren arau eta araudiak barreiatuak zeudela hainbat lege-testutan, esaterako: Dirulaguntzak arautzeko Foru Legean, Boluntarioen Foru Legean, Fundazioen Zerga Araubidearen Foru Legean, 95/1992 Foru Dekretuan, zeinaren bidez garapenaren aldeko lankidetzarako dirulaguntzen araubidea ezarri baitzen, edo 222/1996 Foru Dekretuan, Nafarroako Gara-

(7) Según la Resolución sobre la cooperación y ayuda al desarrollo del Tercer Mundo del Parlamento de Navarra (Boletín del Parlamento NUM. 64, 28 de octubre de 1994) se instaba al Gobierno de Navarra para que se alcanzase, en concepto de ayuda al desarrollo, el 0,7% del Presupuesto General de Navarra descontados la aportación al Estado, las transferencias a los entes locales y los gastos financieros de la deuda pública.

(8) Ondotik, Garapenaren aldeko Lankidetzaren arautzeko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea onetsi zen. Horrek, organo honen araubide juridikoa osatzen lagundu zuen. Beraz, legezko aitortza jaso zuen. Bestalde, maiatzaren 13ko 100/2002 Foru Dekretuak Kontseiluari buruzko erregelamendu bidezko erregulazio berria eskaini zuen, Foru Lege haren aurreikuspenekin bat.

penerako Lankidetzaren Kontseilua sortu zuena. Horrek guztiak berekin erakarri zuen Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen onespena.

B) Arauen garapena

Ez 1978ko Espainiako Konstituzioak, ez abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoak, ez dute aipatzen garapenaren aldeko lankidetzaren berezko eskumen-titulu gisa. Arauek arlo honetan duten definizio ezak berekin dakar lankidetzaren uler daitekeela Estatuaren, Autonomia Erkidegoen eta beste lurralde entitate batzuen arteko eskumen gisa, esaterako, probintziak eta udalerrriak. Horrela, berariazko eskumen-titulurik ez badu ere, Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzaren politikaren funts juridikoa oinarritua dago Nafarroako autonomiarako duen eskubidean, horri lotutako eskumen-titulu batzuen hedaduraz. Bereziki, nafar lankidetzaren politika zilegi egiten duen oinarri juridikoa ondoko atal edo eskumen-tituluetan dago, aipatu Lege Organikoaren 44. artikuluan aurreikusitakorekin bat:

“17) Gizarte laguntza.

18) Komunitatearen garapena; emakumearen aurrerabideak; haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika.

19) Irakaskuntza, kultura, arte, ongintza, laguntza eta gisako izaera duten elkarteak beren egitekoak nagusiki Nafarroan betetzen badituzte..

20) Nafarroako Foru Zuzenbidearen arauak jarraikiz eratutako fundazioak.”

Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzari lotutako arauen bilakaeraren ezaugarria izan da - 2001era arte- ez dela gaiari buruzko oinarritzko legerik izan. Horrenbestez, esan dezakegu data horren aurretik, lankidetzako jarduketan erregulazio juridikoa araudi sektorial eta instrumentalen bidez egiten zela. Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea onetsi ondoren, Nafarroak badu behar bezalako arau-sistema bere lankidetzaren politika egiteko, betiere arautalde hauen inguruan:

a) Nafarroako bertako eta Estatuaren oinarritzko araudia

b) Araudi sektorial nabarmena

c) Araudi instrumentala

Foru Hobetzean ez zaio lankidetzari aipamenik egiten. Ondorioz, lehenik eta behin, Nafarroako **bertako oinarritzko araudia** aipatu Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko

5/2001 Foru Legeari dagokio, zeina, bere zioen azalpenak berak adierazten duen bezala, sortu baitzen nafar lankidetzaren printzipio, eragile eta baliabideen osotasunari egitura eta batasuna emateko. Legearekin batera, multzo honetan sar daitezke lankidetzaren politikaren alderdi batzuk bere osoan arautzera bideratutako foru araudiak. Esate baterako, maiatzaren 13ko 100/2002 Foru Dekretua, zeinaren bidez Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua garatu baitzen. Arestian esan bezala, azken dekretu horrek indargabetu zuen maiatzaren 20ko 222/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua sortu zuen huraxe, alegia.

Estatuaren oinarritzko araudi aplikagarriari dagokionez, lege bat bakarra legoke, hots, Nazioarteko lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legea. Bere printzipio eta helburuak estatuko administrazio publiko guztien lankidetzaren oinarri-
an daude.

Araudi sektoriala osatua dago garapenaren aldeko nafar politikari eragiten dioten xedapen guztiez, betiere Nafarroako bertako oinarritzko araudiari kontra egiten ez dioten neurrian. Zehazki, lankidetzari eskusibaz aplikatzekoak ez diren gaiak arautzen dituzten legeak dira eta, aldi berean, lankidetzari begira hein batean baizik nabarmenak ez direnak. Horrela, arauen multzo honetan hauek sartu beharko genituzke:

a) 2/1998 Foru Legea, martxoaren 27koa, Bolondres lanari buruzkoa.

b) Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legea, berriketan onetsia eta ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea indargabetu duena, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen baita ⁽⁹⁾.

c) Uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, fundazioen eta babes jardueren tributu araubideari buruzkoa.

Azkenik, lankidetzaren politika garatu eta ezartzea ahalbidetu nahi duten xedapenen multzoari **araudi instrumentala** esaten zaio. Gehienetan, araudi horiek indarraldia aurrez finkatua dute edo lerrun apalagoko xedapenak izaten dira, betiere lotura duten administrazio-prozesuak antolatuz bideratuak. Multzo honen barnean sartuko dugu martxoaren 9ko 95/1992 Foru Dekretua, garapenaren aldeko dirulaguntzak arautzen dituen, bai eta irailaren 8ko 240/1997 Foru Dekretua ere, zeinaren bidez ezartzen baitira Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan izapidetzen diren administrazio-prozeduren moldaketari dagozkion arau-

ak. Halaber, araudi instrumentalaren barnean urteko Foru Aginduak sartu behar dira. Agindu horien bidez, deialdiak egiten dira garapenaren eta hezkuntzaren aldeko proiektuen gauzapena diruz laguntzeko, eta gai honi buruzko sentsibilizazioa zabaltzeko. Horri loturik agertu den azken xedapena otsailaren 21eko 52/2006 Foru Agindua da.

Beraz, garapenaren aldeko lankidetzaren nafar sistemaren funtsezko araua martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea da, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzkoa, alegia. Estatuko Legearen antzera, arau horrek ere hasieran erregulazioaren xedea zedarritzen du, bai eta lankidetzaren nafar politikaren printzipio gidariak eta helburuak ere. Bada, printzipio gidarien esparru orokor horrek oinarrizko erreferentziatzat balio behar du Lege bereko 17. artikuluan aurreikusita dagoen planifikazio instituzionalerako.

Foru Legeak, era berean, zedarritzen du Nafarroako garapenaren aldeko politika doituko dela sektoreetan eta geografia-eremuetan lehentasun batzuk planifikatzera, zeinak funtsean aipatu arauan diseinaturik heldu diren. Lehentasun geografikoek lankidetzari buruz dagoen ikuskera globala erakusten dute, eta munduko pobrezia mailarik handiena dutenen herrialde eta eskualdeetako jarduketak lehenesten dira.

Lehentasun sektorialeiei dagokienez, bereziki hauek azpimarratzen dira: pobrezia murriztea, giza garapena* osatzen duten beharrak asetzea, haurren eta talde indigenen behar bereziak asetzea eta, azkenik, giza eskubideak indartzea eta demokrazia sendotzea. Halaber, legez ezartzen da garapenaren aldeko hezkuntza eta gizarte sentsibilizazioa, berez lehentasun sektorialak izan baino, lankidetzaren politiken diseinuan hartu behar direla kontuan. Beraz, beharrezkoa da bai bata bai bestea lankidetzari buruz egiten den plangintza orotan aintzat hartzea eta gauzatzea. Lehentasun sektorialekin batera, lehentasun horizontalak heldu dira, dela errespetuzko politiken alde, dela ingurumena zaintzearen alde, dela genero arteko berdintasunaren alde.

Lankidetzako eragileei dagokienez, Foru Legeak –arestian aipatutako parte-hartzearen printzipioarekin bat– eragileak zentzu zabalean hartzen ditu. Nafarroako egitura instituzionalaren barnean, Foru Gobernuak eginkizun nabarmenak ditu lankidetzaren politika planifikatu, gauzatu eta ebaluatzeko. Bere aldetik, Nafarroako Toki Entitateek badute beren ekintzak lantzeko aukera lankidetzaren kontuetan, betiere Foru Legean bildutako printzipio gidariak, lehentasunak eta helburuak errespetatuta. Nafarroako Lankidetzaren Kontseiluak gizartearen parte-hartzea ziurtatzen du, bai eta nafar gizartearen dauden garapenaren aldeko lankidetzaren eragilearen arteko koordinazioa ere, eta eragiletzat jotzen dira Foru Legearen 19. artikuluan arabera definitutako GGKEk. Horiekin batera, garapeneko eragile ere izan daitezke irabazteko asmoa duten entitateak eta pertsona juridikoak, beren xede espresuen helburua garapenaren aldeko lankidetzaren bada, betiere garapeneko ekintza zehatzetan irabazi asmorik ez badago, edo aipatu ekintzen onura berriro garapena bultzatzeko ekintzetara bideratzen bada. Azkenik, Foru Legeak eragiletzat ere jotzen ditu lankidetzaren jomuga diren herrialdeetan dauden tokiko taldeak, erakundeak eta kontraparteak.

Legeria hori guztia Plan Zuzentzaile honen erreferentzia esparrua da, eta bere oinarrizko elementuak Garapenerako Lankidetzari buruzko Foru Legean zehaztuta ageri dira. Plan Zuzentzaileak, beraz, legezko aurreikuspenak betearazi nahi ditu eta, horrez gain, behin betiko egitura koherentea, eraginkorra eta sistematikoa eman nahi die Nafarroako Gobernuak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari* sustatu eta bultzatutako jarduketari guztiei. Azkenik, erreferentzia testu gisa izatea nahi du, ez soilik Gobernuak arlo honetan nondik nora jokatu behar duen jakiteko, baizik eta ari diren gainontzeko eragileen gizarte parte-hartzea sustatzeko hala Planaren prestaketan eta onespean, nola indarra duen bitartean eta ondoko ebaluazioan.

(9) *Garrantzitsua da azpimarratzea Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzaren Plan Zuzentzailearen prestaketan, dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Lege berria onetsi zela. Oraingoan, ez badakigu ere lege berriak garapenaren aldeko lankidetzaren politikaren kudeaketan norainoko irismena izanen duen, testuari erreparatuta aurrez esan dezakegu eragin handia izanen duela lankidetzan, aldaketarik ez bada. Halaber, ondoko gai hauekin lotutako konpromisoak hartu ditu, besteak beste: proiektuei zuzendutako aurrekontua gauzatzeko epea; dirulaguntzak emateko denboraldia; batera finantzatutako portzentajea, aurrekontua justifikatzeko eskakizun proportzionala, etab.*

1.2. NAFARROAKO GOBERNUAK LAGUNDUTAKO NAFAR LANKIDETZAREN EGOERA GAUR EGUN

Arestian aipatu dugun bezala, Foru Gobernuaren laguntzaz egindako Nafarroako GNLk* ⁽¹⁰⁾ - aurrerantzean horri baizik ez zaio aipamena eginen- bilakaera ona izan du arlo kuantitatiboan, arauenean eta instituzionalean. Gainera, lankidetzari hori posible da garapenaren aldeko ekintzak bai Nafarroan bai beste herrialde batzuetan egiten dituzten hainbat eragileri esker. Hori gorabehera, ari diren eragileen artean egindako azterketak agerian jarri zuen badirela hutsune batzuk eta badela eragileen eginkizuna kalitatearen aldetik hobetu beharra, lankidetzari deszentralizatuaren eredu egituratuko bada, bai eta azken denboraldian erabilitako lanabesen eragingarritasuna ere.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari Zerbitzuaren bitartez, helburu hau ezarri zuen egungo legegintzaren hasieran, hots, programaren jarduketaren kalitatea*, hau da, kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzea nafar lankidetzari lortutako mailarekin bat. Horretarako, hona hemen ezarritako helburuak:

– Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria idaztea.

– Gobernu Kanpoko Lankidetzari laguntza ematen segitzea programaren ardatz nagusitzat.

– Harreman instituzionalak eta administrazioen artekoak hobetzea bai administrazio zentralarekin bai Nafarroako Toki Entitateekin.

– Garapenaren aldeko Hezkuntza eta gizarte sentsibilizazioa sustatu eta ebaluatzea.

Jarraian, batetik, datuen azterketa kuantitatiboen bidez egindako diagnostikoaren emaitzarik nabarienen ageri dira ⁽¹¹⁾, bai eta izaera kualitatiboko emaitzak ere, DAFO azterketaren bidez lortu ditugunak.


1.2.1. Nafarroako Gobernuak babestutako Nafar lankidetzari zenbakietan

A) Datu orokorrak

Nafarroako Gobernuak, guztira, ia 125 milioi euro bideratu ditu 1992an GNL* programa hasi zenetik 2005era arte. Horrela, 1992ko aurrekontua 2,5 milioi euro inguru izan zen eta 2005ean, aldiz, 15,8 milioi euro; zergaldi honetan programaren aurrekontua 16.392.257 euro da. 1. grafikoan Como ageri den bezala, gorazko joerari eutsi zaio.


(10) Idazketaren argitasunaren mesedetan, Nafar Lankidetzari mintzo garenean, soilik izanen da Nafarroako Gobernuak diruz lagundutakoari lortutako lankidetzari honen zatia.

(11) Ez da analisi estatistikorik egin denborazko serieen gainean, eta hori arrazoi teknikoak direla medio (oso serie laburrak dira, $t = 15$ zenbaitetan eta $t = 10$ beste batzuetan, eta ez dira estazionalitate probak egin). Era berean, ez da datu estatistikorik ageri, ez joera nagusikorik, ez sakabanatze-daturik. Ondorioz, ez da aldagai bakarreko edo anitzeko analisisirik egin. Beraz, deskribapen-datu hutsak dira, eta alde horretatik, zuhurtasunez interpretatu behar dira.



Urte hauetan guztietan bikoiztu egin da proiektuen kudeaketa. Horrela, diruz lagundutako proiektuen kopuruari erreparatzen badiogu, 1992an 115 izan ziren eta 2005ean, aldiz, 219. Baina, 2. grafikoa ageri den bezala, hazkundera 1995ean gertatu zen eta, gero, urteko 200 proiektu inguru izan dira urtez urte; horren ondorioz, gora jo du pixkana proiektu bakoitzeko batezbesteko finantzaketak

(ikus aurrerago, modalitateen arabera azterketa). Finantzaketako erakundeei dagokienez, hazkunde nabaria gertatu zen 1996ra arte, eta gero goranzko joera agertu zen baina ez horren nabaria; finantzaketaren batezbestekoaren gaineko eraginak ere goranzko joera islatzen du, baina aldeantiz, hau da, lehenbizi hazi egiten da pixka bat eta, gero, hazkundera biziagoa da.



Diagnosticoko kuantitatiboan sakontzeko asmoz, 1997tik 2005era arteko denboraldia hartu da kontuan, datu bilketako homogeneotasun arrazoiengatik, eta denboraldi horretan % 0,7rekin onritu zelako Nafarroako Gobernuaren GLO*ren* aurrekontua, gobernuaren gastu aurrekontu osoa kontuan hartuta, betiere Estatuarentzako, Toki Entitateentzako eta zor publikoaren finantzaketa-gastuentzako ekarpena alde batera utzita. (ikus 8. oharra).

1997tik 2005erako denboraldian Nafarroako Gobernuaren GLO* egonkor mantendu da, bere gastu aurrekontuari dagokionean (% 0,7), salbu eta 2001-2003 urteetarako (12); halaber egonkor dirau Nafarroako BPGrekiko. Aldiz, goranzko joera apala ageri da biztanle bakoitzeko GLOri* dagoki-


onez, hau da, Nafarroako Gobernuak zenbat eman duen pertsona bakoitzeko GLOri* dagokionez. (3. Grafikoa). Eskatutako kopuru osoak eta Nafarroako Gobernuak emandakoak aldean jarrita, bietan goranzko joera ageri da (3. bis grafikoa), baina aldapa handiagoa dago azken denborazko serie horren joeraren ildoan. Beste alde batetik, konparatzen baditugu finantzatu diren proiektu guztiak finantzatu ez direnekin (3. grafikoa III), azken kasu horretan beheranzko aldapa ageri da eta lehenbizikoena, aldiz, goranzkoa da. Azkenik, emateen portzentajeak konparatzen baditugu (guztietatik zenbat proiekturi eman zaion, eta eskatutako diru kopuru osotik zenbat eman den) bi aldagaietan joera positiboa dago, eta biek bat egiten dute 2005ean % 70 inguruan (3. iv. Grafikoa).

1. TAULA. NAFARROAKO GARAPENERAKO LAGUNTZA OFIZIALAREN (GLO) BILAKAERA



	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
(1) NG aurrekontua	1.268.834.926	1.367.979.727	1.445.027.776	1.565.994.180	1.980.610.833	1.994.877.477	2.004.962.174	2.354.595.572	2.307.202.111
(2) BPG mp (Nafarroa)	8.702.870.000	9.368.087.000	9.901.800.000	10.610.829.000	11.255.112.000	11.975.951.000	12.701.746.000	13.841.221.000	14.804.044.000 (*)
(3) NGaren GLO	8.796.344	9.606.211	9.925.773	10.930.802	11.106.004	11.174.617	11.361.720	15.551.873	15.777.641
(4) Nafar biztanleak	529.438	530.819	538.009	543.757	556.263	569.628	578.210	584.734	593.472


(*) Kalkulatutako datuak dira, oraindik ere ez baititugu eskura ofizialak 2005eko hirugarren lauhilekoari dagokionez.

- (1) Nafarroako Gobernuaren gastu aurrekontua (arestian aipatutako kopuruak kenduta), Nafarroako Parlamentuak aurrekontu-urtealdi bakoitzean onetsitako kreditua aintzat hartuta.
 (2) Barne Produktu Gordina merkatuko prezioetan, Nafarroako Estadistika Institutuak finkatutako edo kalkulaturako datuen arabera.
 (3) Nafarroako Gobernuaren GLO*(Garapenerako Laguntza Ofiziala) Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren Garapeneraren aldeko Lankidetzeta programak egindako gastuei dagokienez, Departamentuaren beraren administrazio-gastuak barne sartu gabe.
 (4) Nafarroako biztanle kopurua, Estadistikaren Institutu Nazionalaren biztanle serieen arabera.



(12) 2002an eta 2003an luzatu egin zen Nafarroako Gobernuko 2001eko gastu aurrekontua eta urte horretan ez zena % 0,7 konpromisora iritsi.






B) Eragileak

Nafarroako GNLko* eragile nagusiak Garape-nerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak dira (GGKE). Termino horrek ez du arlo juridikoan ordainik. Horregatik, martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak aukeratu duen definizioak oinarri ditu halako pertsona juridiko jakin batzuek izan behar dituzten baldintzak erakunde horiek GGKE gisa aintzakitatzat hartzeko. Alde horretatik, hiru pertsona mota aitortu dira: “elkartea” (13), “fundazioak”


eta “erakunde erlijiosoak”. Bada, 4. grafikoa ageri den bezala, GGKE gehien nortasun juridikoa “elkartea” da, baina finantzaketari dagokionez, pixkana lekua galtzen ari dira “fundazioen” eta “GGKEen partzuergoen edo elkarketen” aldean. Bestalde, “erakunde erlijiosoen” lana funtsezkoa izan da Nafarroako GNL* sortu eta garatzeko, eta pisua galtzen ari dira Nafarroako Gobernuaren finantzaketa bere osoan hartuta. GGKEk alde batera utzita, azkenik aipatu behar da erakunde publikoek hartu duten toki txikia.



(13) 2001. urtetik aitzinera, elkarte eta fundazio batzuk GGKEen partzuergo bidez antolatutako aurkeztu dira (Dirulaguntzei buruzko egungo Foru Legearen arabera, GGKE taldeak)

Finantzuak izan diren erakunde kopuruaren bilakaerak goranzko joera du dirulaguntza eskatu duten erakunde guztien aldean (4. bis grafikoa), baina era ziklikoan, eta hori ageriago gelditzen da dirulaguntza eskatzen duten era-

kunde guztien gaineko portzentajeari dagokionez; horrela, 1997an 86 erakundek jaso zuten dirulaguntza (guztien % 76k) eta 2005ean, aldiz, erakunde onuradunak 100 izan dira (eskatzaileen % 88)



Erakundeek dagokienean, aztertutako urte guztien diruen % 80 45 erakunderen artean banatu dira (guztira, 208 izanik), edo bestela esanik, erakundeek % 21ek diruen % 80 kudeatu du. Erakunde multzo horren barnean azpi-talde hauek daude:

a) Nafarroako Medicus Mundi. Arrazoi historikoak eta eraginkortasunezkoak direla medio, finantzaketa berezia izan dute eta, gaur egun ere hala xe dute, dirulaguntzen deialdian parte hartu gabe. Aztertutako denboraldiko diruen % 15 kudeatu dute, baina beheranzko joerarekin eta azken bi urte honetan % 11 inguruan egonkortu da. ,

b) Bestalde, 16 erakundek diruen % 2tik % 4ra kudeatu dute (Asociación Navarra Nuevo Futuro, Organización Navarra Ayuda entre los Pueblos, Asociación Pro Perú, Aldea. Alternatiba Desarrollo, Asociación Misión Diocesana de Navarra, Espainiako Gurutze Gorria, Asamblea Navarra, Rode Fundazioa, Alboan Fundazioa, INTERMON OXFAM, Asociación Promoción Claretiana de Desarrollo – Navarra, Médicos sin Fronteras, Humanismoa eta Demokrazia Fundazioa, Médicos del Mundo, Fundación Paz y Solidaridad de Navarra, Manos Unidas (Munduko gosearen kontrako kanpaina eta Mugarik Gabe Nafarroa elkarte). Aldi berean, talde horren barnean hiru azpi-talde daude: gero eta finantzaketa handiagoa jasotzen dutenak (Médicos del Mundo eta Nafarroako Paz y Solidaridad Fundazioa); beheranzko joera dutenak

(Aldea, Alternatiba Desarrollo, Asociación Misión Diocesana de Navarra eta Humanismoa eta Demokrazia Fundazioa); eta gainontzekoen finantzetak bere horretan dirau gutxi gorabehera.

c) 28 erakundek diruen % 1na kudeatu dute (GGKE: Misioneras Clarisas del Santísimo Sacramento, Fundación Acción contra el Hambre, Servicio Tercer Mundo SETEM Navarra, Asociación Navarra de Amigos y Amigas de la RASD RASD Adiskidantzarako Nafar Elkarte –ANARASD-, Fundación Internacional de Solidaridad Compañía de María, Asociación Haren Alde, Instituto Sindical Cooperación Desarrollo, Organización de Cooperación y Solidaridad Internacional, Asociación (hoy Fundación) para la Obra Social de la Orden del Santo Sepulcro de Jerusalén, Asociación Juvenil Madreselva, Paz y Tercer Mundo - Hirugarren Mundua ta Bakea, Asociación España con ACNUR, Arquitectos Sin Fronteras España, Fundación Juan Ciudad, Fundación Irabia, Vita et Pax in Christo Jesu, Hermanos Menores Capuchinos, Fundación Kawa, Hermanas Terciarias Capuchinas de la Sagrada Familia, Hogares Infantiles del Mundo, Fundación Abogados sin Fronteras, VETERMON - Veterinarios sin Fronteras, Asociación Nous Camins; GGKE taldeak: Nafarroako GGKEen partzuergoa – Huancavelica y Consorcio Navarro para el Desarrollo Sostenido –CONADES; Izaera publikoko erakundeak: Nafarroako

Unibertsitate Publikoa eta Trabajos Catastrales, S.A.) Horien guztien artean, ANARASD eta VETERMON erakundeek baizik ez dute goranzko joera GGKEen artean, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa erakunde publikoen artean; gainontze-koek bere horretan diraute edo pixka batean behera doaz.


Hortaz, banaketa fidel hurbiltzen zaio Pareto-ren Legeari, hau da, erakundeen % 80k diruen % 20 kudeatzen dute soilik (163 erakunde dira) eta

erakundeen % 20k diruen % 80 kudeatzen dute. Horrek esan nahi du diruak oso banatuak badaude ere, metaketa nabaria gertatzen da arestian aipatutako hiru azpi-taldeengandik.

C) Geografia-eremuak.

Denboraldi honetan, finantzaketarik handiena jaso duten geografia-eremuei dagokienez, Hego Amerika (% 38) eta Afrika (% 26) izan dira. Hirugarren tokian Erdialdeko Amerika eta Karibe daude (% 21).

5. Grafikoa. Banaketaren bilakaera, geografia-eremuen arabera



Datuak herrialdeekiko aztertzen badira, azken hamarkada honetan sakabanaketa handia izan da. Horrela, 1977tik 2005era inbertitutako ia 105 milioi euroak 78 herrialdetara bideratu dira (kanpo utzita Nafarroan egindako ekintzak edo batera hainbat herrialdetarako bideratutakoak). Horietatik, 30etik gora herrialdetan 3 esku-hartze baino gutxiago egin dira (eta 20tan bat besterik ez). Paretoaren azterketa egitean, diru guztien % 80 21 herrialdetan banatu dira (PERU, BOLIVIA, GUATEMALA, RD KONGO, EKUADOR, NIKARAGUA, TANZANIA, VENEZUELA, KUBA, KOLONBIA, ALJERIA – Saharar herria, EL SALVADOR, DOMINIKAR ERREPUBLIKA, PALESTINA, INDIA, MEXIKO,

UGANDA, NIGERIA, BRASIL, KENYA eta HONDURAS). 21 horiek Nafarroako GNL* jaso duten herrialdeen % 27 dira eta horien artean azpi-talde hauek daude:

a) Peruk denboraldiko finantzaketa guztiaren % 16 jaso du, eta era ziklikoan.

b) Bolivia, Guatemala, Kongoko Errep. Dem., Ekuador eta Nikaragua. % 4tik % 9ra arteko finantzaketa jaso dute. Beren joerak aldagarriak dira; horrela, Kongoko Errepublika Demokratikoan goranzkoa da, egonkor dago Ekuadorren eta gainontze-koetan, berriz, era zikliko finantzaketa dute.

c) Tanzania, Venezuela, Kuba, Kolonbia, Aljeria – Saharako herria, El Salvador, Dominikar Errepublikak, Palestina, India, Mexiko, Uganda, Nigeria, Brasil, Kenya eta Honduras. %1etik %3ra arteko finantzaketa jaso dute, gutxi gorabehera egonkorra.

21 herrialdeko talde horretatik, 5 daude soilik Giza Garapen* apaleko herrialdeen taldean.

Beraz, esan daiteke metaketa nabaria gertatzen dela herrialde onuradunen % 27 inguruan, eta herrialde gehienak Giza Garapen*

Dena dela, herrialde barneko eremuak aztertzean, sakabanaketa maila oso altua da: adierazitako denboraldian 392 erregiotara iritsi da laguntza (kanpo utzita Datu Basean eta Garapenerako Hezkuntzan* identifikatuak ez dauden eskualdeak), eta horietatik Nafarroako Gobernuaren⁽¹⁴⁾ diruetatik datozen GNLren* % 80221 eskualdetara bideratu da, hau da, eremu onuradunen % 56k diruen % 80 jaso dute; beraz, sakabanaketa gertatzen da, bai eta zatiketa ere. Eta horrek pentsarazten digu sistema ez dela eragingarria GNL* horrek gizarteetan duen eraginari dagokionez. Hala ere, 221 eremu horietatik, jasotako diruen % 1 gutxie-

nez jasotzen duten gehienak Peru edo Boliviakoak dira. Horrek bi herrialde horientzat behintzat zuzendu egiten du lehenago aipatu dugun ustezko eraginkortasunik eza.

– Perun, Lima, Piura eta Kuzko dira, eta gero Huancavelica, Apurimac, Cajamarca, Junín, Ayacucho eta Ica. Herrialdera iritsitako finantzaketaren % 81 da⁽¹⁵⁾.

– Bolivian metaketa handiagoa gertatzen da, herrialdera iristen den finantzaketaren % 80 4 departamentutan metatua dagoelako: Potosí, La Paz, Santa Cruz eta Chuquisaca (beheranzko hurrenkeran). Bosgarren departamentu bat kontuan hartzen bada, Cochabamba, datuak % 91ra igotzen dira.

D) Lankidetzeta-sektoreak.


Finantzaketaren % 81 6 sektoretan banatzen da eta, guztira, 22 sektore hartzen dira kontuan. Beraz, sektoreen % 27n. Horrek esan nahi du metaketa nabaria dagoela: gainera, argi dago Nafarroako GLO* bereziki bideratua dagoela oinarritzko gizarte-beharrak asetzeari lotutako sektoretara (osasuna, hezkuntza, ur hornidura, eta beste gizarte-zerbitzu batzuk).

(14) Estatu barneko eremua den aldetik, Nafarroa da Nafarroako GLOren* lehen jasotzailea, kontuan hartzen baitira Garapenaren aldeko Hezkuntzaren* esku-hartzeak gure Komunitatean.


(15) Datuak ikusteko, ikus estatistika-eranskina.

2. TAULA. NAFARROAKO GLOREN BANAKETA LANKIDETZA-SEKTOREEN ARABERA											
Lankidetz-sektorea	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	Guztira orokorra	% metatua
Osasuna	%35,76	%33,21	%39,57	%23,29	%25,19	%29,18	%26,21	%20,74	%16,48	%26,55	26,55
Hezkuntza	%26,53	%21,58	%13,28	%24,16	%27,05	%20,70	%13,97	%11,94	%9,38	%17,85	44,40
Beste gizarte zerbitzu eta azpiegitura batzuk	%14,27	%14,00	%15,13	%24,34	%11,79	%13,23	%10,29	%11,93	%11,67	%13,83	58,23
Beste sektore anitzeko batzuk	%2,10	%3,58	%2,92	%3,08	%7,74	%8,87	%19,15	%13,43	%18,00	%9,70	67,93
Lehen maila	%6,19	%7,07	%9,07	%3,62	%3,15	%5,53	%7,89	%12,39	%11,64	%7,82	75,74
Ur hornidura eta arazketa	%4,07	%1,04	%2,89	%4,79	%8,63	%2,77	%6,33	%4,85	%7,18	%4,93	80,68
Gobernua eta gizartea	%1,74	%5,35	%5,48	%5,11	%2,94	%5,42	%3,69	%3,48	%3,50	%4,04	84,72
Larrialdietarako laguntza	%1,00	%5,54	%4,50	%3,53	%2,96	%4,88	%2,64	%3,58	%3,80	%3,63	88,35
Garapenaren aldeko lankidetzaren sentsibilizazioa sustatzea	%2,49	%3,89	%3,18	%2,98	%3,84	%3,97	%3,10	%4,28	%3,93	%3,59	91,94
Programak / herritarrei eta ugalketa-osasunari buruzko politikak	%0,49	%0,29	%0,00	%0,38	%0,44	%2,14	%3,23	%5,60	%7,06	%2,64	94,59
Energia sortu eta hornitzea	%1,02	%3,16	%2,61	%2,09	%1,06	%0,78	%0,00	%0,96	%1,00	%1,34	95,93
Emakumea eta garapena	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%1,08	%0,66	%2,20	%4,83	%1,25	97,17
Garraioak eta biltegitratzea	%0,16	%0,16	%0,26	%0,48	%3,17	%0,20	%0,66	%0,50	%0,45	%0,68	97,85
Komunikazioak	%1,50	%0,51	%0,42	%0,99	%1,12	%0,10	%0,10	%0,76	%0,00	%0,57	98,42
Banku eta finantza zerbitzuak	%0,55	%0,20	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,83	%1,46	%0,55	%0,46	98,88
Bigarren maila	%0,63	%0,00	%0,08	%0,45	%0,03	%0,09	%0,12	%1,81	%0,28	%0,45	99,33
Garapenerako elikadura laguntza/elikadura segurtasuna	%0,00	%0,13	%0,12	%0,00	%0,00	%0,91	%1,12	%0,00	%0,00	%0,24	99,57
Gobernuz kanpoko erakundeentzako laguntza (GGKE)	%0,00	%0,00	%0,00	%0,53	%0,85	%0,14	%0,00	%0,00	%0,00	%0,16	99,73
Hirugarren maila	%0,55	%0,00	%0,42	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,09	%0,24	%0,14	99,87
Enpresak eta beste zerbitzu batzuk	%0,68	%0,08	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,06	99,93
Emaleen administrazio kostuak	%0,26	%0,21	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,04	99,97
Ingurumena zaintzea	%0,00	%0,00	%0,06	%0,18	%0,04	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,03	100,00
Guztira orokorra	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100,00	100,00

Sektore nagusia osasuna da, beheranzko joera apala agertzen duena (6. grafikoa). Sektore horri lotua dago edateko uraren hornidura eta saneamendua, eta ziklikoki erakusten du laguntza nabarmena ematen duela oinarrizko beharrak asetzeko.




Hezkuntzari dagokionez, beheranzko joera ere ageri da (7. grafikoa).




Azkenik, "sektore anitza" deitzen zaion sektoreak gora egin du oso nabarmen. Horrek erakusten du Nafarroako GLOK* gero eta konpromiso handiagoa hartua duela garapen-prozesu orokorrekin,

bereziki landa-eremuan; gauza bera erakusten du lehen mailako ekoizpen sektoreak agertzen duen goranzko joerak (8. grafikoa).



Garapenaren aldeko Hezkuntzari* dagokionez, Nafarroan adierazi behar da sektore horren bere horretan iraun duela. Orain arte, zenbakiei erreparatuta, aurrekontu osoaren % 3,5 izan da bana beste, betiere aztertutako denboraldian, eta guzti-

ra 196 proiekturen bidez gauzatu da, bana beste 22 proiektu urteko. Urteko gastuaren batezbestekoa, berriz, 18.500 euro baino gehixeago izan da. (9. grafikoa eta 7. taula)



3. Taula: Garapenaren aldeko Hezkuntzaren eta Sentsibilizazioaren garapena (1997- 2005)

Garapenerako Hezkuntza	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
GUZTIRA GH.	219.256	365.028	315.891	298.183	426.296	387.895	352.478	665.556	620.736
GUZTIRA GLO	8.796.344	9.606.211	9.925.773	10.930.802	11.106.004	11.174.617	11.361.720	15.551.873	15.777.641
% GH/GLO	%2,49	%3,80	%3,18	%2,73	%3,84	%3,47	%3,10	%4,28	%3,93
GH PROIEKTU KOPURUA	11	15	21	25	24	26	17	27	30
GH PROIEKTUAK BANA BESTE	19.932,40	26.073,40	15.042,42	12.424,30	17.762,33	16.162,31	20.734	24.650,22	20.691,20

Hala ere, Garapenaren aldeko hezkuntzaren* proiektuak asko izan dira eta oso sakabanatuak. Proiektuak 2.500 eta 150.000 euroren artekoak dira, baina esku-hartze guztietatik, soilik berrogeiren batek egin dituzte proiektuak batezbestekoaren gaineratik (25.000 eurotik gorakoak), eta 40 horietatik gehienak ez dira 60.000 eurora iritsi, alde batera utzita Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nafarroako Gobernuak eta Medicus Mundik gauzatutakoak, zenbaitetan. 100.000 eurotik gorakoak izan direnak.

Proiektuak gauzatzen dituzten eragileei dagokienez, esanzen dugu Garapenaren aldeko Hezkuntza egiten duten erakundeen kopuruak gora egin duela pixkana denboraldian. Horrela, lehen urtee-

tan 10 inguru ziren eta 2005ean, aldiz, ia 30. Garapenaren aldeko Hezkuntza (eta Prestakuntza – lkerketan) baliabiderik gehien inbertitu dituzten eragileak Nafarroako Unibertsitate Publikoa (% 14), Nafarroako Medicus Mundi (% 18), Nafarroako UNICEF (% 7), GGKEen Koordinakundea (% 4,5) eta Aldea - Alternatiba Desarrollo (% 4,45), azken lau horiek GKEk, noski.

E) Modalitateak eta lanabesak

Lankidetz-modalitateei eta lanabesei dagokienez, 2004an eta 2005ean, Garapenerako Nazioarteko Lankidetz Zerbitzuak 4 aurrekontu-ildo (16) izan ditu, 8. taulan ageri dena bezalako banaketarekin.

2004ko eta 2005eko aurrekontuaren banaketa eta 2006koaren aurreikuspena


	2006,	2005, gauzatua	2004, gauzatua
Garapenaren aldeko Lankidetz programa, gustira (A + B + C + D + E + F)	16.272.257,00	16.076.071,33	15.545.131,26
A. Nafarroako Medicus Mundi ildoak	1.700.000,00	1.674.570,00	1.674.566,98
B. Garapenerako nazioarteko Lankidetzaren ildoak (B.1+ B.2 + B.3+ B.4+)	14.132.257,00	13.802.082,62	13.340.064,28
B.1. Deialdia (B.1.1 + B.1.2 + B.1.3 + B.1.4)	11.153.244,88	9.914.556,80	10.421.562,57
B.1.1. Hainbat urtetakoak	2.000.000,00	1.627.383,84	1.966.939,50
B.1.2. Proiektuak	7.853.244,88	7.137.320,43	7.392.884,53
B.1.3. Mikroekintzak	900.000,00	800.000,00	720.000,00
B.1.4. Garapenaren aldeko Hezkuntza	400.000,00	349.852,53	341.738,54
B.2. Aurreko hitzarmenak	2.621.900,12	3.511.221,89	2.672.902,57
B.3. Azahar - Túnez proiektua	102.112,00	154.988,00	42.900,00
B.4. Elkartasunerako "Nafarroa" nazioarteko saria	30.000,00	33.971,46	38.444,51
B.5. Joan, Begiratu, Parte hartu eta Kontaiezaguzu	60.000,00	55.345,17	55.739,02
B.6. NUP laguntza	140.000,00	131.999,30	89.525,52
B.7. Ebaluazioa bidaia	25.000,00	0,00	18.990,09
C. Larrialdietako ildoak	200.000,00	359.418,71	330.500,00
D. Saharar herriari giza laguntza emateko ildoak	120.000,00	240.000,00	200.000,00
E. Giza laguntzarako ildoak (Argentinako Nafar Etxeak)	60.000,00		
F. V. Mendeurrena: Nazioarteko Biltzarraren ildoak (Alboán F.)	60.000,00		

(16) 2006 honetan, 2 ildo gehiago dira, baina behin-behinekoak.

Gauzak zehatz-mehatz nola dauden jakiteko, hona hemen bilakaerari dagozkion datuak, orain arteko lanabesen arabera; hau da, garapen-bidean dauden herrialdeetan jarduteko proiektuak

(urteko proiektuak, hainbat urtetarakoak eta mikroekintzak), eta jarduketak gure Nafarroan bertan (Garapenerako Hezkuntza proiektuak eta, zenbaitetan, hainbat urtetakoak).


10. Grafikoa. Banaketaren bilakaera, lanabesen arabera



Zentzu hertsian lankidetzara jarduketa motei dagokienez (GNL*) –aztertutako denboraldiko diruen % 96,5 direnak-, urteko proiektuek zatirik garrantzitsuena jasotzen dute (denboraldi osoko diruen % 64,19) baina egonkortzen dira jarduketa guztien % 60 inguruan, eta gora doa proiektu finantzatu bakoitzeko batezbestekoa harik eta 85.000 inguru eurotan egonkortu arte. Hainbat urtetarako finantzatutako proiektuak egonkortasun

nera iristen dira urteko 125.000 euro inguruan, eta bere osoan denboraldiko diruen % 26,6 dira, eta badute % 30 inguruan egonkortzeko joera. Mikroekintzak denboraldiko diruen % 5,7 dira eta bana beste 12.000 euroekin finantzatu dira denboraldian, baina goranzko joeran harik eta 17.000ra iritsi arte. Bere aldetik, Garapenerako Hezkuntzaren jarduerak diruen % 3,93 dira bana beste, eta 20.000 inguru eurotan egonkortzeko joera dute.

11. Grafikoa. Finantzaketa batezbestekoen bilakaera, lanabes bakoitzeko



1.2.2. Diagnostiko kualitatiboa ⁽¹⁷⁾

Beste alde batetik, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluak, Plan Zuzentzailea egiteko batzorde teknikoen bidez eta Garapenerako Hezkuntzaren batzordearen bidez, Nafar Lankidetzaren egituratuaren analisi bat aurreratu du, Nafarroako Gobernuak lagundurik barnera begira dauden alde sendoei eta ahulei dagokienez, bai eta ingurune hurbilean dauden mehatxuei eta aukerei dagokienez ere. Azterketa horren emaitza hauxe izan da: zerikusia duten aldeek aintzat hartzen dute plangintzarako agiria eskura izateak duen garrantzia, konpromiso zehatzetan aurrera jo eta huraxe hobetzeko. Bada, horren azterketatik eta gogoetatik eratorri dira agiri honetan proposatutako helburuak eta ekintzak.

Atal honek arlo hauek ditu aipagai: nafar lankidetzaren orokorrean, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Lankidetzaren Programa, GGKEk eta zerikusia duten beste eragile batzuk. Horietako bakoitzean berariaz aipatzen da Garapenerako Hezkuntza.

A) Nafar lankidetzaren orokorrean

Oro har, azterketak dio bi direla nafar lankidetzaren alde sendorik handienak: batetik, lankidetzaren egindako lanaren tradizioa eta, bestetik, jardunerako egiturak azpian duen antolaketa maila nabarmena. Gainera, nafar lankidetzaren ari diren eragileek etengabe hobetu dute teknika kontuetan, profesionaltasunean, ezagutza eta eraginkortasunean, eta hori garrantzitsua da lankidetzaren politika diseinatzerakoan. Diruek gora egin dute, eraginkorrak eta eragingarriak dira. Bada, eragileek ontzat jotzen dute hori, eta aldi berean uste sendoa dute jarraipen eta ebaluazio gehiago eta hobe egin behar dela. Azkenik, Lankidetzaren Kontseilua eragileen arteko topaketa eta elkarlanerako organoa da, eta hori alde sendo garrantzitsua da, are gehiago sendotu behar dena.

Azterketak ere salatzen du beharrezkoa dela garapeneraren aldeko lankidetzaren nafar sistema orokorra azaltzea eta beharrezkoa ere badela sistemaren kontzeptu-garapenean aurrera jotzen segitzea. Gaur egun, sektorea barreiatua eta atomizatua dago, ekintzak oso zatikatuak daude eta ez dago koordinaziorik erakunde publikoen eta pribatuen artean. Horrek guztiak nola halako koherentzia kentzen dio sistemari, bai eta osoko nahiz epe luzeko ikuspena ere eta, horrez gain, jarduketek eragin txikiagoa dute eta lotura ahulak gainera.

ko politika eta jarduketekin Nafarroak herrialde eta herri pobretuekin dituen harremanetan.

Garapenerako Hezkuntzari dagokionez, azterketak dio alde sendoa dela huraxe Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Legean aitortu izana, bai eta Lankidetzari buruzko Foru Legea ere eta, era berean, gorputz teoriko ugaria dagoela Garapenerako Hezkuntzak lankidetzaren barnean aurrera egin dezan, eta hezkuntza formala bera ere bai. Aldiz, alde ahul nagusiak dira Nafarroan Garapenerako Hezkuntza kontu gaztea dela eta ez duela jarraipeneko hezkuntza-estrategiarik. Hezkuntza formalari dagokionez, badira hutsunak lanbide heziketan, eta hezkuntza ez-formalean esperientzia gutxi garatu dira. Gainera, ez dago koordinaziorik hartan ari diren eragileen artean eta ez argitasunik ez dago eragile bakoitzak ekar dezakeen balio erantsiari dagokionez.

Kanpora begira, ikusi da badirela gaiarekiko sentiberatasun handiagoa sustatzen duten elementuak, bai eta irudi ona ematen dutenak ere. Gainera, egiazko aukerak eskaintzen dituzte lankidetzaren deszentralizatua hobetzeko baliak daitezkeenak. Honatx elementuak: Espainiako testuinguru berriak (lankidetzarako handitu diren dirutzak eta egindako erreformak, etorkin kopuruak gora egin du nafar gizartean eta horrek izan duen eragin ona), badela pobrezian bizi diren herrialdeekiko sentibera agertzen den Komunitate bat, gizarteko erakundeen eginkizunari buruzko nolabaiteko adostasuna, misiolarien lana Hegoko herrialdeetan, eta herritarrek, erakunde publikoek eta politikariek elkartasunerako erakutsi duten egiazko konpromisoa.

Beste alde batetik, zenbaitetan, aipatu testuinguruan ez dira oro har ezagutzen lankidetzaren printzipioak eta helburuak, irudia komunikabideetan zabaltzen diren larraldietan eta beren ondorioetan pausatua dugulako. Horrek kritikak sorrarazten ditu gizartearen sektore batzuetan gardentasunik eta eragingarritasunik ezari dagokienez, eta "lankidetzaren nekea" esaten zaionaren aztarna batzuk islatzen dira. Ondoriorik zabaldua da hedatu dela nolabaiteko "kontsumo-elkartasunari" lotutako gizarte arau bat (noizean behingo diru emateak, babesletzak, loturarik ez gure kontsumo-arauekin) eta horren xedea ez da giza garapen iraunkorra eragozten duten bidegabekeriak aldatzea, ezta bizimoduak eraldatzea ere. Erakunde publikoei dagokienez, agerian dago ez dagoela aurrekontuetarako konpromiso egonkorrik.

(17) Atal hau egindako analisien laburpen gisa aurkeztu da.

Garapenerako Hezkuntzari dagokionez, badira haren garrantzia aintzat hartzen duten adierazpen politikoak espainian eta nazioartean, hala nola jarduketarako helburu eta ildo argitzat jotzen dituzten plangintza agiriak. Bada, horrek aukera ematen du Garapenerako Hezkuntza Nafarroan hobetzeko. Ildo horretan aurrera jotzeak lagundu dezake mehatxuak arintzen, herritarrak gero eta sentsibilizatuagoak baitaude, politikaren eta gizartearen aldetik konprometituagoak.

B) Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate Departamentuaren Garapenaren aldeko Lankidetzaren Programa

Nafarroako Gobernuko Garapenerako Lankidetzaren Programa aintzat hartua dago Lankidetzari buruzko Foru Legearen garapenean eta lankidetzaren helburuak eta lehentasunak ezarri dituzten ari diren eragile guztien adostasunez. Gainera, egonkortasun instituzionala dago, bai eta garapenerako sentiberatasuna agertzen duen talde profesionala ere. Ondorioz, lortu da egindako lanaren kalitatea hobetzea, bereziki metodologiari dagokionez. Beste alde batetik, programa honek koherentzia bat islatzen du lankidetzaren norabidean merkataritza-harremani edo bestelako bati lotutako baldintzarik gabe. Alderdi onak ere badira nafar eragileek (GGKE eta beste eragile batzuk) elkarrikerarako eta partaidetzarako duten jarrera eta tokian-tokian egiten duten jarraipena.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuak baditu alde ahul batzuk. Beraz, badu zer hobetu. Lehenik eta behin, orain arte ez da 5/2001 Foru Legean adierazitakoarekin bat datorren plangintzarik izan, lehentasunak ezartzeko. Beste alde batetik, egungo lanabesak ez datoz bat garapenerako lankidetzaren sistemak eskatzen dituen ezaugarri eta beharrek, eta horrek nola halako sakabanaketa sortzen du geografian eta sektoreei begira. Gainera, ez du aukerarik ematen GGKEen egonkortasun instituzionala laguntzeko. Orain, Plan Zuzentzaileak lanabes berriak dakartza eta ildo horretan aurrerapena ahalbiderratu dezake.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuan gutxi dira giza baliabideak eta ez dago sektoreko espezializaziorik. Horrek traba egiten dio eragingarritasunari, traba operatibotasunari eta traba ere gizarte-komunikaziorari. Arlo horretan ere bada zer hobetu, hots, komunikazio handiagoa lortzea eta gehiago erabili behar dira Nafarroako Gobernuko Departamentuen eta hari lotutako enpresa publikoen inplikazioak garapenerako nazioarteko lankidetzaren eskaintzen dituen aukerak. Azkenik, Nafarroako Lankidetzaren Kontseilua hobetu behar da, bere egitura ez baita operatiboa eta ez du aukera handirik ematen proposamenak

egiteko. Beste alde batetik, ez dago finantza, ikerketa, ebaluazio eta ikasketa mekanismorik eta, ondorioz, zaila da garapenaren aldeko lankidetzaren esku-hartzeen kalitatearen hobekuntza aurrera jotzea.

Garapenerako Hezkuntzari dagokionez, gauza ona da Hezkuntza Departamentuak huraxe Bake-rako Hezkuntzaren zeharreko arlotzat jotzea eta urtero sentsibilizaziorako eta hezkuntzarako dirulaguntzak izatea. Hala ere, bada zer hobetu, esaterako, Departamentuan ez dago Garapenerako Hezkuntzarako eredu berriazkorik eta ez daude behar bezala garatuak arlo horretako irizpideak, baremoak eta galdetegiak. Era berean, alde txarrak dira dirulaguntzen datak, itxierako epeak edo finantzaketako portzentajeen aldakortasuna, ez baitute haren garapena sustatzen. Bestalde, ez dago Garapenerako hezkuntza berriaz kudeatzeko Unitaterik, ez da koordinaziorik ere Nafarroako Departamentuen artean. Horra azterketan ageri diren alde ahul nagusiak.

Inguru hurbilenari dagokionez, Plan Zuzentzaile izatea eta hartan lankidetzako beste eragile batzuek parte-hartzea, hala nola lankidetzaren bultzatu beharreko beste modalitate batzuk irekitzea (zorra barkatzea, bidezko merkataritza, etab.) hobekuntzarako aukerarik interesgarrientzat jotzen dira, kontuan hartu beharrekoak. Gainera, hainbat arlotako eragileak Garapenerako Hezkuntzan aritzea huraxe bultzatzeko aukera izan daiteke.

Mehatxuen artean, ageri da Dirulaguntzei buruzko Legea, bere berezitasunak dituen nazioarteko lankidetzaren gehiegi baldintzatzen duelako, eta administrazio-karga gehigarriak eransten dizkio. Garapenerako Hezkuntzari bagagozkio, esaten da ordezkari politikariek gutxi sostengatzen dutela eta, azken urteotan, Hezkuntza Departamentuak sostengua murriztu diela zeharreko arloei.

C) Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeak (GGKE)

Nafarroako GGKEei buruz egindako azterketak erakutsi du aintzat hartzen dela lanean ari diren herrialdeen egoerarekiko duten hurbiltasuna, bereziki bertako gizartearen lagundu eta sendotzeko. Sare-lanean aurrera jo dute, eta haietako asko Nafarroako GGKEen Koordinakunde bakarrean egituraturik daude. Koordinakunde horren ezaugarriak dira egitura anitza eta eraginkorra, bai eta boluntarioen eta pertsona kontratatuen identifikazio handia ere. Halaber, aintzat hartzen da GGKEek metodologian eta teknikan agertzen duten gero eta gaitasun handiagoa, beren ekarpenaren balio

erantsia balioak lantzeari dagokionez, bai eta giza zein teknika mailako baliabideak erabiltzeari dagokionez ere, betiere toki bakoitzeko bazkideei begira. Azkenik, aintzat hartzen da GGKEk partaide-tzarako eta gizarte sentibilizaziorako topalekuak direla. Talde horiek alde sendo-sendo bat dute, hots, beren egitura anitza eta boluntarioak nahiz kontratatuak oso motibatuak daudela. Noizbehinka, GGKE batzuk administrazioarekin eta beste gizarte eragile batzuekin hitz egiteko mintzakideak izatera iritsi dira eta, halaber, nazioarteko sareetan sartu dira.

Dena dela, gobernuz kanpoko sektoreak oraindik alde ahul nabarmenak ditu, eta beharrezkoa da horietan aurrera egitea. Lehenik eta behin, Nafarroako GGKEek barne egitura ahula dute, egonkortasunik gabea, eta horrek lanari begira behar bezalakoa ez den gaitasuna sortzen du arlo profesionalean eta kalitatean (azpimarratzen da ez dagoela planifikaziorik epe ertain eta luzera, urri dabilzala giza eta teknika mailako baliabideetan, kudeaketarako duten gaitasun mugatua eta, azkenik, administrazioan ahalegin handiegia egiten dutela gogoetaren eta gizarte ekintzaren kaltetan). Beste alde batetik, erakunde batzuek ez dute beren burua definitzeko oinarri teorikorik: badira aunitz eta oso barreiatuak. Sektoreak atomizazio handia du eta era irregularrean hedatuak daude gizartean. Horrek berekin beren jardueren oihartzun apal-apala dakar gizartean eta gaitasun txikia beste eragile batzuk ere lotzeko.

Gainera, komunikazioari dagokionez, GGKE aunitzek ez dute kanpo komunikaziorako politika egokirik, eta oraindik gardentasun gutxi dago beren ekintzen eraginaren eta eraginkortasunaren komunikazioan. Administrazioari dagokionez, GGKE askok oraindik mendetasun handiegia dute diru publikoekiko eta apala da dibertsifikazio ekonomikoa.

Garapenerako Hezkuntzari doakionez, GGKE-ek eskaintza zabala dute ikasmaterial eta ekimenean. Erakundeek gero eta lehentasun handiagoa ematen diote Garapenerako Hezkuntzari. Nafarroako GGKEen Koordinakundeak badu gaia iraunkorki eta etengabe lantzen duen batzorde bat eta, era berean, planifikazio estrategiko batetik eratorritako proiektuak egiten ditu. Hala eta guztiz ere, GGKEek aitortzen dute oraindik nola halako nahasmendu kontzeptuala dagoela sentibilizazioaren eta Garapenerako Hezkuntzaren esanahiaz. Halaber, aitortzen dute ez dagoela era koherentean eta koordinatuan osatutako estrategiarik epe luzera. Proposamenak eta ekintzak oso sakabana-tuak daude eta ia ez dago koordinaziorik eta loturirik haien artean. Ondorioz, ez da behar bezala-

ko eraginik sortzen gizartean. Beraz, diru publikoekiko mendetasun handiegia, eta solasaldi, ikastaro, jardunaldi eta beste prestakuntza ekintza batzuen neurri gabeko eskaintzak, zaildu egiten du zaildu egiten duenez haietan parte-hartzea eta jendearen erantzun egonkorra.

Sektorearen inguruneari dagokionez, Nafarroako GGKEek ospe ona dute komunikabideen eta gizartearen aitzinean, eta aintzat hartzen da egiten duten lana. Bestalde, Hegoko tokian tokiko taldeekin harreman ona dute. Bada, horiek guztiak egiazko aukerak dira, eta baliatu beharko lirateke, GGKEek duten beste irudi horri aurre egiteko, hots, bitartekaritza lanerako bulego hutsak, herrialde pobretuetako erakundeek lortutako heldutasunaren aurrean hartu beharko luketen eginkizun berrira moldatzen ez direnak.

Garapenerako Hezkuntzari dagokionez, hainbat ikerlan egin dira eta, bestalde, erakunde batzuen arteko koordinazioa hobetu da elkarrekin jarduerak egiteko. Bada, hori guztia hobekuntzarako aukera da. Dena dela, kontraesanik ere bada eta mehatxuo aurre egin beharko litzaieke, hots, portaera kontsumistak eta komunikabideek, zenbaitetan, errealtateaz ematen dituzten irudi lerratuak. Ez dago ekintza politikoarekin bateratua dagoen gizarte mobilizaziorik, eta horrek ez du aukerarik ematen indarrak eraldakuntzarantz biltzeko.

D) Lankidetzan ari diren beste eragileak

Aipatu beharra dago beste eragile batzuk ere ari direla garapenerako Nazioarteko Lankidetzan. Haien guztien artean, hiru talde bereiziko ditugu:

(A) Toki Entitateek, beren baitatik edo Nafarroako Udallerri eta Kontzejuen Federazioak sustatutako Garapenerako Lankidetzaren Udal Fondoaren bidez, dirulaguntzak ematen dizkiete GGKEen proiektuei, zenbaitetan arauturik eta, beste zenbaitetan, berriz, ez horren formalki. Gainera, nabarmendu behar da Toki Entitateek gero eta jarduera handiagoa egiten dutela GGKE batzuekin elkarlanean, GNLri* berez datxezkion balioak sustatzeko lanetan. Beste alde batetik, lankidetzaren balio biderkatzaile garrantzitsua bermatzen dute, beren erkidegoen eta laguntzaren jasotzaileen artean ezagutza eta elkarlan loturak ezartzeko duten gaitasunagatik.

(B) Unibertsitateak, eta zehazki Nafarroako Unibertsitate Publikoak badu garapeneraren aldeko lankidetzaren programa. Horrekin bat, hainbat jarduketak egiten ditu prestakuntzan, sentibilizazioan eta garapeneraren aldeko unibertsitate-lankidetzan; Nafarroako Unibertsitateak, bere aldetik, baditu bere baitan hainbat GGKE eta garapenerako lanki-

detza ekintzak egiten dituzte, bai eta sentsibilizazio ekintzak eta Garapenerako Hezkuntza ere*.

(C) Gizarte eragileak; horien artean sindikatuek. Egia da batez ere haiei lotutako GGKEen bidez ari direla, baina lan nabarmena egin dezakete lankidetzako zuzeneko eragile diren aldetik. Bestalde, enpresaburuen elkarteak Gizarte Erantzukizun Korporatiboa delakoa bultzatzen ari dira eta arlo honetan eginkizun nabarmena egiteko aukera izanen dute aurrera begira.

Zaila da era askotako eragile multzo honi halako ezaugarri orokor batzuk ematea, baina oro har ikusi da ez dituztela beren ahalmen guztiak behar bezainbeste garatuta lankidetzako eragile diren aldetik. Horra beren alde ahulik handiena. Ondorioz, ez dute elkarrekintza egokia lankidetzako sistemarekin. Bestalde, ez dago eragile horien inplikazioa sustatzeko lanabesik, eta horrek alde ahula handitzen du.

Bereziki, eta Toki Entitateei dagokienez, haietako askoren jarduketa atomizaturik ez dago koordinaturik, eta ez da irizpide bateraturik. Horrek guztiak norabide berean ahaleginak biltzea zailtzen du eta ez da baliatzen eragileok herritarrengandik hurbil jarduteko duten aukera.

Garapenerako Hezkuntzari dagokionez, azterketak dio Toki Entitateen alde sendorik nabarmenena hauxe dela: herritarrengandik oso hurbil daudela. Eta gauza bera esan daiteke zabalkunderako gaitasun handia duten gizarte eragileez; bere aldetik, unibertsitateei aitortzen zaie GNLren* arlo jakin batzuetan prestatu eta ikertzeko duten gaitasuna, bai eta ikasmaterialak eta esperientziak sustatzeko ere, betiere sakabanaketa sustatu gabe, ezta eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekarik ere.

2. KAPITULUA: NAFAR LANKIDETZAREN PRINTZIBIO GIDARIAK

2.1. SARRERA

Garapenaren aldeko Lankidetzari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, Plan Zuzentzaile honen bitartez eta indarrean dagoen arte, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak xedatutako printzipio gidariak ditu oinarri; halaber, bere egin eta aintzat hartzen ditu Estatu osoan aplikatu beharreko arauditik eratorritakoak, bai eta nazioarteko esparruetan bildutakoak ere. Alde horretatik, Nafarroako GNlk* bildu eta egokitzen ditu garapenaren aldeko politikak gidatzen dituzten printzipio, balio, jarraibide eta irizpideak, nazioarteko erakunde nagusiek ulertzen dutenarekin bat, bereziki Nazio Batuetan, ELGEn (Garapenari laguntzeko Batzordearen* bidez), Europar Batasunean eta Espainiako Estatuan. Beste alde batetik, eta lankidetzaren deszentralizatuaren izaera berezia duen heinean, bere egiten ditu funtsezko printzipioak eta printzipio operatiboak. Era askotako printzipioen multzo handiaren iturriak aztertu ondoren, horiek guztiak hiru multzo handitan laburbildu ditugu: Nafarroako GNlk* lortu asmo dituen xedeei dagozkienak; eragile deszentralizatuen logika osatzen dutenak eta, azkenik, sorrarazitako garapen-prozesuei dagozkienak (ikus sintesi koadroa kapitulu honen amaieran).

2.2. AGENDA BATERATUAREN PRINTZIBIOAK

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak hauxe dio zioen azalpenean: "Txirotasuna, demografia eta migrazio arloetako presioak, ingurumenaren hondatzea, etnien artean ugaltzen doazen gatazkak, izurriteen hedapena, arma nuklearrak ugaltzea, baita nazioetako mugak gainditzen dituzten bestelako arazoak ere, mundu mailan globalizatzen ari dira, gero eta gehiago; globalizazio prozesu horrek nazioarteko erkidegoaren kide guztien arteko lankidetzaren eskatzen du, lortu ahal izateko irtenbide eraginkorrak eta guztiontzat zuzenak." Aurreko kapituluaren esan dugun bezala, irtenbide horiek dautza Giza Garapen Iraunkorra* delakoaren sustapenean eta, pixkana, agenda bateratu bat eraiki da, huraxe gauzatzeko. Hori Milurtekoko Adierazpenean* islatu dira eta, beste gauza batzuen artean, adierazpen horretan Milurtekoko Garapen-Helburuak (MGH*) jaso dira. Helburuok mundu osorako ezarri

diren helmugak dira, kuantifikatuak eta halako epe batean lortu beharko liratekeenak, pobrezia gorriri bere dimentsio guztietan aurre egiteko eta, aldi berean, genero berdintasuna, hezkuntza, eta ingurumenaren iraunkortasuna sustatzen dituzte. Halaber, funtsezko giza eskubideak dira. Beraz, jaso ere jaso dute Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean sinatutakoa (18). 2005eko urtarrilaren 17an, lehendabiziko txostena aurkeztu zen helburu horien lorpenaz, eta emaileei gomendatu zitzaizen ondoko alderdi hauek sartzeko beren estrategietan. Bada, Plan honek bere egiten ditu alderdi hauek guztiak:

Garapenaren aldeko Lankidetzan ari diren erakunde publikoek berariaz adierazi behar dute bat datoze la pobrezia murrizteko helburuarekin. Horretarako, espresuki Milurtekoko Helburuei beren sostengua adieraziko diete eta beren araudiak aipatu helburuetara egokituko dituzte.

a) Garapenaren aldeko laguntzak herrialde jasotzaileen beharrak eta ezaugarriak hartu behar ditu kontuan. Ondorioz, beharrak eta ezaugarriak nolako, halakoa izanen da emaileek emandako laguntza mota eta halakoak ere laguntza bideratze-klanabesak.

b) Lankidetzaren denbora-mugak behar bezain handia izan behar du bere eragina egokiro planifikatu eta ebaluatzeko. Gomendatzen da 10 urteko epe zabalak erabiltzea eta, horietan oinarriturik, 3tik 5era urte bitarteko epe ertainera (sic) bideratutako strategiak eraikitzea.

c) Herrialde pobretuen kanpo zorra murrizteak lankidetzako politiken eta ekintzen helburu berariazko bat izan behar du. Lehentasunez, dirulaguntzak emanen dira eta ez finantza-maileguak.

d) Garapenaren aldeko lankidetzak saiatu behar du arreta azken hamarkada hauetan bazter utzitako lehentasunik premia-koenetan pausatzen, esaterako: amen osasuna, genero berdintasuna edo ugalketa osasuna. Halaber, sekulan behar bezain laguntza handia jaso ez duten ondasun publikoetan, esaterako: ikerketa gaitasunaren sustapena, ingurumeneko kudeaketa, erregioen integrazioa edo mugaz gaindiko azpiegiturak.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da Europako garapen-politika kide diren estatuak egindakoren ordezkia dela, baina interesgarria dela haren printzipioak eta helburuak ezagutu eta aintzat hartzea; horrela, egungo Europako gara-

(18) Horretaz gain, aintzat hartu behar dira ELGEk Garapenerako Laguntza Batzordearen bidez ezarritako orientabideak erakundeak osatzen duten GLO* bideratzeko. Lankidetzaren kalitatea hobetzeko jarraibideak dira.

pen-politika ⁽¹⁹⁾ gidatzen duten printzipioen artean, Plan honek honakoak egin ditu bere:

1. **Europako garapen-helburuak** sartu dira: (a) garapen-bidean dauden herrialdeetako garapen iraunkorra ekonomian eta gizartean, eta bereziki, ahulenenena; (b) aipatu herrialdeak munduko ekonomian pixkana eta era orekatuan sartzea; eta (c) pobrezia kontrako borroka. Eta hori guztia, demokrazia eta Zuzenbide-Estatua garatu eta finantzatzeko helburu orokorarekin, bai eta giza eskubideak eta funtsezko askatasunak garatu eta finkatzeko ere. (Maastrichteko Itunaren 130. artikulua eta Amsterdamgo Itunaren 177. artikulua) .

2. **Koherentzia:** Europar Batasuneko garapenaren aldeko politikak helburuok ditu oinarri eta, horrez gain, Itun bereko 178. artikulua arabera, kontuan hartu behar dira Europar Batasunak egiten dituen politika orotan, betiere garapen-bidean dauden herrialdeei eragiten dieten heinean.

3. **Instituzioen arteko koordinazioaren printzipioa** 177.3 artikuluan bildua dago, eta hauxe dio: Batasuna eta kide diren Estatuak behartuak daude Nazio Batuen baitan eta nazioarteko beste erakunde eskudunen barnean hitzartutako konpromisoak eta helburuak betetzera. Halaber, 180. artikulua ildo hori sakontzen du, hitzez hitz esaten baitu Batasunak eta kide diren Estatuak beren politikak koordinaziopean paratuko dituztela garapenaren aldeko lankidetzan eta, era berean, laguntzarako programak adostuko dituztela, betiere nazioarteko erakundeen eta konferentzien esparru barnean. Halaber, espresuki aurreikusia dago ekintzak elkarrekin abiarazteko aukera. Modu berean, hurrengo artikuluan aurreikusia dago Batasuna eta kide diren Estatuak beste herrialdeekin eta nazioarteko erakunde eskudunekin elkarlanean aritzeko aukera.

4. **Osagarritasuna eta subsidiaritasuna** ere artikulua hauetan barne harturik daude. Izan ere, 180. artikulua xeatzen du kide diren Estatuak, behar izanez gero, lagunduko dutela Batasuneko laguntza programen gauzapenean. 181. artikulua, bere aldetik, argitzen du hemen ezarritako ezerk ere ez duela eraginik izanen kide diren Estatuaren eskumenetan nazioarteko erakundeetan negoziatzeko eta nazioarteko hitzarmenak egiteko. Halaber, 177. artikulua osagarritasun printzipioa aitortzen du. Horren arabera, Batasunak garapenaren aldeko lankidetzan egiten duen politika kide diren Estatuak egindakoen osagarri da.

5. Beste alde batetik, aipamen berezia merezi du **giza eskubideak errespetatzeari lotutako baldintzaren printzipio politikoa**, funtsezkoa baita Afrika, Karibe eta Bareko (ACP) herrialdeetako lankidetzan, bai eta Europar Batasunaren politika orokorretan ere. Hirugarren herrialdeetako hitzarmenen baitan, Batasunak espresuki giza eskubideen printzipioak aipatzen ditu. Delako baldintza politikoa berekin dakar klausula bat sartu beharra Batasunaren eta hirugarren herrialde ororen artean egindako izaera orokorreko hitzarmen aldeko guztietan. Europar Batasunak hasieratik beretik ezarri duen baldintza politikoa printzipioa zuzenean lotua dago balio demokratikoen, giza eskubideen eta gatazken urraketari. Zehazki, klausula honek xedatzen du giza eskubideak, Zuzenbide-Estatua eta oinarri demokratikoak errespetatu beharko direla.

6. Azkenik, **plangintza printzipioaren** ideia bat 179. artikuluan bildua dago. Zehazki hauxe dio: 177. artikuluan adierazitako helburuak lortzeko, Kontseiluak hartzen dituen neurriek hainbat urterako programen forma hartzen ahalko dute.

Onetsi berri den Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzentzaileak (2005-2008) ⁽²⁰⁾ dio agenda bateratu hau ez dela mugatzen giza garapen iraunkorra erdiesteko gutxienez behar diren helburuak adieraztera, baizik eta adostasunez zehaztuta dagoela zer egin behar den giza garapen iraunkorra lortzeko, betiere 3 printzipiootan oinarriturik:

Partea hartze eta inplikazioa. Garapenerako laguntza eraginkorragoa izaten da, gobernu nazionalak -bere gizartearekin eta sektore politikoeekin nahiz sozialekin elkarlanean- abiarazitako eta gidatutako garapen-estrategia sostengatzen duenean.

Eragingarritasuna. Garapen-politiken arrakasta edo porrota neurtzeko, kontuan hartu behar dira garapen-bidean dauden herrialdeetan lortutako emaitzak (pertsonek eta beren beharren gaineko eragina).

Globaltasuna eta osokotasuna. Ondoko hau guztia sustatuko duten politika egonkorak abiarazi behar dira: ekonomiaren hazkundera, inbertsioak gizarte-garapenean, bereziki hezkuntzan eta osasunean; pertsona ororen parte-hartzea politikan eta ekonomian sustatzea, bereziki emakumeak; afera publikoen kudeaketa egokia; giza eskubideen babesa eta Zuzenbide-Estatuaren sustapena; ingurumena errespetatzen duten politikak eta joka-

(19) Ikus glosategian: "Europar Batasuneko garapenaren aldeko politika"

(20) Ikus glosategian: "Espainiako garapen politika".

bideak eta, azkenik, gatazkak prebenitzeko eta bakea eraikitzeko bitartekoak.

Plan hori Nazioarteko Lankidetzaren arautzen duen uztailaren 7ko 23/1998 Legean aurreikusia dagoen plangintzaren barnean dago. Legeak printzipio hauek agintzen ditu ⁽²¹⁾:

a) Gizakiaren norbanako eta talde izaera aitortzea, garapenaren aldeko lankidetzaren ardatz eta jasotzaile nagusia baita.

b) Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babestu eta sustatzea, bai eta bakea, demokrazia eta herritarren parte-hartzea ere, betiere gizon eta emakumeentzako berdintasunean oinarriturik eta, oro har, ez-bazterkeria sustatzea sexua, arraza, kultura edo erlijioa edozein izanik ere, eta aniztasuna ere errespetatzea.

c) Nazio guztietan giza garapen osoa, elkarren mendekoa, partehartzailea, iraunkorra eta genero berdintasunean oinarritua sustatu beharra. Ahalegindu behar da ardurakidetzaren printzipioa Estatuaren artean aplikatzen, garapenaren aldeko politiken koherentzia eta eragingarritasuna ziurtatu eta indartzeko, munduan pobrezia desagerrarazteko helburuari dagokionez.

d) Herrialdeen hazkunde ekonomiko iraunkorra sustatzea, aberastasuna zuzentasunez banatzea sustatzeko neurriekin batera, bizi-baldintzen hobekuntza sustatzeko, bai eta osasun, hezkuntza eta kultur zerbitzuetan sartzeko hobetzeko ere, hala nola beren herritarren ongizatea.

e) Nazioarteko Erakundeetan hartutako konpromisoak errespetatzea.

f) Batasun edo koordinazioaren printzipioa, esaten baita nazioarteko lankidetzaren politika Estatuaren kanpo-ekintzaren barnean dagoela, eta oinarri duela Estatuaren kanpo-ekintza batasunaren printzipioa, indarrean dagoen araudiarekin bat aplikatuko dena eta Administrazio Publikoaren esku-menen esparruan.

g) Koherentzia, zeinaren bitartez Legearen 2. eta 3. artikuluetan adierazitako printzipioek eta helburuek egon behar baitute Administrazio Publikoek aplikatzen dituzten politika ororen oinarrian, betiere bakoitza bere eskumenen baitan, garapen-bidean dauden herrialdeei eragiten dietenean.

Laburbiltzeko, printzipio hauek aipatuko ditugu:

a) Ideia nagusia, giza garapen iraunkorra sustatzea, genero berdintasunean oinarritua; eta

pobrezia murriztearen helburua aintzat hartzea Milurtekoko Helburuei espresuki sostengua emanez.

b) Plangintza, garapen-bidean dauden herrialdeen beharrak kontuan hartuta, batez ere ahulenenak. Betiere haiekin beraiekin adostuta.

c) Premiazko lehentasunetan sailatzea.

d) Koherentzia.

e) Instituzioen arteko koordinazioa.

f) Osagarritasuna eta subsidiarioritasuna.

g) Baldintza edo giza eskubideekiko konpromisoa.

h) Parte-hartze eta gizarte-inplikazioa.

i) Eragingarritasuna.

j) Globaltasuna eta osokotasuna.

k) Denborazko orientazioa epe luzera.

l) Dirulaguntza emateko lanabesak nahiago.

2.3. GARAPENAREN ALDEKO NAFAR LANKIDETZAREN BERARIAZKO PRINTZIBIOAK ⁽²²⁾

2.3.1. Lankidetzaren deszentralizatuaren oinarriko ezaugarriak

Nafarroako Foru Komunitatearen Garapenaren aldeko Lankidetzaren Deszentralizatua (LD*) esaten zaionaren barnean dago; ondorioz, Plan Zuzentzaile honek LDren* egokitzapen berezi gisa diseinatu da, Nafarroako ezaugarri eta ahalmenetara moldatua.

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak bere zioen azalpenaren dio lankidetzaren eredu honek bost osagai berezigarri dituela Estatuaren Lankidetzaren aldeko eta alde anitzekoaren aldean. Honatx osagaiak:

a) Garapenaren aldeko aktore eta eragile guztien **parte-hartze aktiboa**, laguntzaren jasotzaileak barne. Kontua da aktore deszentralizatuak beren prozesuaren beraien eragile izatea, beren erantzukizun partekatua sustatuz. Lankidetzaren deszentralizatuak laguntza jasotzen duten herritarrak jarri nahi ditu prozesuaren erdian. Gainera, horrek aukera ematen du garapenaren aldeko eragilearen sorta zabaltzeko, jomuga-gizartearen nahiz jatorri-gizartearen gobernuz kanpoko erakundeak hartuko dituelako, bai eta toki botere publikoak, toki elkar-teak, herritarren sareak, gizarte sareak eta beste

(21) a-tik e-ra adierazitakoak Legaren 2. artikuluan jasota daude; f, berriz, 3.ean eta, g, azkenik, 4.ean

(22) Funtsean Nafarroako Gobernutik datozen diruek sostengatutako GNLri* egiten zaio aipamena.

eragile pribatu batzuk ere. Lankidetzan ari diren Estatuak eta Administrazio Publikoek, beren alde-tik, prozesuak errazu eta sustatzeko eginkizuna betetzen dute.

b) **Aktore desberdinen arteko adostasuna eta osagarritasuna.** Lankidetzaren deszentralizatuak saiateren da eragileen ekimenen elkarrizketa eta koherentzia prozesuak sustatzen, betiere programazioa oinarri harturik, esku-hartzeak hainbat mailatan egituraturik eta jarduketan sakabanaketa sailhesturik. Horrek esan nahi du eragile publikoen eta pribatuen arteko itunak sustatu behar direla, eta haien artean adostasunezko eta osagarritasunezko loturak ezarri. Lankidetzaren deszentralizatuak egokitu behar du Estatuaren testuinguru zehatzetara, eta demokratizazio nahiz parte-hartze prozesuak eragin behar ditu.

c) **Subsidiariorotasunaren** printzipioan oinarritutako kudeaketa. Lankidetzaren deszentralizatuak kudeaketa dagokien eragileengandik edo jasotzaileengandik ahalik eta hurbilen uztea sustatzen du.

d) **Prozesu gisako hurbilbidea** izatea. Ohiko proiektu gisakoaren aurrean (argi eta garbi desberdindutako faseak dituen, denboran mugatua eta proiektua hasi aurreko helburu, bitarteko eta aurrekontuetan definitua), lankidetzaren deszentralizatuak xede du partaidetza planteamendu progresiboagoren bidez sustatzea, hainbat gauza aintzat hartuta, gainera: elkarrizketa, gizarte baliabideen mobilizazioa eta denen arteko ebaluazioa.

e) **Gaitasun sendotzeari* eta instituzio gartzeari lehenetsuna** ematea. Behar materialei erantzuteko moduko ondasun eta zerbitzuak ematen laguntzeaz gain, lankidetzaren deszentralizatuak xede du tokiko bereko ekimenen ekintza ahalmena eta kontrola indartzea, bai Hegoan bai Iparrean. Ikuspegi horretatik, eragileei laguntzea era berean da eragileak sortzen laguntzea, eragileak antolatzen, prestatzen, sareetan eratzen laguntzea, bai eta elkarteak egiten laguntzea ere, bai haien artean bai eragile publikoekin. Ahaldundutza* esaten zaiona izan behar da lankidetzaren deszentralizatuaren, prestakuntzaren, eta eragile pribatuen nahiz publikoen arteko sare eta elkarten eraketaren ondorio zuzen gisa. .

Oro har onartuta dauden printzipio horiez gainera, Nafarroako Lankidetzak baditu beste hiru printzipio, hirurak bere baitatik mamitutakoak eta hirurak ere Lankidetzaren Deszentralizatuari dagozkionak:

a) Garapen prozesuetan laguntzeak berekin dakar gure **gizartean eragin** beharra, garapen prozesuei eta garapen-bidean dauden nazioarteko harremanei eragiten dieten bizimoduak eta norbe-

raren eta gizartearen portaera arauak aldatuz. Alde horretatik, garapenerako hezkuntzak eta gizartearen sentsibilizazioak Nafar Lankidetzaren osagai nagusi izan behar dute.

b) Nafar Lankidetzak **berrikuntzaren** aldeko hautua egin behar du, hau da, bide berriak urratu behar ditu herritarrek eta gizarte erakundeek beren inguruneko erronkei erantzun diezaieten eta beren gaitasunak sendotu, antolatu eta itunak egin ditzaten. Giza Garapenari berez datzekion osagaia sormena da, zabaltzen diren gaitasunen zehaztapen gisa, eta hori horrela da hain zuzen ere pertsona eta giza talde guztiak ingurunearekiko sortzaileak direlako. Beraz, badu zentzua garapenaren xedeak alde aurretik finkaturik ez egoteak. Askatasuna zehaztapena eta bitartekoa da norberaren gaitasunak garatzeko. Bada, askatasunak sormena eskaintzen digu garapenerako nahi-taezko lanabes gisa.

c) Nafar Lankidetzak bere egiten ditu **plangintza estrategikoaren** printzipioak: planifikatzea da gaur aurrekusi eta erabakitzea orainetik desiratze-ko moduko etorkizuneraino eraman gaitzaketan ekintzak. Kontua ez da etorkizunaz iragarpenak egitea, baizik eta behar diren erabakiak hartzea etorkizun hori gerta dadin. Alde horretatik, plangintza estrategikoa prozesu partehartzailea da, zalan-tza guztiak ez ditu argitzen, baina halako xede ildo bat markatzeko aukera ematen digu, horiekin bat jokatzeke. Uste sendoa izan behar genuke desiratzeko moduko etorkizuna posible denaz. Bada, uste sendo horrek aukera ematen du aldaketa prozesuan ari diren guztien arteko interesen erkidegoa eraikitzeke, eta hori oinarritzko baldintza da proposatu ditugun helmugetara iristeko. Alde horretatik, Plan Zuzentzaileak estrategia-ildo ezin egokiagoak landu ditu Nafar Lankidetzaren eginkizuna betetzeko (helburuak eta lehenetsunak), behin kanpoaldetik datozen aukerak eta mehatxurak aztertutik eta, behin gure alde sendoak eta alde ahulak aztertutik.

2.3.2. Nafar lankidetzaren printzipio gidariak

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko mar-txoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen hirugarren arti-kuluak honela definitzen du nafar lankidetzaren: "his-torian zehar eta azpiegitura aldetik pobretutako herriengana Nafarroako gizarteak duen elkartasu-naren agerkaria". Lege hau lankidetzaren nafar sis-temaren araudi-gakoa da. Estatuaren legearen antzera, Foru Legeak lankidetzaren nafar politika-ren printzipio gidariak eta helburuak sartzen ditu bere hasieran. Bada, printzipio gidariaren esparru orokor horrek oinarritzko erreferentziatzat balio behar dio Lege bereko 17. artikuluan aurreikusita

dagoen planifikazio instituzionalari, Plan Zuzentzaile honetan zehaztua dagoena.

Nafarroari dagokion autonomia politikoarekin bat, garapenaren aldeko nafar lankidetzak jarduketarako arduratsua da, Estatuko gainerako administrazioekin koordinatua, eta laguntzen du Estatuko araudiak finkatutako printzipio eta helburu bateratuak betearazten, betiere Estatuko Lankidetzaren Plan Zuzentzaileetan bildutako hainbat urtetako aurreikuspenen osagarri.

A) Funtsezko printzipio gidariak

Plan Zuzentzaile honetan Funtsezko Printzipio Gidariak dira Planak oinarritzat hartu dituen funtsezko irizpide politikoak. Denak dira beharrezkoak eta berez nahikoak nafar lankidetzaren helburuak lortzeko, arestian adierazi ditugun helburuak, alegia. Funtsezko printzipioak dira Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzarekin zuzenean eta berehalakoan lotura dutelako, eta berez direlako Plan beretik etorritako ekintza orok jarraitu beharreko funtsezko baldintza ideologikoak. Alde horretatik, printzipio gidari operatiboan aldean, funtsezko izaera dute, behar-beharrezkoa eta berariazkoa lankidetzan. Operatiboak, ordea, lanabesei loturik daude.

Egia esan, Plan honetan dauden helburu orokorrak zein berariazkoak lortuko badira, funtsezko printzipio gidari hauek hartu behar dira aintzat:

1. Osokotasunaren printzipioa.
2. Erantzukizunaren printzipioa.
3. Elkarte-printzipioa.
4. Parte-hartzearen printzipioa.

1) Osokotasunaren printzipioa

Nafar Lankidetzak bere egiten du osokotasunaren ikuskera eta hori giza garapen iraunkorraren alde anitzeko ikuskeran islatua dago (martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 3. c artikulua, Garapenaren aldeko Lankidetzaren arautzen duena). Garapenaren osokotasunak garrantzitsuak garapena honela ulertzera: laguntza jasotzen dutenen giza, politika, gizarte, ekonomia eta kultura arloko esku-bide guztiak erabat erabiltzea ahalbidetzen duen prozesua.

Ikuspegi horretatik, halaber, azpimarratzen da berezko giza eta gizarte gaitasunen sustapena, eta tokian tokiko osoko garapen endogenoari bultzada ematen laguntzen zaio.

Nafar garapenaren aldeko lankidetzak bultzatu egingen ditu behar diren baldintzak herri guztietan pertsonen arteko berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin, eta aldi berean errespetatu

eginen ditu herri bakoitzaren ezaugarriak, norbanakoak beren erkidegoan osoki integraturik egon daitezen (Foru Legearen 3.e artikulua).

Osokotasunaren printzipioarentzat, halaber, emakumeak eta gizonak erabat dira berdin, hala erabaki prozesuetan nola erabakien ezarpenean. Giza garapen iraunkorraren osoko ikuspegiak, beraz, bere barnean hartzen du horrekin bat datorren genero ikuspegia.

Azkenik, era berean, bere egiten du pertsona guztien arteko berdintasuna, pertsonen adina, sinesmen erlijiosoak, pentsamoldea edo sexu-aukera edozein izanik ere.

2) Erantzukizunaren printzipioa

Nafarroako Legearen hirugarren artikulua dioen bezala, garapenaren aldeko nafar lankidetzak historian zehar eta azpiegitura aldetik pobretutako herriengana Nafarroako gizarteak duen elkartasunaren agerkaria da. Elkartasun hori dator denok erantzukizunaren printzipioa gure egin izatetik, eta bereziki dagokie munduko osoko giza garapenean bere inplikazioa bere gain hartzen duen erkidego politikoaren instituzio publikoei.

Horrela, giza garapen iraunkorra herrialde pobretuetan sustatzea gizarte garatuaren erantzukizuna da eta bereziki nafar gizartearena, funtsean nafar gizartearen botere publikoei dagokiena. Dena dela, garapenean dagoen erantzukizun publikoaren osagarri, funtsezko beste printzipio batek ere badu indarra arlo honetan, parte-hartzearen printzipioa, alegia. Ondorioz, erantzukizun publikoaren barnean dago garapenaren aldeko lankidetzaren diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan parte-hartzeko esparruak bermatzea, hala nola bestelako eragile pribatu eta sozialek beren eginkizunak gain har ditzaten animatzea herritarren sentibilizazioan eta nazioarteko lankidetzan.

Erantzukizunaren printzipiotik zuzenean dator doakotasunaren printzipioa, eta horren arabera, garapenaren aldeko lankidetzako ekintzak doakotasunaren printzipioak gidatuko ditu, eta hartara, garapenaren aldeko lankidetzak ez da bideratuko, ez zuzenean ez eta zeharka ere, Nafarroako erakunde, organizazio eta enpresen aldetik kontraprestazio ekonomikoa jasotzera (Nafar Legearen 3.i artikulua).

3) Elkarte-printzipioa

Elkarte-printzipioak berekin dakar herrien burujabetasun osoa errespetatzea (Nafar Legearen 3.a artikulua), eta ekintzak planifikatu eta gauzatzeko, haien eragina hartuko duten herriekin adostutako helburuak begiratuko dira (Nafar Legearen 3.b artikulua). Era berean, elkarte-printzipioak berekin

dakar giza garapen iraunkorreko tokian tokiko eta epe luzeko prozesuei laguntzea.

Azkenik, printzipio honek, berdintasunaren ikuspegitik, bidea ematen du nafar gizartearen eta lankidetzak jasotzen dituzten herrien arteko harremanak sakontzeko. Beraz, laguntzaren beraren ondorioak ugaltzen ditu eta lagungarri ere gertatzen da nafar gizarteak herrien egoera hobeto ezagutzeko. Gainera, gure gizartean gero eta etorkin gehiago bizi dira eta horrek elkarte-harremanare gehiago sakondu ditzake, baterako garapenaren ikuspegitik.

4) Parte-hartzearen printzipioa

Garapenaren aldeko lankidetzak mamitu eta gauzatu behar da gizarte zibilaren sektore esanguratsuen parte-hartzea sustatuta, hala Nafarroan bertan nola jarduketako eremuetan, garapenaren aldeko lankidetzaren ikuskerari eta ekintzari dagokienez (Nafar Legearen 3.d).

Printzipio horren arabera, Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzak gobernu kanpoko erakunde bitartez edo gizarte erakunde bitartez gauzatu da hein handi batean, bai eta tokian tokiko taldeen eta lankidetzak ekintzen onura jasotzen duten herritarren bitartez ere. Era berean, parte-hartze funtzionala eta organikoa Garapenaren aldeko Lankidetzak arautzen duen Legearen hainbat artikulutan dago aurreikusia. Alde horretatik, nabarmendu behar da Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluari eman zaion eginkizuna.

Parte-hartzea lankidetzaren egikera eta lanabes-estrategia da, baina aldi berean funtsezko printzipio gidaria da, bereziki lankidetzak deszentralizatuari atxikia, eta lankidetzaren jarduketara osoa gidatzen du. Politika publikoak mamitu eta kudeatzeko, demokraziaren eta eragingarritasunaren aldetik behar-beharrezkoa da kontuan hartzea politika horien talde jasotzaileak edo politika horiek egiten eta gauzatzen lagunduko duten edo haiek gidatuko dituzten gizarte edo herritarren erakundeak. Horra zertan oinarritzen den aipatu printzipioa.

Parte-hartzearen printzipioak berez dakar berekin sistema politikoen sakontze demokratikoa. Nafar gizartean, garapenaren aldeko lankidetzaren jarduketak eta herritarrek parte-hartzeak lagundu behar du gizarte demokratiko eta aurreratu garatzen eta, era berean, lagundu gizartean parte-hartzearen aldeko kultura sortzen, herrialde pobretuekiko erantzukizun partekatuen eta elkartasun aktiboaren ideia indartzeko. Ildo horretan, nafar gizartearen parte-hartze aktiboak badu bitarteko egoki bat parte-hartzea bideratu eta sustatzeko, hots, gobernu kanpoko erakundeak.

Gizarte jasotzaileei dagokienez, garapenaren aldeko lankidetzak bere gain hartuko du demokraziaren aldeko konpromisoa eta lagun egiten die herri pobretuei erabide politiko partehartzaile batean gara daitezen, giza eskubide eta askatasun guztien erabilera oinarri (Nafar Legearen 3.f artikulua).

B) Printzipio gidari operatiboak

Funtsezko printzipio gidariekin batera, Plan Zuzentzailean printzipio gidari operatiboak ageri dira. Printzipio horiek izaera nagusia ematen diete aurrez diseinatutako helburuak lortzeko hartu behar diren estrategiak nahiz metodologiak gidatzen dituzten oinarriko irizpideei. Funtsezko printzipioek ez bezala, printzipio gidari operatiboek ez dute berariazko izaerarik garapenaren aldeko lankidetzari dagokienez. Hau da, printzipio operatiboek lanabes-izaera dute eta lankidetzak eragileen –bereziki administrazio publikoen– osaren eta jarduketara zehatzaren oinarri dira. Printzipio operatiboek eratzeko erantzukizun antolatuta eta estrategia erdua behar-beharrezkoa da Plan hau egokiro garatzeko, eta arestian azaldutako funtsezko printzipio gidariak ekarritako ondorio beharrezkoak dira.

Alde horretatik, hona hemen garapenaren aldeko nafar lankidetzak gidatu behar duten printzipio operatiboak:

- 5) Eragingarritasunaren printzipioa.
- 6) Subsidiaritasunaren printzipioa.
- 7) Osokotasunaren printzipioa.
- 8) Deszentralizazioaren printzipioa.
- 9) Koherentziaren printzipioa.
- 10) Koordinazioaren printzipioa.
- 11) Prebentzioaren printzipioa.
- 12) Planifikazioaren printzipioa.
- 13) Ebaluazioaren printzipioa.

5) Eragingarritasunaren printzipioa

Eragingarritasunaren printzipioa espresuki Nafar Legearen 15. artikuluan aitortua dago. Zehazki, Nafarroako administrazio publikoek auzkeran baterako finantzaketa araubidean egiten dituzten ekintzak, eta garapenaren aldeko lankidetzaren ari diren eragileek erabilitako baliabideak ahalik eta egokien baliatuko dituzte.

6) Subsidiaritasunaren printzipioa

Lankidetzak deszentralizatuaren baitan, aukeratu behar da lankidetzak ekintzak errealitate hurbilen dauden erakundeek egitea edo jarduketan xedea hurbilagoz ezagutzen dituzten pertsonak edo

erakundeek egitea. Aldi berean, subsidiariorotasunaren printzipioak eginkizun garrantzitsua betetzen du Estatuko edo Europar Batasuneko politikaren aldean, foru erakundeek kudeatutako lankidetzak garapen prozesuetan ari diren Nafarroako gizarte erakundeekin hurbiltasun handiagoa zilegi egiten duen neurrian.

Denbora berean, Nafar Lankidetzaren ekintza guztiak osagai subsidiarioa dira laguntza jasotzen duten herriek beren garapen iraunkorraren aldeko prozesuetan egindako ekintzen aldean (Nafar Legearen 3.g artikulua).

7) Osagarritasunaren printzipioa

Nafarroako lankidetzak politika kanpo eta barne osagarritasunaren ikuspegitik diseinatu dago. Kanpo ikuspegitik, nafar lankidetzak Estatuko politikaren osagarri da eta, hala bada, Nafarroako udalek egindako lankidetzaren osagarri. Barne ikuspegitik, lankidetzak politikaren xedea da Nafarroako erakunde publikoen eta lankidetzaren zati nabarmena bideratzen duten gizarte erakundeen arteko osagarritasuna.

Aldi berean, nafar lankidetzaren osagarritasuna kontuan hartzen da laguntza jasotzen duten herriek berek beren baitatik egiten duten garapen iraunkorraren aldeko prozesuan autosostenido (Nafar Legearen 3.g artikulua).

8) Deszentralizazioaren printzipioa

Garapenaren aldeko nafar politika lankidetzak deszentralizatuaren adierazpena da eta, ondorioz, hori gidatzen duten printzipioak (arestian azaldutakoak) ditu oinarri. Era berean, deszentralizazioak esan nahi du aitortu behar dela lankidetzan eragile asko eta askotarikoak ari direla, hala instituzioetan nola gizartean, eta haiekin guztiekin estrategiak eta politikak koordinazio egokia bilatu beharra. Bereziki, Nafarroari dagokionez, lankidetzak politikak ahalegindu behar du nafar udalek sustaturiko lankidetzak ekintzak eragingarritasunez eta zentzun batera txertatzen.

9) Koherentziaren printzipioa

Nafarroak bere eskumeneko jarduketak esparruetan egindako politikek (garapenaren aldeko lankidetzari lotutakoak) koherentziaren printzipioari men egin behar diote, Garapenaren aldeko Lankidetzak arautzen duen Legeak ezarritakoarekin bat (3.h eta 3.j artikulua).

Horren ondorioz, eta baliabideak zentzuz eta ahalik eta egokien erabiltzearekin bat, Nafarroako Administrazio Publiko guztiek lagundu behar dute oro har eskura dituzten baliabide publikoak ahalik eta hobekien aprobetxatzen, garapenaren aldeko

lankidetzan eskumenak izan ala ez (Nafar Legearen 3.h artikulua) gehien baliatzen.

Alde horretatik, printzipio horrek aipamena egiten dio Nafarroako Gobernuko beste Departamentu batzuen konpromisoari eta Gobernuaren garapenaren aldeko lankidetzak eta hezkuntza politiketan parte-hartzeari, Plan Zuzentzaile honek ezarritakoarekin bat.

10) Koordinazioaren printzipioa

Aurrekoaren aldean, Lankidetzaren Plan Zuzentzailea eraiki da garapenaren aldeko lankidetzan ari diren instituzio esparruen artean beharrezkoa den koordinazioaren gainean. Horrela, Plan honek koordinazio bideak aurreikusi ditu lau mailatan:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioekin.

b) Espainiako Nazioarteko Lankidetzarako Agentziarekin eta Europar Batasunarekin.

c) Gobernuko Departamentu eskudunekin elkarlanean ari diren gizarte eta gobernu kanpo erakundeekin.

d) Laguntza jasotzen duten gizartearen eragileekin.

11) Prebentzioaren printzipioa

Garapenaren aldeko nafar lankidetzaren egin-kizuna herrialde pobretuei laguntza bideratzeaz haratago doa, eta giza garapen iraunkorra eragotzen edo zailtzen dituzten gauzei aurrea hartzea da bere eginkizun nagusia, beste batzuen artean.

12) Planifikazioaren printzipioa

Planifikazioaren printzipioa espresuki jasoa dago Nafar Legearen 17. eta 18. artikuluetan, eta adierazten du nafar instituzioen garapenaren aldeko lankidetzak koherentziaz eta eragingarritasunez antolatzeko borondatea. Alde horretatik, lanabes operatibo nagusia Garapenaren aldeko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea da, Nafarroako Gobernuak hainbat urtetarako onetsiko duena. Bigarren mailako lanabesak dira, urtero, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak egin behar duen urteko programa, indarrean dagoen Plan Zuzentzaileak jasotako aurreikuspenak urtealdian zehazteko, bai eta aurrerapenen balorazioa barne hartuko duen aurreko urtealdiko urteko programaren Kudeaketa txostena ere.

Alde horretatik, Nafar Lankidetzak bere egiten ditu plangintza estrategikoaren printzipioak, hots, prozesu partehartzailea, osokoa eta elkarkidea aldaketa prozesuan eragile diren guztien artean.

13) Ebaluazioaren printzipioa

Plan Zuzentzailea osoko lankidetzaren eragingarritasunaren lanabesa da. Alde horretatik, lankidetzaren kudeaketak eskura izan behar du malgutasun dosi egokia, etengabe egokitu dadin ziurtatzeko, bai eta etengabe hobetu dadin ere. Nafarroako Administrazioak erakunde eta prozesu egokiak ezarri behar ditu, Plana eta bere egokitasuna betetzen ote diren era iraunkorrean ebaluatzeko.

Ilido horretan, Garapenaren aldeko Lankidetzaren arautzen duen Foru Legearen 16. artikulua espresuki dio behar diren kontrol eta ebaluazio lanabesak ezarriko direla egindakoa ebaluatzeko, hori baita planifikazioaren printzipioak beharrezkoa duen osagarria. Hori dela eta, Plan Zuzentzaile honek ebaluazio iraunkorra eta zeharrekoa sustatu du, bai Plan Zuzentzaileari berari eta bere aurrerapenari dagokiena, bai zuzeneko esku-hartzearen proiektu eta programen kudeaketari dagokiena.

2.4. PRINTZIPIO GIDARIEN SINTESIA, BEREN ITURRIEN ARABERA

AGENDA BATERATUAREN PRINTZIPIOAK	LANKIDETZA DESZENTRALIZATUAREN PRINTZIPIOAK	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LANKIDETZAREN PRINTZIPIOAK
<ul style="list-style-type: none"> Giza garapen iraunkorra sustatzearen zentralitate, genero berdintasunean oinarrituaz; pobrezia murrizteko helburuarekin bat egitea, Milurtekoko Helburuei sostengu espresua emanez. Garapen-bidean dauden herraldeen beharretan oinarritutako planifikazioa, bereziki arreta pobeeretan jarrita, eta haiekin hitzartuta. Premia larriei lehentasuna ematea. Koherentzia. Instituzioen arteko koordinazioa. Osagarritasuna eta subsidiarotasuna. Giza eskubideak errespetatzeari edo haiekin konprometitzeari lotua. Gizartearen parte-hartzea eta inplikazioa. Eragingarritasuna. Globaltasuna eta osokotasuna. Epe luzera antolatzea. Dirulaguntza tankerako lanabesak lehenestea. 	<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzea. Subsidiarotasuna. Koherentzia. Deszentralizazioa. Autonomia aurrekontuan. Narberaren erantzukizuna gauzapenean. Prozesu hurbiltasuna. Garapen instituzionala. Eragina nafar gizartearen. Berrikuntza. Planifikazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> Osokotasuna. Erantzukizuna. Elkarkidetasuna. Parte-hartzea. Eragingarritasuna. Subsidiarotasuna. Osagarritasuna. Deszentralizazioa. Koherentzia. Koordinazioa. Prebentzioa. Planifikazioa. Ebaluazioa.
PRINTZIOEN SINTESIA		
<ul style="list-style-type: none"> Xedeak: Giza garapen iraunkorra sustatzearen zentralitatea, genero berdintasunean oinarrituaz; pobrezia murrizteko helburuarekin bat egitea, Milurtekoko Helburuei sostengu espresua emanez; Giza eskubideak errespetatzeari edo haiekin konprometitzeari lotua; eragina nafar gizartearen berean. Eragileen logika: eragileak elkaritu eta haien arteko hitzarmena; gizartearen parte-hartzea, erantzukizuna eta inplikazioa; koherentzia, koordinazioa, osagarritasuna eta subsidiarotasuna; deszentralizazioa; gaitasunak indartu eta instituzioak sendotzea Prozesuen logika: plangintza estrategikoa; epe ertain eta luzera antolatzea; eraginkortasuna eta eragingarritasuna; globaltasuna eta osokotasuna metaketan oinarritua. 		

3. KAPITULUA: HELBURUAK ETA ESTRATEGIA-ILDOAK

3.1. PLAN ZUZENTZAILEAREN HELBURU OROKORRAK

Martxoaren 9ko 5/2001 Foru legeak araututako lankidetzaren oinarritzko helburua da "herrialde pobretuenen garapena laguntzea, eta bereziki:

a) Garapen bideko herrialdeak laguntzea ingurumenarekiko begirunea duen garapen iraunkor eta jasangarria erdiets dezaten, parte-hartzekoa eta giza eskubideekiko begirunea gordetzen duen marko demokratiko batean, betiere, ukitutako herrien parte-hartzearekin beren garapen prozesu propioan.

b) Nazioarteko erkidegoko harreman komertzial, politiko eta estrategikoetan oreka handiagoa lortzen laguntzea, nazioarteko justizia eta bakea sustatuz.

c) Herritarren parte-hartzea sustatzea garapenerako lankidetzaren ekintzetan, garapen bideko herrialdeetako herriekiko konpromiso sozial handiagoaren alde gizaratean sortzen diren ekimenak babestuz.

d) Garapen bideko herrialdeen giza baliabideak sendotzea, haien ekoizpen egiturak eta erakunde publikoak indartzea, eskualdeko integrazio-prozesuak babestea eta beregaina den garapena faboratzea.

e) Garapen bideko herrialdeetan gertatzen diren larrialdi egoerei aurre egiten laguntzea, laguntza humanitarioaren bidez."

Plan Zuzentzaileak aitortzen du Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren nafar politikaren helburu nagusia (GNL*) pobrezia desagerraraztea dela Giza Garapen Iraunkorra* sustatzearen bidez, betiere genero ikuspegian oinarritua.

Garapenaren aldeko Lankidetzaren arautzen duen Foru Legearen helburu horiek gogoan, Plan Zuzentzaile honen helburu nagusia hauxe da:

Nafarroako Gobernuak egin edo sustatu Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren kalitatea hobetzea, herrialde pobretuen Giza Garapen Iraunkorrean eragin handiagoa sortzeko, betiere genero ikuspegian oinarritua, eta Foru Komunitatearen gizarte eraldakuntzari laguntzea.*

Helburu orokor hori hainbat helburutan zehaztua dago:

1. Herrialde jasotzaileei dagokienez:

1.1. Milurtekoko Garapen-Helburuak (MGH*) Nafarroatik bultzatutako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren sar daitezela sustatu eta erraztea.

1.2. Balio demokratikoak, parte-hartzea eta giza eskubideekiko errespetua aipatu herrialdeetako gizarateetan finka daitezela sustatzea.

1.3. Gizarteon autonomia sustatu eta toki garapena indartuko duen iraunkortasuna sustatzea ekonomian, gizaratean eta ingurumenean.

1.4. Larrialdiko giza egoerei (egiazkoei edo berehala izan direnei) egokiro erantzutea.

1.5. Herrialdeen arabeko metaketa mailari eustea, eta estatu barneko eremuen arabeko metaketaren maila zuzentzea.

1.6. Sektorez sektoreko metaketa mailari eustea.

2. Nafar gizaratean:

2.1. Garapenerako Hezkuntza* nafar gizaratearen maila eta esparru guztietan sustatzea, bereziki hezkuntza esparru formalean eta ez-formalean.

2.2. Nafar gizarate herrialde pobretuen egoeraz argibidea eman eta sentsibilizatzea eta, era berean, haienganako elkartasunezko kultura aktiboa sustatzea.

2.3. Gizaratearen eta herritarren parte-hartzea elkartasunezko eta lankidetzako ekintzetan sustatu eta bultzatzea, batez ere gizarte erakundeetan eta gizarte mugimenduen bitartez.

2.4. Nafar gizaratean jarrera eta portaera arduratsuak sustatzea: kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza eta ingurumena bere osoan errespetatzeko kultura.

2.5. Erakundearen arabeko metaketa mailari eustea, eta sistemaren egungo dimentsioa aztertu eta bere punturik hoberena bilatzea.

3. Herrialde jasotzaileen eta Nafarroaren arteko harremanari dagokionez:

3.1. Harremanak iraunkorrak sustatu eta erraztea Nafarroako eta garapen-bidean dauden herrialdeetako gizarateen artean, helburuak, lanabesak eta modalitateak epe luzerantz egokituta.

3.2. Nafarroako politika publikoen arteko koherentzia sustatzea, betiere garapen-bidean dauden herrialdeekiko harremanei dagozkienak, bai eta Milurtekoko Garapen-Helburuak (MGH*) lortzeko estrategiei dagozkienak ere.

3.3. Nafarroako eta lankidetzak jasotzen duten herrialdeetako gizartearen kulturak, balioak eta egoerak elkarren artean ezagutzea, kultura artekotatzen eta bizikidetzak dakartzaten balio erantsia aintzat hartuta.

3.4. Nafarroako Gobernuaren GLO* finkatzea, Nafarroako Parlamentuan emandako aginduarekin bat.

3.2. JARDUKETARAKO ESTRATEGIA-ILDOAK

Azterketaren prozesu partehartzailea eta ares-tian azaldutako helburuak kontuan hartuta, Plan Zuzentzaileak lau multzotan elkartu ditu jarduteko estrategia-ildoak (23):

A) GNL* kudeatzeko kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak.

B) Jarduketarako zehar-ildoak.

C) Lehentasunezko sektore-ildoak.

D) Lehentasunezko geografia-ildoak.

A) Kalitatea hobetzeko estrategia-ildoak

A.1. Lankidetzak deszentralizatuaren eredia finkatzea.

Nafar lankidetzak kuantitatiboki egiten duen ahalegina aitortu arren, Plan Zuzentzaileak ikusi du nafar lankidetzak deszentralizatuaren eredia hobetu behar dela. Hau da, bere helburuak, egin-kizuna eta dimentsioa zehaztu behar ditugu GNLren* barnean.

Helburu estrategikoak:

A.1.1. Nafar GNLren* identitatea eta berezitasuna zehaztu eta finkatzea.

A.1.2. GNLren* dimentsiorik hoberena Nafarroan zehaztu eta lortzea.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

A.1.1.a Eredua (printzipioak, helburuak eta lehentasunak) Nafarroako GNLn ari diren eragileekin batera era partehartzailean azaltzea.

A.1.2.a Nafarroako GNLren* lanabesak bere eragileen ezaugarri eta berezitasunetara pixkana egokitzea.

A.1.2.b Eragileen arteko elkarlana indartzea.

A.1.2.c Nafarroako GNLn* ari diren eragileek gidatutako epe luzeko esku-hartzeak indartzea, betiere Espainiako Lankidetzaren barnean.

A.2. Kudeaketa hobetzea.

Azterketa kualitatiboetan agerian jarri den bezala, kalitatea* hobetu behar da nafar lankidetzaren kudeaketan oro har. Gainera, eragingarritasunez eta eraginkortasunez egin behar da, Plan honetan proposatu ditugun helburuak lortuko badira, eta hobekuntzak abiarazteko moduko egitura eta plangintza eskura izanzen baditugu.

Helburu estrategikoak:

A.2.1. Kudeaketa sistemaren eraginkortasuna eta eragingarritasuna oro har hobetzea, planifikazio, gauzapan eta ebaluazio faseetan.

A.2.2. GNLn* eta dirulaguntzetan indarra duen araudia egokitu eta garatzea, lanabesak kalitate irizpideen arabera diseinatuzko.

A.2.3. Hezkuntza komunikaziorako estrategia ezartzea Administrazioaren eta gizartearen artean.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

A.2.1.a Nafarroako Gobernuak GNL* kudeatzen duen organoaren teknika eta administrazio egitura sendotzea.

A.2.1.b Ebaluazioa ekintza iraunkor gisa eta esperientzien sistematizazioa kudeaketako gardentasunaren ardatz gisa ezartzea, bai eta garapen estrategien eragin onak partekatzeko modua ardatz gisa ere.

A.2.1.c Ikerketa eta prestakuntza estrategia iraunkor gisa indartzea.

A.2.2.a Dirulaguntzei buruzko eta Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko Foru Legeak erregulatu bidez garatzea, eta, hala bada, Plan Zuzentzaile honekin bat datozen aldaketak sustatzea.

A.2.2.b Prozesuak azkartzeko dirulaguntzen kudeaketarako jarraibideak ezartzea, esku-hartzeen denbora errealekara egokituak; halaber, egindakoa ebaluatu eta ikasteko mekanismoak ezartzea.

A.2.3.a Harremanetarako lanabes iraunkorra ezartzea Departamentuaren eta gizartearen artean.

(23) 7.kapituluan (ebaluazioa sistema) helburuen aurrerapena baloratzeko adierazleak eta lanabesak ezarriak daude.

A.3. Koherentzia eta Koordinazioa Nafarroako GNLn*

Plan Zuzentzailea administrazioen arteko edo barneko ardatz egituratzailea da (Toki Administrazioak, Nazioarteko Garapenerako Espainiako Agentzia, Nafarroako Gobernuako Departamentuak, etab.) eta xede du baliabideen eta eraginaren osagarritasuna eta ahalik eta aprobetxamendurik handiena lortzea. Era berean, koherentzia eta koordinazio eman behar zaizkie eragile guztien jarduketei.

Helburu estrategikoak:

A.3.1. Eragile publikoen eta pribatuen arteko koordinazioa hobetzea, hala nola administrazioen publikoen beren artekoa, osoko jarduketa koherentea xede hartuta.

A.3.2. Migrazioak eta garapena positiboki lotuko dituzten jarduketak sustatzea, jatorri eta jomuga eremuen onerako.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

A.3.1.a Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua indartzea, Nafarroako Gobernuaren GNLri* lotutako politiken partaidetzarako eta koordinaziorako esparru gisa.

A.3.1.b Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren, Kanpo Arazo eta Lankidetzaren Ministerioaren eta Autonomia Erkidegoetako gainerako Administrazio Publikoen arteko berariazko koordinaziorako esparruetan laguntzea.

A.3.1.c GNLn* Nafarroako Toki Entitateekiko elkarlana sustatzea.

A.3.1.d Nafarroako Gobernuako Departamentuen eta sozietate publikoen inplikazioa Nafarroako GNLren* jarduketetan sustatzea.

A.3.1.e Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren eta hezkuntza erkidegoaren arteko koordinazioa sustatzea (Hezkuntza Departamentua, ikastetxeak, ikasleak, irakasleak, Guraso Elkarateak, etab.) Garapenerako Hezkuntza arloko ekintzak sustatzeko, behar bezala planifikatuak eta eragin handikoak.

A.3.2.a Beste eragile publiko eta pribatuekiko koordinazioa sustatzea (Inmigrazio Bulegoa, Etorकिनak Gizarteratzeko Planaren jarraipen batzordea, etorkinen elkarateak, GGKEk, enpresa elkarateak, unibertsitateak, etab.), Nafarroan inmigrazioak duen egoerarekin bat datozen baterako garapen estrategiak bultzatzeko.

A.3.2.b Etorकिन elkarteen eta GNLko* eragileen arteko ekimenak sustatzea, bai eta etorkinek GNLren* jarduketetan parte har dezaten ere.

A.4. Lankidetzan ari diren eragileak arlo instituzionalean sendotzea

Nafar GNL* garatzen duten instituzioek eta eragileek beren alde sendoak eta alde ahulak agerian jarri dituzte beren jarduketan kalitatea hobetzeko asmoz. Alde horretatik, sendotze instituzionalaren ildoak xede du GGKEk lankidetzaren lehentasunezko eragile gisa indartzea, baina aldi berean sektorean beharrezkoak diren beste eragile batzuen inplikazioa indartzea ere, esaterako: unibertsitateak, sindikatuak, udal erakundeak, enpresak, etab.

Helburu estrategikoak:

A.4.1. GGKEk indartzea, beren egituren eta eginkizunen kalitatea hobetzeko, eta beren jarduketak emaitzetara bideratzea, bai eta epe luzerako ekintzetara eta eraginkortasunean oinarritutako eraginerara ere (baliabideak ahalik eta hobekien erabiltzea).

A.4.2. Beste eragileen ekintzak argitu, sustatu eta aditzera ematea.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

A.4.1.a GGKEen eskumenak eta gaitasunak indartzea (epe luzeko kudeaketa estrategikoa, giza baliabideen kudeaketa, boluntarioen politika, genero eta soldata politika, besteak beste; gizarte erantzukizun korporatiboaren sustapena) prestatutzaren eta aholkularitzaren bitartez.

A.4.1.b Jokabide egokien zabalkundea sustatzea, Nafarroan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan egiten direnjarduketak ebaluatzearen bitartez.

A.4.2.a Unibertsitate-esparruan egitura egonkorak indartzea laguntza teknikoa, dokumentazioa, prestakuntza, ikerketa eta ebaluazioa sustatzeko lanabesak abiarazteko.

A.4.2.b Oro har, lankidetzan ari diren beste eragileen eginkizuna erakustea (enpresak, sindikatuak, besteak beste), eta beren jarduketa eta inplikazioa indartzea egiazki parte-hartzeko esparruak eratzearen bidez.

A.4.2.c Eragileen arteko kanpainak egitea, sentibilizazioaren eta Garapenerako Hezkuntzaren alde, nazioarteko lankidetzan ari diren eragileen eginkizuna nafar gizarteari jakinarazteko.

B) Jarduketarako zehar-ildoak

Zeharkakotasuneko ardatzak Nafar GNLn* era horizontalean doazen funtsezko ildoak dira eta lankidetzaz molde horretan agertu behar dute metodologia egokia erabilia, esaterako, "egiazta-pen zerrendak" erabilia. Diagnostikoa eta arlo honetan nazioartean dagoen adostasuna hartu dira oinarri zerrenda aukeratzeko.

B.1. Pobrezia desagerraraztea

Nazio Batuen Garapenerako programak honela definitua du pobrezia*: bizitza toleragarria bizitzeko aukerak eta oportunitateak ukatzea. Baina pobrezia kontzeptu zabala da eta bere barnean era askotako dimentsioak hartzen ditu: sozialak, politikoak, ekonomikoak, kulturalak, askatasunezkoak, genero arlokoak eta abar. Gainera, garapen maila eta kontzeptuari egiten dio aipamena. Gizaki orok du garapenerako eskubidea eta ez da soilik halako errenta ekonomiko jakin bat lortzea. Izan ere, bizirik irauteari lotuta dauden oinarrizko premiei erantzun behar zaie, baina, aldi berean, aukeren garapena indartu behar da.

Helburu estrategikoak:

B.1.1. Oinarrizko giza premien asetzea lehentasunez sustatzea (24).

B.1.2. Garapen ekonomiko iraunkorra bultzatzea.

B.1.3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan sartzeko aukerak sortzea.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

B.1.1.a Jarduketa orotan MGHehiko* lotura sartzeara.

B.1.2.a Toki garapena bultzatuko duten esku-hartzeak sustatzea, bereziki landa eremuetan, aberastasun auto-sostengatua eta iraunkorra sorrarazita, sektore pobre eta ahulentzat.

B.1.2.b Pobrezia baldintzak sustatu eta iraunarazten dituzten zergatien ikerketa sustatzea laguntza jasotzen duten eremuetako gizartean, ekonomian eta politikan.

B.1.3.a Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietarako sarrera GNLn* jarduketa orotan pixkana sartzeara.

B.2. Genero berdintasuna sustatzea

Genero berdintasunaren ikuspegiak* garapena sustatu nahi du berdintasunean oinarritutako gizon eta emakumeen parte-hartzearen ikuspuntutik ekonomian, politikan, gizartean eta kulturean. Plan honek Garapen Generoa* esaten zaion estrategia egiten du bere. Estrategia horren arabera, gizonak eta emakumeak beren gizarteetako eraldakuntza-eragile arduradun dira.

Helburu estrategikoak:

B.2.1. Garapen Generoa deritzon kontzeptua Nafarroako GNLn* jarduketetan sartzeara.

B.2.2. Genero berdintasuna hala kudeaketa prozesuetan nola antolaketan sartzeara.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

B.2.1.a Genero Garapena* deritzon ikuspegia nafar gizartean sustatzea.

B.2.1.b Arlo honetan, jokabide egokiak sustatu eta zabaltzeko ikerketa, prestakuntza eta ebaluazio lanabesak sustatzea.

B.2.1.c Parte-hartzea eta beste eragileekiko koordinazioa indartzea, bereziki NAFARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO INSTITUTUAgeneroaren arloan*, bai eta emakumeen berdintasunaren eta aurrerapenaren aldeko foroetan ere.

B.2.2.a Lanabes guztietan genero ikuspegia* sartzeara, metodologia egokia erabilia.

B.3. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea

Plan Zuzentzailea giza garapen iraunkorrean oinarritua dago. Izan ere, giza garapenaren* sustapenean garrantzi handia du ingurumenaren iraunkortasuna* bermatzeak, eta hori guztia nazioarteko foroetan hitzartutakoarekin bat.

Helburu estrategikoak:

B.3.1. Nafar GNLn* lanabesek ingurumenaren iraunkortasuna bermatzeko printzipio eta ekintzak aintzat har ditzaten sustatzea.

B.3.2. Nafarroako GNLn* jarduketan lehentasunez energia berriztagarrietan oinarritutako energia-sistema eragingarriak erabil daitezten bultzatzea.

(24) Ikus C.1.1. helburu sektoriala.

B.3.3. Ingurumenaren kontserbazioarekin eta baliabideen zentzuzko erabilerarekin bat datozen esku-hartzeak bultzatzea, bereziki edateko ura eskura izateko ekintzak sustatuta.

Hona hemen helburu horiek gauzatzeko ekin-tza estrategikoak:

B.3.1.a Nafar GNLren* esku-hartze guztietan, ingurumen eragina ebaluatzeko irizpideak baliatzea, metodologia egokia erabilita.

B.3.1.b Ikuspegi hori Garapenerako Hezkuntza-aren* jarduketetan sar dadin indartzea.

B.3.2.a GNLko* eragileen eta energia berriztagarrietan espezializatutako enpresen arteko elkar-lan handia sustatzea, GNLren* jarduketetan energia-sistema eragingarri eta iraunkorrek txertatzeko, transferentzia teknologikoa, prestakuntza eta laguntza teknikoaren bitartez.

B.3.3.a Ingurumena kontserbatzeko, baliabideak zentzuz erabiltzeko eta edateko ura eskura izateko estrategiak sustatuko dituzten osagaiak lanabesetan sartzea.

B.3.3.b Esku-hartzeek ingurumenean dakartzaten ondorioez eta aro horretan izandako aurrerapenez prestatu eta aholkatzea.

B.4. Giza Eskubideak babestea, demokratizazioa, eta kultur nortasuna errespetatzea

Giza Eskubideak* herrialde demokratikoen barne antolamendu politikoen funtsa dira edo beren herritarrak babesteko lanabesa. Baina, horrez gain, giza eskubideek herrialde demokratikoen botere publiko ororen kanpo politikako oinarri eta gidari izan behar dute .

Giza Eskubideak babesteko estrategian kultur aniztasuna sartzeak berekin dakar kultur aldaerak lankidetzako ekintza zehatzek lortu nahi dituzten helburuei erantzea. Baina, era berean, kultur aniztasunak ekintzak planifikatu, jarraitu eta ebaluatze-ko lanabesa izan behar du.

Helburu estrategikoak:

B.4.1. Giza Eskubideak –Haurren Eskubideak barne– nafar lankidetzaren lanabesetan sartzea, eta eskubideak sustatu, babestu eta bermatzeko ekintzak aurreikustea, kultur nortasuna errespetatzea barne.

B.4.2. Demokratizazioa eta gobernabide ona sustatzea Giza Eskubideekin bat.

Helburua gauzatzeko ekintza estrategikoak:

B.4.1.a Giza Eskubideen ikuspegia GNLren* ekintzetan sartzea, kultur nortasunaren errespetu barne, metodologia egokia erabilita.

B.4.1.b GLO* jasotzen duten herrialdeetan Giza Eskubideen egoera Nafarroa zabaltzea, bai eta lagun egiten zaien gutxiengo etnikoen edo indigenen kultur nortasunari dagokionez ere.

B.4.2.a Demokratizazioa sustatzea, deszentralizazioa eta “governabide ona” sustatzearen bidez.

B.5. Gaitasunak sortzea. Gizartea antolatzea

Gaitasunak sortzeko estrategia funtsezkoa eta zeharkakoa da garapen orotarako. Pertsonak ahal-duntzea* eta erakunde komunitarioak sendotzea giza garapena* egituratzeko oinarriak dira, hau da, pertsonak garapenaren ardatz egiten ditu. Hori dela eta, nafar GNLk* parte-hartzea bideratzeko esparru zilegiak sustatu nahi ditu, gizon-emakumeen parte-hartzea egiazki eta eraginkortasunez bermatzeko.

Helburu estrategikoak:

B.5.1. Garapen komunitarioa eta gizartearen sendotzea sustatzea gizartearen parte-hartzearen bitartez.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

B.5.1.a Parte-hartzea sustatzeko mekanismoak ezartzea.

B.5.1.b Esku-hartze orotan gaitasuna bultzatzeko estrategiak sustatzea.

B.5.2.a Erakunde sareei laguntzeko mekanismoak ezartzea.

C) Lehentasunezko sektoreak

5/2001 Foru Legearen 4. artikularen arabera, Nafarroako GNL* egituratu behar da lehentasun sektorialekin bat, lankidetzak garatuko den jarduketaren eremuek ezarria. Ildo sektorialak ezaugarri berberak dituen jarduera multzoa biltzen du eta esku-hartzeko esparru berriak definitzen dute. Boladako azterketa sozialaren arauen arabera, elkarren artean lotura duten gizarte egoerei heltzeko dakartza ezaugarri berberak. Funtsean, sektore horiek lehentasunezkoak izanen dira lanabesentzat, betiere lanabesen ezaugarrietara egokituak.

Aipatu Foru Legearen 6. artikulua dio Foru Komunitatetik eratzen den lankidetzak honako ekintza eremuotara joko duela nagusiki:

a) Oinarrizko giza garapenari dagozkion programa eta proiektuak: elikagaiak bermatzekoak, oinarrizko hezkuntza eta giza baliabideak gertutzekoak, birziklapena, toki- profesionalen prestakuntza eta espezializazioa, osasun laguntza, ura hornitu eta edateko ontzeko programak eta beste-lakoak.

b) Pobrezia gutxitzeko, enplegu emankorra izateko aukerak gehitzeko eta soberakinak sortzeko estrategiak.

c) Haurren eta beste sektore bereziki zaugarrien aldeko ekintzak.

d) Indigena talde autoktonoen garapena faboratzekeo programa eta proiektuak.

e) Giza eskubideak sustatzeko, garapen bideko herrialdeetan sistema demokratikoak sortu eta indartzeko, instituzio deszentralizatuei laguntzeko eta gizarte zibila sendotzeko ekintzak.

f) Gainera, Foru Legearen 7. artikulua garapenerako hezkuntza eta gizarte sentsibilizazioa aurreikusten ditu, jardun beharreko lehentasuna duten sektoreen artean.

Plan Zuzentzaile hau egiteko erabili dugun azterketatik eta metodologia partehartzaitatik abiatuta, lehentasun sektorial hauek proposatzen ditugu:

C.1. Oinarrizko giza premiak asetzeko gaitasunak hobetzea

Nazioarteko adostasunarekin eta Nafarroako GNLk* egindako ibilbidearekin bat, giza gaitasunak* hobetzeko lehen lehentasun sektorial hau sartu da planean, Giza Garapenari* berari estuki lotua.

Helburu estrategikoak:

C.1.1. GLOren* metaketari eustea laguntzan eta sostengu teknikoan (prestakuntza eta gaikuntza), ondoko gauza hauetan sarrera iraunkorra, egonkorrera eta kalitatezkoa hobetzera bideratuak:

- Edateko ura eta oinarrizko saneamendua.
- Elikagaien eta nutrizioaren segurtasuna.
- Oinarrizko osasuna, sexu osasuna, ugalketa osasuna, eta GIB/IHESari aurre egitea, bai eta garapen-bidean dauden herrialdeetan bereziki hedatuak dauden gaixotasunei ere.
- Oinarrizko hezkuntza, lanbide heziketa eta helduen alfabetatzea.

C.1.2. Bereziki kalteberak diren taldeentzako ekintzak lehenestea:

- Haurren aldeko jarduketak (elikadura, osasuna eta hezkuntza).
- Herri indigenak (autogarapena, antolaketa, kultura).
- Arrisku egoeran dauden emakumeak (hezkuntza, lana, ahalduntzea*).
- Errefuxiatuak eta lekualdatuak.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

C.1.1.a Oinarrizko giza gaitasunak hobetzeko programak sustatzea.

C.1.1.b Osokotasuna sustatzen duten epe luzekeo ekimenak bultzatzea.

C.1.2.a Talde horien aldeko esku-hartzeak baremoan sustatzea.

C.2. Gobernamentu demokratikoa, garapen instituzionala eta gizartea sendotzea

Giza Eskubideen babesa funtsezkoa da Garapenaren aldeko Lankidetzaren arautzen duen martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legean eta, ondorioz, Plan Zuzentzailean. Beraz, bi isla ditu: batetik, zeharkakotasuneko ildo gisa (giza eskubideak eta gaitasunak sortzea) eta, bestetik, ildo sektorial hau demokraziaren kalitatea sustatzera eta funtsezko eskubideak errespetatzera bideratua, herritarren parte-hartze egiazko eta eraginkorraren ikuspegitik, eta Giza Eskubideen erabilera eta errespetutik. Esparru honetan definituak daude:

- Gobernamentu demokratikoa: gizarte antolatuaren eragina ahalbidetzen duten arauen sistema, bereziki bazterketa egoeran dauden taldeena, politika publikoen definizioan eta kontrolean, partehartze demokratikoa, gardentasuna eta gizarteratzea oinarri harturik.
- Garapen instituzionala: instituzio demokratikoen sendotzea zerbitzuak ematean eta bere zilegitasun demokratikoa eragingarritasuna bermatzeko.
- Gizartea sendotzea: gizartearen gaitasun politikoak sendotzea, bazterketa egoeran dauden sektoreetan arreta berezia jarrita. Gaitasun horien artea daude nork bere buruan auto-estimua eta konfiantza izatea, antolaketaarako trebeziak, aldarrikapenak egituratzeko baliabide ideologikoak eta, azkenik, mintzakidetzaren beste talde eta instituzio batzuekin gizarteratze politiken aldeko itunak egiteko.

Helburu estrategikoak:

C.2.1. Sektore hau osagai hauetan indartu eta metatzea:

- Gobernamentu demokratikoa, "governabide ona" sustatzeari dagokionez.
- Gizartearen egiturak sendotzea.
- Giza Eskubideak eta Bakerako Kultura.
- Laneko eskubideak eta eskubide sindikalak.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

C.2.1.a Sektore honetan jarduketak sustatzea.

C.2.1.b Garapenaren eta bakerako kulturaren aldeko esku-hartzeak aintzat hartzea gatazka iraunkorreko eremuetan edo bake-elkarriketak gertatzen diren tokietan.

C.3. Ekonomiako eta ekoizpeneko gaitasunak hobetzea

Garapenaren kontzeptua bilakatu eta aukeretan oinarritzen da gaur egun. Hau da, errenta ez da pobrezia-maila neurtzeko irizpide bakarra. Hala ere, egia da oraindik ere nabarmena dela garapenaren alde ekonomikoa. Horrela, diru sarrerak sortzeak edo halako errenta-maila jakin batean sartzek aukera ematen digu gizakioi hainbat mailatan premia batzuk asetzeko. Horregatik, Nafarroako GNlk* bere jarduketa bideratu nahi du ekonomia eta ekoizpen izaerako ekimenak sendotzera lan duina edo auto-enplegua sustatzeko, bai eta epe luzeko sarrerak eta tokiko garapen ekonomiko autonomoa ere; eta hori guztia enpresa-etikatik eta gizarte erantzukizun korporatibotik datozen ildoekin bat, eta ekonomia solidarioaren* irizpideei jarraiki.

Helburu estrategikoak:

C.3.1. Pobrezia desagerrarazten lagunduko duten ekoizpen ekimenak sustatzea, bereziki arreta landa eremuan eta hirietako bazterketa egoeretan jarrita.

C.3.2. Enpresa txiki eta ertainaren ehuna sendotzea, batez ere ekonomia solidarioa sustatzen duten enpresena.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

C.3.1.a Laguntza teknikoa eta ekoizleen gaitzuntza sustatzea.

C.3.1.b Lurra nekazarien eskuetan uzteko ekimenak laguntzea.

C.3.1.c Produktuak banatu eta merkaturatzeko sareak sustatzea, toki, nazio eta nazioarteko sareetan sartzearen bitartez; eta, bereziki, nazioarteko bidezko merkataritza* delakoaren bidez.

C.3.1.d Bidezko merkataritza nafar gizartean sustatzea, zehazki kontsumo arduratsuan, gizarte erantzukizun korporatiboan edo gizarte edo ingurumen irizpideen arabera erosteketa publikoa bultzatzea.

C.3.2.a Lanerako prestakuntza sustatzea, bai eta mikroenpresak, kooperatibak, lan sozietateak, etab. sortzea ere.

C.3.2.b Nafarroako sektore pribatuaren eta laguntza jasotzen duten herrialdeetako enpresa txiki eta ertainaren arteko elkarlana indartzea.

C.3.2.c Mirkrokredituaren eta txandakako funtsen estrategia sustatzea, bereziki etikako eta elkartasunezko fidantza irizpideekin bat datozenak.

C.4. Garapenerako Hezkuntza – Sentsibilizazioa eta Prestakuntza – Ikerketa

Sektore-ildo honen diseinua eta planteamendua Garapenaren aldeko Lankidetzaren arautzen duen martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 7. artikuluan dago funtsatua eta, era berean, Plan Zuzentzaile hau prestatzeko prozesu partehartzailean Garapenerako Hezkuntzari buruz egin den azterketan eta, azkenik, egun horri buruz egin diren ikerlanetan ⁽²⁵⁾.

(25) Nafarroako GGKEen Koordinakundea: *Sokak lotuz, Atando Cabos taldea. Iruña 2004*; *Soziologia Saila. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. El campo de la comunicación, sensibilización y educación para el desarrollo en Navarra (1998-2002)*; *Medicus Mundi. Investigación sobre la educación para el desarrollo en la educación primaria, besteak beste. Unceta, K. ren lan honetan ere oinarritua (2004): Análisis del papel de las Universidades en la Estrategia general de la Cooperación al Desarrollo. (Garapenaren aldeko Politikak Planifikatu eta Ebaluatzeko Zuzendariorde Orokorrek eskatua, Espainiako Garapenaren aldeko Lankidetzaren Plan Zuzentzaile berria egiteko. 2005-2008).*

Aurrez, bi gauza aipatu behar dira:

A) Garapenerako Hezkuntza bi modutan ikusten dugu:

Batetik, zentzu hertsian, pertsonak hezteko edo prestatzeko prozesu elkarreragilea. Hezkuntza dinamikoa, parte-hartze aktiborako irekia eta sortzailea, konpromisorantz eta ekintzarantz bideratua, jendeak munduko desberdintasunen gaineko kontzientzia har dezan, dela aberastasunaren banaketan, dela boterearen banaketan, eta kontzientzia ere desberdintasunen zergatien gainean, ondorioen gainean eta egitura bidezkoagoak erakitzearen aldeko ahaleginean dugun eginkizunaren gainean ⁽²⁶⁾.

Beste alde batetik, zentzu zabalean, hau da, Garapenerako Hezkuntzarekin batera beste modalitate batzuk aintzat hartuz (esaterako, sentsibilizazioa, zeinak informazio ekintza ditu ezaugarri, eta Garapenerako Hezkuntzaren zentzu hertsia eredu eduki eta helburuekin bat egiten badu ere) zuzenduak daude interesa sortzera eta GNLekin* lotuta dagoenaren aldeko jarrera sorraraztera, bai eta gizarte ekintza sustatzera ere.

B) Halaber, Prestakuntza eta Ikerketa bereizi behar dira bi estrategia-ekintza osagarri direlako, eta bi-biak dira beharrezko garapeneraren aldeko lankidetzan. Horregatik, Plan Zuzentzaileak Garapenerako Hezkuntzan (zentzu zabalean) eta garapen-bidean dauden herrialdeen jardueretan sartu nahi ditu.

Helburu estrategikoak:

C.4.1. Alde batetik, Garapenerako Hezkuntzaren (zentzu hertsian) epe luzeko lana sustatzea, eta beste alde batetik, lankidetzari buruzko gizarte sentsibilizazioa epe laburrera sustatzea.

C.4.2. Prestakuntza eta Ikerketa sustatzea, lankidetzaren kalitatea egituratzeko lanabes gisa.

C.4.3. Hezkuntzan, prestakuntzan eta ikerketan ari diren eragile guztien koordinazioa hobetzea.

Hona hemen proposatu diren ekintza estrategikoak:

C.4.1.a Hezkuntza jardueren kalitatea sustatzeko esku-hartzei lehentasuna ematea (egokitzen pedagogikoa, zeharkakotasuna, osokotasuna, eraldakuntza, etab.).

C.4.1.b Eragileek epe luzerako Garapenerako Hezkuntza estrategiak erabil ditzaten sustatzea.

C.4.1.c Eragileen arteko elkarlan mekanismoak ezartzea eragin handiagoko sentsibilizazio kanpainak egiteko.

C.4.2.a Unibertsitateak GNLe* duen eginkizuna indartzea prestakuntza eta ikerketarako funtsezko eragilea den aldetik.

C.4.2.b Ikerlan aplikatuen, ebaluazio-ikerlanen eta esperientziak nahiz jokabide egokiak sistematizatzeko ikerlanak sustatzea, egindakoaren kalitatean eta etorkizuneko ekintzen berrikuntzan aurrera jotzeko.

C.4.3.a Eragileen elkartzea indartzea, bere koordinazioa hobetzeko.

D) Lehenetsitako geografia-eremuak

Garapeneraren aldeko Lankidetzaren arautzen duen martxoaren 9ko 5/ 2001 Foru Legearen II. Tituluak lehentasun geografikoak biltzen ditu, hau da, lehentasunez Nafarroako GNLe* xede izanen diren eremu eta herrialdeak. Nafarroako lankidetzaren ikuskerak mundu osoa hartzen du helburu, baina pobrezia-maila altuenak dituzten herrialde eta eskualdeei emanen die lehentasuna. Alde horretatik, behar-beharrezkoa da ekonomiari eta gizarteari begira garapenik apalena duten herrialdeak zeintzuk diren jakiteko irizpideak ezartzea. Horretarako, nazioarteko erakundeek eskuarki onartutako adierazle sozio-ekonomikoak erabiliko dira.

Gainera, pobrezia aurre egiteko helburuarekin eta MGHk gauzatzeko elkartze-estrategiarekin bat, baloratu behar da herrialde jasotzaileen konpromisoa garapen partehartzailea, berdintzailea, barne hartzailea, eta ingurumenez eta kulturaz iraunkorra, lortzea xede duten politikak diseinatu eta gauzatzeko. Azkenik, Espainiako Lankidetzak GNLe* eremu eta herrialde jasotzailei buruz ezarritako irizpide geografikoak aintzat hartu behar dira.

Plan Zuzentzailearen estrategia geografikoa irizpideotan oinarritua dago:

1. Nafarroako GNLe* lotura historikoa, izatez metatua baitago halako herrialde jakin batzuetan, eta haien barnean, halako eskualde edo departamentuetan.

(26) Argibay, M., Velorio, G. y Velorio, J.J. (1997) *Educación para el desarrollo. El Espacio olvidado de la cooperación. Cuadernos de Trabajo. Hegoa*

2. Herrialdeen Giza Garapenaren egoera, Plan honen printzipioekin bat, bereziki agenda bateratuari dagokionez, jarduera bideratzen baitute Nafarroako GNL indartzera Giza Garapen apala dagoen eremuetara.

3. Batetik herrialdeak daude eta bestetik estatu barneko eremuak. Ikuspegi nagusia azken horietan pausatua dago, Nafarroako Foru Komunitatearen estatus juridikoarekin bat.

4. Etorkinen inplikazioa indartzea, garapenaren aldeko eragile gisa.

5. Eremu geografikoen lehentasunezko orientazioa lanabesak bereiztearen bitartez.

Horren guztiaren ondorioz, eremu geografikoen loturiko hiru estrategia-ildo proposatu ditugu: lehena bat dator halako eremu jakin batzuetan izatez dagoen metaketarekin; bigarrena, Nafarroako GNL Gutxien Aurreratutako Herrialdeetan* sendotzea eta, azkena, Nafarroan bizi diren etorkinen jatorri eremuetan. Nolanahi ere, ez dira esparru bazterzaileak, baizik eta herrialde multzo horietako bakoitzarentzat esku-hartzeko estrategia-ildo desberdinak proposatzen dira.

D.1. Lehenetsitako herrialdeak, lotura historikoren arabera

Espainiako Lankidetzak ibilbide historiko eta kulturala izan du eta du herrialde batzuekin. Nafar GNLri* dagokionez, argi daude aipatu lehentasunak GLOren* banaketa geografikoa aztertzen badugu, diagnostiko kuantitatiboan azaldu dugun bezala; horrela, diruen % 38,25 Hego Amerikako herrialdeetara bideratu dira, % 25,92 Afrikakoetara, % 21,09 Erdialdeko Amerikakoetarantz eta, azkenik, gainerakoa beste eskualde batzuetan banatzen da baina ez modu nabarmenean.

Aurrekontuaren % 80 biltzen duten 21 herrialdeetatik (Garapenerako Hezkuntzari eta "batzuk" atalari egokitutakoa kenduta) ⁽²⁷⁾, **15 herrialdek** finantzaketa bolumen handiagoa dute (2 milioi eurotik gora). Hauek izan dira: Peru, Bolivia, Ekuador, Kolonbia eta Venezuela Hego Amerikan; Guatemala, Nikaragua, El Salvador, Kuba eta Dominikar Errepublika Erdialdeko Amerikan, Palestinako Lurraldeak Ekialde Hurbilean eta Kongoko Errep. Dem., Tanzania eta Saharako herriarentzat egin diren jarduketak, azken hirurak Afrikan, jakina.

Zerrenda hori abiapuntu harturik, eta azken urteotan nafar lankidetzak haietan izan duen bilakaera eta beren egoera Giza Garapenaren aldean

kontuan hartuta, haietako 10 lehenetsitako herrialdeak dira, hauek zehazki:

1. Hego Amerika: Bolivia, Ekuador eta Peru.ú

2. África: Saharako herria, Kongoko Errepublika Demokratikoa eta TanzaniaEl Pueblo Saharaui, la R.D. del Congo y Tanzania.

3. Centroamérica: El Salvador, Guatemala eta Nikaraguay Nicaragua..

4. Oriente Próximo: Palestinako LurraldeakTerritorios Palestinos.

Helburu estrategikoak:

D.1.1. Nafar GNLren* eragina herrialde horietan handitzea, eta bereziki Giza Garapen apalena duten beren eskualdeetan.

D.1.2. Herrialde horiekin harreman instituzionalak eta sozialak sakontzea.

Hona hemen helburu horiek lortzeko aurreikusita dauden ekintza estrategikoak:

D.1.1.a Berariazko programak herrialdeen arabera egitea.

D.1.1.b Jarduketak pixkana Estatu barnean lehenetsitako eskualdeetan identifikatu eta metatzea.

D.1.1.c Eragin handiko toki garapenerako eta, hala bada, programa sektorialak, osoko programak egin daitezela sustatzea,lanabes egokien bitartez.

D.1.2.a Nafarroako GNLko* eragileen eta herrialde horietako eragileen arteko elkar ezagutza sustatzea, egun batean itunak eta sareak sortu eta sendotzea sustatzeko.

D.2. Gutxien Aurreratutako Herrialdeen* edo Giza Garapenaren Adierazle* apala dutenen aldeko lehentasunak

Zortzigarren Milurtekoko Helburuan helmuga da Gutxien Aurreratutako Herrialdeen premia bereziei harrera egin beharra. Alde horretatik, herrialde batzuen Giza Garapenaren Adierazlea Giza Garapen Apaleko taldean dago. Bada, horiek Lehenetsitako Herrialdeak dira.

Gauzak horrela, Plan Zuzentzaile honen asmoa da datozen lau urteotan Gutxien Aurreratutako Herrialdeekin eta Giza Garapenaren Adierazlea apala dutenekin aurrera jotzea, eta bereziki Nafarroako GNL* herrialde horietan handiagoa izan dadin; berriro herrialde horien zerrendatik abi-

(27) Ikus 1.kapitulua, 1.2 atala

atuta, eta Nafarroako Gobernuak haietan finantzatutako lankidetzaren bilakaera kontuan hartuta, hauek dira **herrialde bereziak**: Uganda, Nigeria, Kenya, Malí, Mozambique, Etiopia.

Helburu estrategikoak:

D.2.1. Nafarroako GLO* herrialde horietan pixkana handitzea.

D.2.2. Herrialde horietan egiten diren jarduketek eragin handiagoko ekintzetara bideratzea.

Hona hemen horri lotutako jarduketa-estrategiak:

D.2.1.a Lanabesetan herrialde horien aldeko diskriminazio positiboa ezartzea.

D.2.2.a Nafarroako GNL* Espainiako Lankidetzaren VITA Programan indartzea.

D.2.2.b Toki bazkide egokien identifikazioa herrialde horietan sustatzea.

D.3. Etorkinen jatorri herrialdeak lankidetzan sartu eta indartzea

Azken urteotan, aldaketa gertatu da Nafarroan etorkinen mugimenduari* lotuta. Gero eta mugimendu handiagoa da, gainera. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lan Sailak egindako azterlanaren arabera, bi prozesu horien arteko loturak agerian jarri du inmigrazioa aldaketa eragile nabarmena dela Nafarroarentzat demografiari, ekonomiari, enpleguari eta etxebizitzari begira.

Beraz, kontuan hartuta etorkinak gero eta gehiago direla, eta gero eta garrantzitsuagoak,

Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzak aintzat hartzen du Nafarroan bizi diren etorkinen jatorria. Horrela, baterako garapena kontzeptuari men eginez (elkarrekiko onurak herrialde jasotzaile eta igortzaileentzat), nafar lankidetzak bere asmoa agertzen du Foru Komunitatean biztanle gehien dituzten herrialdeetan jarduketa indartzeko.

Nafarroan erroldatutako etorkinen % 60 inguru lau nazionalitatez osatua dago. Horrela, ekuatortarra (% 30), kolonbiarra (% 12), marokoarra (% 12) eta aljeriarra (% 7). Baina, kontuan hartu behar da Nafarroak ez duela ia GNLRik* azken bi talde horiekin. Hortaz, egokiago irizten zaio jarduketa bereizteari: batetik, Nafarroako GNL* Marokora eta Aljeriara bideratzea, bereziki Azahar Programa bezalako mekanismoen bidez. Bestetik, lokarriak sendotu behar dira Ekuador eta Kolonbiarekin, bereziki Nafarroan bizi diren etorkinen eskualdeekin.

Helburu estrategikoak:

D.3.1. Nafar GNL* Nafarroan bizi diren etorkinen jatorri eskualdeetan sendotzea.

Hona hemen horri lotutako jarduketa-estrategiak:

D.3.1.a Nafar GNLRen* eragileekin eta etorkinekin nahiz beren elkarrekin jarduketa-estrategia partehartzaileak definitzea, etorkinen jatorri eskualdeetarako.

D.3.1.b Pixkana aipatu eskualdeekiko elkarlanari lehentasuna ematea.

LEHENTASUN GEOGRAFIKOEN LABURPENA

Lehenetsitako herrialdeak	Herrialde bereziak	Indartu beharreko herrialdeak (eskualdeak)
Bolivia, Ekuador (1) eta Peru Saharako herria, Kongoko Errep. Dem. eta Tanzania El Salvador, Guatemala eta Nikaragua, Palestinako Lurraldeak	Etiopia, Kenya, Mali, Mozambike, Nigeria, eta Uganda,	Ekuador (1) eta Kolonbia Aljeria eta Maroko




(1) Ekuadorrek bi alde ditu: batefik, lehenetsitako herrialdea da lotura historikoaren arabera eta, bestetik, Nafarroan bizi diren etorkinen aunitzen jatorria da. Beraz, helburua da Nafarroako Gobernuaren diruekin lankideiza jatorri eskualdeetarantz berbidatzea.

Banaketa Geografikoa


Eralialdeko Amerika

Hego Amerika

Afrika



3.3. NAFAR LANKIDETZAREN I. PLAN ZUZENDARIAREN HELBURUAREN ETA ESTRATEGIA-ILDOEN LABURPENA



4. KAPITULUA: GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO ERAGILEAK NAFARROAN

4.1. SARRERA

Garapenaren aldeko Lankidetzaren Deszentralizatua gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari da herritarren gobernu eta nazioarteko erakundeekin batera antolatuzko garaian; esaterako, Europako Batzordeak, uztailaren 17ko 1659/1998 zenbakiko arautegian, adierazi zuen Garapenaren aldeko Lankidetzaren Deszentralizatua Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko ikuspegi berria dela, eta, hartan, besteak beste, eragileak erdigunean bertan kokatzen direla. Eragileak erdigunean egon behar dutela aintzat hartuz, Plan zuzentzaile honek kapitulu bat eskaini du Nafarroako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako eragileen egitura aurkezteko.

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 19. artikulua azaltzen du honako hauek direla Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako eragileak Nafarroan ⁽²⁸⁾:

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa.

2. Nafarroako toki administrazioak.

3. Gobernu kanpoko erakundeak, hau da, lege eratuak entitate pribatuak, irabazi asmorik gabek eta bere helburuen artean edo berariazko xede gisa -beraien estatutuarekin edo horren balio den dokumentuan hala ezarrita- garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako jardura eremuekin lotutako ekintzak -foru lege honen seigarren artikuluan aipatu direnak- gauzatzea badute.

4. Entitate eta pertsona juridikoak, beraien berariazko helburuen azken xedea garapenaren aldeko lankidetzaren izaki, nahiz eta irabazi asmorik izan dezakeen.

5. Tokiko talde edo erkideak eta herrialde pobretuetako erakundeak.

Eragileak erdigunean kokatzen dira, baina ez soilik alde aurretik zehaztutako politika bat inplementatzeko baliagarriak direlako. Giza Garapena kontzeptuarekin bat, pertsonen eta eragile sozialen ahalmenak handitzea ez da bakarrik alde aurretik finkatutako helburu bat lortzeko bitartekoa, baizik eta, askatasuna ahalbidetzen duenez, garapenaren helburua bera ere bada.

Bestalde, aipatutako legearen 10. artikulua ezartzen du Nafarroako Garapenaren Aldeko Kontseilua "Garapenaren aldeko lankidetzaren eragileak koordinatu eta parte-hartzeko premiaren erakusgarri" dela, eta "Foru Komunitateko administrazioaren kontsulta organo kolegiatu" ⁽²⁹⁾. Gainera, ezartzen du gizarte sektore hauek dutela eskubidea hartan parte-hartzeko: "Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa, Nafarroako Parlamentuko taldeak (Foru Parlamentuko kide ez diren ordezkarien bidez beti ere), Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroan dauden unibertsitateak, ordezkari handiena duten Foru Komunitateko sindikatuak eta enpresa elkarteak eta Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzako gobernu kanpoko erakundeak" (11. artikulua).

Maiatzaren 13ko 100/2002 Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua osoko bilkuran eta lan batzordeetan arituko da. Alde horretatik, egokituz jotzen da plan hau gauzatzeko aldi osoko bilkura indartzea, Nafarroako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako eztabaidagune gisa eta batzordeak (eztabaidarako aurretiazko organo diren neurrian) lanean jarduteko toki gisa. Halaber, Plan Zuzentzailearen jardueren segimendua egiteko ere leku apropostat hartzen da.

Orain arte azaldutakoarekin bat, Nafarroan garapenaren aldeko **lankidetzako eragileak** honako ezaugarri hauek izanen dituzte:

1. Lankidetzaren xede diren tokietako gizarte talde eta erakundeekin harremanetan jarri ahal izanen dute Nafarroako gizarte, inguruan dinamika sozial esanguratsuak sortzeko.

2. Nafarroako beste eragile batzuk (enpresak, gizarte-mugimenduak eta ikastetxeak, besteak beste) inplikatuzko egiazko ahalmena izanen dute.

3. Nafarroan halako gizarte-inguru bat izanen dute non harreman-sareak baliatu ahal izanen diren garapenaren aldeko herritarren kontzientzia, gizarte-mobilizazioa edota hezkuntza bultzatzeko.

4. Garapenaren aldeko lankidetzako politika publikoei zilegitasuna eta gizarte babesa emateko lan egiteko gaitasuna izanen dute.

5. Garapenari eta lankidetzari beren balio erantsia eskaini ahal izanen diote.

⁽²⁸⁾ Aipatutako legearen 20. artikuluan ezartzen dira eragile guztiak parte-hartzeko bete behar dituzten baldintzak.

⁽²⁹⁾ Haren garapen-erregelamendua maiatzaren 13ko 100/2002 Foru Dekretuaren bidez egin zen. Dekretu horrek Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua garatzen du.

4.2. GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO ERAGILEAK NAFARROAN

Nafarroan Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako eragile nagusi direnen eginkizuna deskribatzen da kapitulu honetan, eta bakoitzaren esku-hartzeko moduaren ezaugarri garrantzitsuenak nabarmentzen dira. Hasteko, tokian tokiko bazkideen eginkizunari heltzen zaio, eta, modu horretan, garapenerako prozesu endogenoetako protagonista direla aitortzen da. Hain zuzen ere, Nafarroako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako gainerako eragileak prozesu horiei laguntzen ari dira.

4.2.1. Eragileak, laguntza jasotzen duten herrialdeetan

Lankidetzaren (elkarrekin lan egitea) nahitaezko helburua da, ikuspegi eta balio komunak izanik, laguntza jasotzen duten herrietako erakundeak indartzea eta horien buru diren gizon eta emakumeek botere-hartzea, eragile nafarrak indartzearen osagarri.

Ildo horretatik, tokian tokiko bazkideak, hau da, gizarte zibileko erakundeak, erakunde publikoak edota enpresa mundukoak dira Plan Zuzentzaile honetako protagonistak. Horiek "hartzaile" gisa ikusetik parte-hartzaile erabakigarri eta autogestionatu gisa ikustera igaro behar dugu. Hala, subjektu dira beren ekintzak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzeko.

Ikuspegi horretatik abiatu, koordinatuki eta helburu berbera izanik jarduten duten gizarte-sare eta federazioak antolatzea sustatuko da. Gainera, kudeaketa hobetzearen bidez erakundeak indartzea bilatuko da, halako moduz non esku-hartzearen kalitatea eta geroko garapena bermatuko baitira, hein handi batean.

Plan honetarako, tokian tokiko eragiletzat hartuko dira garapenerako eginkizun argia duten elkarte eta erakunde publiko nahiz pribatuak oro:

- Tokian tokiko administrazioak, gobernuen herrialdeko, eskualdeko zein udaletako eragileak eta tokian tokiko enpresa publiko nahiz mistoak, besteak beste.

- Herri-egiturak, zerbitzu berbera helburu izanik antolatu direnak: herri, ur eta hezkuntza batzordeak, kooperatibak, eta abar.

- Autoantolatzeak gai diren oinarrizko elkarte eta erakundeak (populatuzaile-elkarteak, nekazaritza elkarteak...).

- Federazio sare nahiz egiturak: erakunde sindikalak, giza eskubideen aldeko elkarteak, ikastetxeek osatutako sareak, eta abar.

- Komunitate edo mikroenpresa izaera duten egoizle elkarteak.

- Finantza etiko eta elkartasunezkoak sustatzen dituzten elkarteak.

- Beste hainbat gizarte erakunde, herritarrei honelako zerbitzuak ematen dizkietenak: osasuna, hezkuntza, giza eskubideen defentsa, prestakuntza eta ikerketa, birgaitzea, eta abar.

4.2.2. Nafarroako Administrazio Publikoak

A) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa

Garapenerako aldeko Lankidetzari buruzko marraztearen 9ko 5/2001 Foru Legearen 8. artikulua dioenez, "Departamentu eskudunak (30), Nafarroako Gobernuaren jarraibideekin bat, lankidetzako politika hori programatu eta gauzatu du, Nafarroako Garapenerako aldeko Kontseilua lagun duela, foru lege honetako 10-12 artikuluek xedatzen duten moduan". Horretarako, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak badu berariazko unitate administratibo bat, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Zerbitzua. Plan Zuzentzaile honen ekimen eta bitartekoak kudeatzeko ardura du, Nafarroako Foru Komunitatean, baita Administrazio honetako beste Departamentu batzuekin hobeki koordinatzeko erantzukizuna ere.

Ildo horretatik, eta Nafarroako garapenerako aldeko lankidetzako hobetzea xede, egokitzen jotzen da teknikari eta giza taldea sendotzea, betiere bitartekoak, aurrekontuak eta haren aniztasuna eta konplexutasuna aintzat harturik.

Bestalde, onartzen da Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan Nafarroako Gobernuaren beste Departamentu batzuek edota haren organismo autonomo zein sozietate publikoek badutela zereginik, zehatzago, garapenerako aldeko eragileak askotan abiatzen ari diren deszentralizazio prozesuak indartzeko. Nolanahi ere, zuzenean egiten dituzten garapenerako jarduerak gardentasunez egingen dira, Plan Zuzentzaile honekin eta Garapenerako aldeko Lankidetzari buruzko Foru Legearekin bat.

Azkenik, Nafarroako Garapenerako aldeko Kontseilua departamentuen arteko koordinazioarako leku egokia dela jotzen da, eta eginkizun hori sendotu egin behar da.

(30) Orain arte, eskumen hau Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari egokitu zaio.

B) Nafarroako toki administrazioak

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko Foru Legearen arabera, Nafarroako toki entitateek egokitzat jotzen dituzten jarduerak gauzatu ahal izanen dituzte (eta hala egiten dute), aipatutako Legeak ezarritako printzipio gidariak, lehentasunak eta garapenerako lankidetzako xedeak onartuta.

Hortaz, estrategien eta eraginen koordinazioa errazte aldera, Plan Zuzentzaile honek adierazten du beharrezkoa dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta toki administrazioen arteko elkarlanerako ekimenak bultzatzea, informazioa eta aholkularitza trukatzeari dagokionez batez ere, betiere udal autonomia errespetatuta.

Beste alde batetik, eta administrazioen arteko koordinazio eta elkarlanerako xede bera harturik, Plan Zuzentzaile honek Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren Lankidetzaren Fondoaren eginkizuna aitortzen du, udalen garapenaren aldeko lankidetzaren sinergiak batzeko, bai garapenbidean dauden herrialdeetan bai Nafarroan bertan.

4.2.3. Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko Foru Legeak, 19. artikuluan, honela definitzen ditu Gobernu Kanpoko Erakundeak: "legez eraturako entitate pribatuak, irabazi asmorik gabek eta bere helburuen artean edo berariazko xede gisa -beraien estatutuetan edo horren baliokide den dokumentuan hala ezarrita- garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako jardura eremuarekin lotutako ekintzak -foru lege honen seigarren artikuluan aipatu direnak- gauzatzea badute" (31).

Espainiako Lankidetzarako Plan Zuzentzaileak berak adierazten du GGKEek berebiziko garrantzia dutela, gizartearen parte-hartzerako bidea baitira, bai zuzenean Hegoaldeko herriekin eta hango gizarte-erakundeekin lan egiteagatik bai Hegoaldeko errealtatea komunikatzeko eta hedatzeko duten ahalmenarengatik. Beraz, Garapenerako Hezkuntzarako eta Sentsibilizaziorako gaitasuna dute, baita garapenaren aldeko lankidetzako proposamenak diseinatze ere.

Nafarroan garapenaren aldeko lankidetzak izan duen historian, GGKEek berebiziko parte-hartzea izan dute, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Horren ondorioz, garapenaren aldeko lankidetzara

rako politika publikoa asko sustraitu da gizartean, eta Nafarroa eta beste gizarte askoren arteko harreman-sare handia sortu da.

Nafarroako gobernu kanpoko Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eginkizuna aitortzeko beharrezkoa da haren dimentsioa eta egitura aintzat hartzea: GGKE kopurua, horien tamaina, gizarte-xedeak, eta abar.

Sektore honetan kontuan hartu behar da Nafarroako Garapen Lankidetzarako GGKEen Koordinakundeak duen eginkizun garrantzitsua. Bertan izatera askotako erakundeak elkartzen dira, xede honekin: garapena bultzatzea, pobrezia aurka borrokatuz, Hegoaldeko jende eta GGKEekin elkarlanean, gaur egungo nazioarteko egitura sozial, politiko eta ekonomikoak eraldatzeko. Halaber, erakundeak indartzen ditu Nafarroan, zeren gizarte-sarea sortu eta GGKEak bultzatzen baititu, prestakuntzari, komunikazioari eta beste eragile batzuekiko elkarrizketari dagokienez.

4.2.4. Beste eragile batzuk

Garapenaren aldeko lankidetzako beste eragile batzuk hurbiltzearen beharra ikusten dugu, eta, halakorik egin den kasuetan, aurrera egin beharra da. Enpresa txiki eta ertain, unibertsitate eta sindikatuen arteko lankidetzaren sustatu behar da, aholkularitza teknikoko, prestakuntzako eta ikerketako programak gauzatzeko eta erakundeak sendotzeko, bai Nafarroan bai laguntza jasotzen duten herrialdeetan, halako moduz non hiru sektoreen (publikoa, pribatua eta soziala) ahaleginak antolatzea bilatuko den, garapenerako helburuak lortze aldera. Azken helburua hauxe izanen da: hazkunde ekonomiko eta sozial iraunkor eta bidezkoa sustatzea, ondasunak modu zuzenean birbanatzeko irizpidea gidari izanik.

A) Unibertsitateak

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren gero eta garrantzia handiagoa du unibertsitateak, zeren gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio ikasteko aukerari eta giza baliabideen prestakuntza eta espezializazioari, garapen-prozesuen funtsezko zati diren aldetik (32). Ildo horretatik, nazioarteko erakundeek eta Espainiako Lankidetzarako Plan Zuzentzaileak adierazten dute unibertsitatea eremu ezin hobea dela Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren, bi funtsezko ikuspuntutatik:

(31) Zehazki, 1. kapituluaren (1.2 atala) azaldu denez, izaera juridiko propioa izanik GGKE kategorian sartu diren entitateak elkarte zibilak, foru-araubideko nahiz araubide komuneko fundazioak eta erlijio-entitateak izan dira.

(32) Unceta, K. (2004): *Análisis del papel de las Universidades en la Estrategia general de la Cooperación al Desarrollo*.

1. Kualifikazio handiko giza eta teknika baliabi-deak dituen erakundea da. Ezagutzaren eremu guztiak hartzen ditu, baita garapenerako lankidetzarekin lotutako prestakuntza profesional eta teknikoa ere. Izan ere, garapenerako lankidetzako hainbat alderdi egon daitezke unibertsitate-titulazioetan.

2. Biztanleriaren zati esanguratsu baten sentsibilizatorako gune interesgarria da. Bertan elkartasuneko balio unibertsalak bultzatzen ahal dira, etorkizunean eginkizun sozial garrantzitsua jokatuko duten gazteen artean.

Orain arte elkarlan hitzarmena izan dugu Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, eta haren bidez hainbat ekimen gauzatu dira. Plan Zuzentzaile honen helburua ekimen horiek mantentzea eta horietan aurrera egitea da. Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazioa, prestakuntza eta unibertsitateak zuzenean egiten duen garapenerako lankidetzak izan dira jorratu diren gaiak. Bestalde, Nafarroako Unibertsitatea Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak sustatzen betetzen ari den lana aitortu nahi dugu Plan Zuzentzaile honetan. Harekin elkarlanean ari diren GGKEen bidez egiten ari da lan hori, eta horrek bere horretan jarraituko du. Horren guztiaren lagungarri, Plan honetan GGKEekin elkarlanean aritzeko hainbat lanabes aurreikusten dira.

B) Sindikatuak

Azken hamarkada honetan, Espainiako erakunde sindikalek gogotik eta iraunkorki egin dute lan garapenari lagutzeko. Nafarroan, erakunde sindikalek berek eratutako GGKEen bidez bete dute eginkizun hori.

Produktzioaren moldaketa eta berregituraketak gogor eragin dute hainbat tokitan, eta eragile sozialen arteko harremanak arautzeko moduetan ondorioak izan dituzte, bereziki lan munduko oinarritzako arau eta erakundeetan. Beraz, toki horietan lanerako dauden aukeretan jartzen dute arreta sindikatuak. Lan eta sindikatu eskubideak –lan duina izateko exigentzia- defendatzen eta sustatzen dituzte, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak lortzeko funtsezko oinarri diren aldetik.

Aldi berean, sindikatuak Espainiako eta nazioarteko erakundeetan parte-hartzen dute, eta horietan indartsuago eragin dezakete nazioarteko komunitateak politika aktiboagoa egin dezan Hegoaldeko herrien alde. Erakunde sindikalek (Lanaren Nazioarteko Erakundeak ezartzen duen hiru alderdietako eztabaidarako eragile izanik) eskatzen dute nazioarteko komunitateak demokrazia finkatzeko prozesuetan zeregin garrantzitsua

izatea, behar-beharrezkoa baita giza garapena sustatzeko.

Bukatzeko, hiritarren sentsibilizatorako eragile garrantzitsu bihurtzeko daitezke sindikatuak, beren bazkideen artean eta lantokietan kontzientziazio lanak betetz.

Hortaz, sindikatuen ekimenez eratutako GGKEek beren lanean jarraitzearen aldekoa da Plan Zuzentzaile hau, garapenerako gobernu kanpoko lankidetzaren testuinguru orokorrean, eta sindikatuak garapenerako lankidetzak sustatzeko helburu argia du. Horretarako hainbat jarduerari hasiera emanen zaio.

C) Enpresa sektorea

GGKEak eta administrazioak erabat inplikaturik daude garapenaren aldeko lankidetzarako sistemetan, baina, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da garapenaren sustapenari lotutako beste eragile batzuk gero eta gehiago inplikatzeko. Horrela esku-hartzeak eraginkorrak izanen dira. Ildo horretan (eta kontuan harturik gauza onartua dela Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak garapen ekonomikoa bultzatu behar duela), OCDE (Ekonomiak Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea) erakundearen Garapenerako Laguntza Batzordeak berak adierazten du garapen-bidean dauden herrialdeek aurrera egiteko sektore pribatua zabaldu egin behar dela, eragile izan dadin.

Tradizioz, orokorki, enpresa pribatuak hainbat modutan hartzen du parte lankidetzak prozesuetan:

- ondasunak eta zerbitzuak hornituz.
- gai jakin batzuei merkataritza-beherapenak eginez.
- gizarte-erakunde nahiz GGKEetara baliabideak bideratuz.
- aholkularitza teknikoko proiektuetan zein sare ekonomikoa sortzeko nahiz sendotzeko proiektuetan kudeatzaile lanak betetz.

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak onartzen du irabazi asmoa duten entitate eta pertsona juridikoek Nafarroako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan parte-hartzen ahal dutela, baina oso ongi berezi behar direla horien irabazi asmoa duten eta ez duten jarduerak. Gainera, arreta izan behar da irabazi zuzen nahiz zeharkakorik izan ez dezaten.

Elkartasunerako ekonomiako enpresek Gizarte Erantzukizun Korporatiboa dute funtsezko ardatzetako bat, eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak dago haien printzipioen artean. Beste alde batetik, ohiko ekonomiako enpresek gizartearekiko

beren konpromisoa finkatu dute azkeneko urteetan, bai Iparraldean bai Hegoaldean, Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren bidez. Kontzeptu horrekin hauxe adierazi nahi da: enpresaren jokabidea erregulatzen duen araua edo arau-multzoa, enpresaren jarduera kokaturik dagoen inguruarekin lotuta. Gai honi dagokionez, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak (CEN) uste du enpresek garapenerako lankidetzarako egiten dituzten ekarpenak Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren baitan kokatu behar direla, eta haren printzipioetan oinarritu, modu horretan "jokabide sozialki ardurtsua" sustatuz.

Bukatzeko, eta garapen-bidean dauden herrialdeek adierazitako beharrak eta Nafarroako enpresen sarearen ezaugarriak aintzat hartuz, garrantzia berezia emanen zaio Nafarroako enpresa txiki, ertain eta handien eta garapen-bidean dauden herrialdeetako enpresen arteko loturari, baita enpresen elkarre mugimendua bultzatzeari ere. Hartarako, enpresen elkarrekin harreman estuan eginen da lan.

D) Beste eragile batzuk

Halaber, nabarmentzeko modukoa da beste erakunde askok egiten duten lana, hainbat arlotan: osasuna, hezkuntza formal eta ez-formala, ikerketa, prestakuntza, aholkularitza eta segimendua, eta abar. Aintzat hartzekoak dira, elkartasun eta garapen balioak sustatzeko jarduerak inplementatzeko aldera. Eragileak dira ikastetxe publiko eta pribatuetan, aisialdiko elkarrekin (hezkuntza-lan eraldatzailea egiten baitute), ikerketa-institutuetan eta aholkularitza-guneetan zein garapenaren alde-

ko lankidetzan kalitatea hobetzea sustatzen duten beste erakunde batzuetan.

4.3. NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO BESTE ERAGILE BATZUEKIKO HARREMANAK

Administrazioen arteko koordinazioa eta osagarritasuna beharrezkoak direnez, Plan Zuzentzaile honek adierazten du Espainiako garapenaren aldeko lankidetzak mugimenduekin harreman iraunkorra mantentzea garrantzitsua dela, eta horretarako legez aurreikusita dauden bideak erabili behar direla (Lurralde arteko Batzordean eta bertako lan-taldeetan parte-hartzea, Nazioarteko Lankidetzarako Urteko Planen (PACI) testuinguruan informazioa trukatzeko, Batzorde Mistoak prestatzeko bileretan egotea eta VITA eta AZAHAR bezalako garapenerako lankidetzako berriazko programetan parte-hartzea).

Era berean, garrantzitsua da gainerako erkidegoetako administrazioekin elkarlana izatea, bereziki informazioa trukatzeko eta sinergiak bilatzeko.

Nafarroako Gobernuak nazioarteko organismoekin eztabaida, elkarlana eta antolaketa izatea oniritzen du. Ildo horretatik, bere helburua da garapenerako lankidetzako organismo multilateralekin harremanak izaten hastea, Nafarroako Gobernuak gauzatzen ari den plan eta programekin baterako antolaketa bilatuz, bai zuzenean bai beste eragile batzuen bidez. Arreta berezia jarriko zaio Europar Batasunarekiko harremanari: Nafarroarentzat interesgarri diren programa eta ekintzetan elkarlanean aritzea bilatuko da.

5. KAPITULUA: GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO LANABES ETA MODALITATEAK

5.1. SARRERA

Administrazio Publikoak duen sustatzeko bete-beharra dela eta sortu da Nafarroako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, eta, horren ondorioz, jarduteko modalitate ia bakarra honako hau izan da: Nafarroan kokatutako GGKEek haien herrialde hartzaileetako tokian tokiko bazkideekin batera sustatutako proiektuak diruz laguntzea, baterako finantzaketa erregimenean. Baina Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak esku-hartzeko beste modu batzuk ere aurreikusten ditu, esaterako proiektu zein programa propioak finantzatzeko helburua duten funts publikoak erabiltzearen aukerak. Beste alde batetik, aipatutako Foru Legeak 13. artikuluan Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzako ekintza-eremuak ezartzen ditu; hona hemen:

1. Garapenerako programa eta proiektuak.
 2. Laguntza humanitarioko programak eta proiektuak.
 3. Iritzi publikoarentzako eta Nafarroako gizarte-arentzako hezkuntza eta sentsibilizazio programak eta proiektuak.
 4. Pobretzearen egiazko zergatiak eta konponbideak azaltzeko parte-hartzea eta konpromiso aktiboa izatea, eta botere publikoei eskaera egitea, Hegoaldeko herrialdeen etengabeko garapena lortzeko neurri eraginkorrak har ditzaten.
 5. Bidezko merkataritza eta herrialde pobretuen kanpo zorra ezabatzea helburu duten ekintzak.
- Azkeneko deialdiak aztertu ondoren, Nafarroako Garapenerako Laguntza Ofizialaren banaketan gehiegizko sakabanaketa dagoela atzeman da. Horretaz gain, planteatutako estrategia-ildoak eta helburuei lanabes aproposak egokitu behar zaizkie. Horregatik, Plan Zuzentzaile honek gaur egungo lanabesak birlandu, 5/2001 Foru Legeak ezarritakoa aintzat hartu eta Nazioarteko Lankidetzarako Agentzia Espainiarrak sustatutako beste lanabes batzuetan aurrera egiten du, halako moduz non orokorrean lankidetzak malguago eta eraginkorragoa ahalbidetuko baita, epe luzean eragin handiagoa lortze aldera.

Kapitulu honetan azaltzen diren lanabesak urteroko dirulaguntzen inguruan antolatzen dira; horietan zehazki adierazten dira lanabes horietara jotzeko behar diren ezaugarriak eta baldintzak. Hala ere, Nafarroako Gobernuak, salbuespen gisa, beretzat gordetzen du bere kabuz jarduteko

aukera, bai autonomoki bai beste eragile batzuekin elkarlanean, baldin eta Plan Zuzentzaile honetako printzipio, helburu eta estrategia-ildoekin bat egiten badute. Lanabes guztiak indarrean egonen dira Plan hau indarrean sartzearekin batera, baina Plana lau urteetan gauzatuko da eta lanabesak pixkanaka aplikatuko dira, abiapuntuko egoerara eta jarritako helburuetara moldatzeko. Plan honen ebaluazioari dagokion kapituluan (7. kapitulu) aurrerapen hauek ageri dira, portzentajeetan. Kontentsazio irizpidea erabiltzen da, hau da, portzentajeak lanabes "sendoeneren" maximoetarantz hazten diren heinean, "orokorrak" diren tresnetan portzentajeak minimoetarantz joko dute.

Jarduera-modalitateen arabera taldekatzen dira lanabesak, eta horietako bakoitzak behar desberdinei erantzuten diete, ondoko eskemarekin bat:

A) Garapenaren aldeko Lankidetzak (zentzu mugatuan): hau da, garapen-bidean dauden herrialdeetako jarduerak finantzatzeko lanabesak dira:

- A.1. Mikroekintzak.
- A.2. Garapenerako proiektuak.
- A.3. Garapenerako programak.

B) Garapenerako Hezkuntza (zentzu zabalean). Hau da, gure gizartearen egiten diren jardueretarako lanabesak dira:

- B.1. Sentsibilizazio ekintzak eta kanpainak.
- B.2. Garapenerako Hezkuntzako Proiektuak zein Programak.

C) Aholkularitza teknikoak, prestakuntza eta ikerketa. Berritasun gisa sartu dira Plan honetan, baina aurretik ere noizean behin egindako zenbait jarduera jasotzen dituzte:

- C.1. Aholkularitza teknikoko proiektuak elkarlanean xede diren herrialdeetan.
- C.2. Prestakuntza, ikerketa eta erakunde-sentdotzeko proiektuak Nafarroan.

D) Ekintza humanitaria. Modalitate honetan lanabesa bakarra dago, eta honelako esku-hartzeetan behar bezain azkar erantzuteko moduan diseinatu da:

- D.1. Ekintza humanitarioko proiektuak.

E) Lanabes berria. Plan honetako beste berritasun bat da, eta aurreko modalitateetan batera jardutea du helburu (ekintza humanitarioaren kasuan izan ezik).

- E.1. Estrategia mistoak.

Azkenik, nabarmentzekoa da inongo entitatek ezin duela berak bakarrik kudeatu, urtero, Nafarro-

ako Gobernuaren Garapenerako Laguntza Ofizialerako aurreikusi diren funtsen % 10 baino gehiago.

5.2. MODALITATEAK ETA HORIEN LANABESAK

A) GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZA

Izenburu honekin herrialde hartzaileetan egiten diren esku-hartzeak biltzen dira. Hiru lanabes diseinatu dira, bakoitza aurrekoa baino konplexuagoa eta kontzentratuagoa, eta denak ere GGKE-entzako dirulaguntza dira.

Nafarroako Gobernuak esku-hartze horiek guztiak finantzatzen lagunduko du, kostuaren % 80 arte gehienez ere, eta gainerakoa beste iturri publiko nahiz pribatuen bidez finantzatuko da.

A.1. Mikroekintzak

Lanabes sinpleena da, eta geografari dagokionez irekiena. Esku-hartze txikietarako finantza beharrei erantzuten saiatuko da, zehazki honako hauetarako:

A) Garapenaren aldeko proiektu batean txertatuko diren ekipamendu-ondasunetan edo bestelakoetan inbertsioa egitea.

B) Proiektu txikiak egitea, zeinak argi eta garbi bereziko baitira proiektu handiagoetatik, denbora eta ekonomia arrazoiengatik.

Lanabes honen kudeaketaren ezaugarriak hauek dira:

1. Izaera orokorreko lanabesa da; beraz, ez da mugatzen lehenetsi diren eremu geografikoetara.

2. Diru-laguntza emateko deialdia urtero egiten da, eta urteroko diru-kopuru guztizkoaren % 5eko diru-hornidura izanen du gehienez ere.

3. Lehenbiziko urterako 25.000 euro eskatu ahal izanen dira gehienez, eta Planaren urteroko berraztertzeetan gehienezko diru-kopuruan gehikuntzak ezarri ahal izanen dira, urteko KPIren gehikuntza erreferentziazat hartuz.

4. Nafarroako Gobernuak mikroekintzaren aurrekontuaren guztizkoaren % 80 finantzatu ahal izanen du gehienez ere. Onespenak esan nahiko du eskaeraren guztizkoari baiezkota eman zaiola, mikroekintzen egokitasunaren arabera, lanabes honetarako urteroko deialdiaren oinarrietan ezarri diren diru-funtsak agortu arte. Behar bezainbesteko krediturik ez badago lehentasunak ezarriko dira, herrialde hartzaileak zein diren kontuan hartuz (Giza Garapenaren Indizearen arabera) eta sektore-lehentasunei nola egokitzen zaizkien eta horren arabera.

A.2. Garapenerako proiektuak

Garapenerako proiektuek epe txiki eta ertaineko proiektuak finantzatzen dituzte, eta horiek nahitaez urteka definitu behar dituzte helburuak eta xede duten populazioa, nahiz eta zenbait urteko diseinu bateko zati izan daitezkeen. Aurreko lanabesaren kasuan bezala, izaera orokorreko modalitatea dugu hau, garapen-bidean dauden edozein herrialdetan aplikatzen ahal dena, baina kasu honetan, baremazioarako, Plan Zuzentzaile honen lehentasun geografikoak kontuan hartuko dira.

Hona hemen lanabes honen kudeaketaren ezaugarriak:

1. Diru-laguntza emateko deialdia urtero egiten da, eta urteroko dirulaguntza guztien % 25 eta % 40 arteko diru-hornidura izanen du.

2. 25.000 eta 120.000 euro artean eskatu ahal izanen dira bermerik aurkeztu gabe, eta 180.000 euro arte bermea (banku-abala edo ordenamendu juridikoan aurreikusitako beste edonolako bermea) aurkeztuta.

3. GGKE-elkarteek ezin izanen dute lanabes hau baliatu.

4. Nafarroako Gobernuak proiektuaren aurrekontuaren guztizkoaren % 80 finantzatu ahal izanen du gehienez ere. Dirulaguntzak onartuta aurrekontu-kreditua gaintitzen bada, onartutako dirulaguntzetarako portzentaje tarteak ezarriko dira, balorazioan lortutako puntuen arabera.

5. Balorazio hobea jasoko dute Giza Garapenaren Indize baxua duten herrialdeetan egindako esku-hartzeak, edo Plan Zuzentzaile honetan zehaztutako lehentasunei erantzuten dietenak, sektore mota eta eremu geografikoari dagokienez.

6. "Proiektuaren Zikloaren Kudeaketa" metodologia baliatuko da proiektuak kudeatzeko. Hura marko logikoaren ikuspegian oinarrituko da, eta hartan esku-hartzearen aldiak zehaztuko dira: arazoak identifikatzea parte-hartzearen bidez, gauzatzeta, segimendua eta ebaluazioa. Parte-hartzeak diren beste metodologia batzuk ere osagarri gisa erabil daitezke.

A.3. Garapenerako programak

Garapenerako programak epe ertain eta luzeko esku-hartzeak dira, eta jarraipen eta iraunkortasun handiagoko eraginak lortu nahi dituzte inplementatzen diren eskualdeetan. Urtebete baino gehiago gauzatzeta eskatzen dute (bizpahiru urte).

Lanabes mota honen ezaugarri nagusiak hauek dira:

1. Dirulaguntza emateko deialdia urtero egingen da, eta urteroko dirulaguntza guztien % 30 eta % 35 arteko diru-hornidura izanen du.

2. GGKEek eta GGKE-elkarteek⁽³³⁾ erabili ahal izanen dute lanabes hau, baldin eta behar bezala kudeatu izan badute proiektu kopuru jakin bat, eta programaren gaineko erabaki, segimendu eta kontrol ahalmena Nafarroan baldin badute⁽³⁴⁾.

3. Programa izaera duten esku-hartzeetarako 120.000 euroko diru-kopurua izanen da gutxienez, eta 240.000 eurokoa gehienez, betiere erakunde bakarrarentzat, eta 300.000 eurokoa gehienez erakundeen elkarte batentzat.

4. Esku-hartze guztiak Plan Zuzentzaile honetan lehenesten diren eremuetako herrialdeetan egin beharko dira (D.1 eta D.2n batez ere), eta Planean zehaztu diren hiru lehenbiziko lehentasunezko sektoreetatik (C.1, C.2, C.3) gutxienez bi barne hartu beharko dituzte, edo bat bakarra, baina kasu horretan eragin zabaleko esku-hartzea beharko du izan⁽³⁵⁾.

5. Herrialde hartzaileetan eragileak elkartzea positiboki baloratuko da.

6. Nafarroako Gobernuak proiektuaren aurrekontuaren gutzitzaoren % 80 finantzatu ahal izanen du gehienez ere. Programa onesteak esan nahiko du eskaeraren gutzitzaori baiezkoa eman zaiola, programaren egokitasunaren arabera, lanabes honetarako urteroko deialdiaren oinarrietan ezarri diren diru-funtsak agortu arte.

7. "Proiektuaren Zikloaren Kudeaketa" metodologia baliatuko da proiektuak kudeatzeko. Hura marko logikoaren ikuspegian oinarrituko da, eta hartan esku-hartzearen aldiak zehaztuko dira: arazoak identifikatzea parte-hartzearen bidez, gauzatzea, segimendua eta ebaluazioa. Parte-hartzeko-

ak diren beste metodologia batzuk ere osagarri gisa erabil daitezke.

8. Esku-hartzeetan derrigorrez izan beharko da identifikazio eta definizio fase bat, non populazio onuradunak parte hartu duela erakutsiko baita. Fase honek eskatzen dituen gastuak programaren aurrekontuan jasoko dira, eta Nafarroako Gobernuaren fondoekin finantzatu ahal izanen dira⁽³⁶⁾.

9. Gainera, programak gauzatu ondoren "ex post" ebaluazio bat (kanpotik egindakoa edo mistoa) egin beharko da, planifikazioan bertan zehaztuko dena.

B) GARAPENERAKO HEZKUNTZA ETA SENSIBILIZAZIOA

Kapitulu honetan jaso dira Nafarroako gizarte-ari zuzendutako sentsibilizaziorako eta Garapenerako Hezkuntzako esku-hartzeak. Lanabes honen subjektua edozein izan daiteke, eta GGKEei eta unibertsitateei emanen zaie lehentasuna. Nafarroako Gobernuak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren bidez, bi ekintza zehatz egingen jarraituko du: Elkartasunari Emandako "Nafarroa" Nazioarteko Saria eta "Joan, Begiratu, Parte Hartu eta Konta Iezaguzu" kanpaina.

B.1. Sentsibilizazio ekintzak eta kanpainak

Nafarroako gizarte, osotasunean edo sektore jakin bat, sentsibilizatzea⁽³⁷⁾ helburu duten ekintzak dira.

Hona hemen horien oinarritzko ezaugarriak:

1. Urtero egingen da dirulaguntza emateko deialdia, eta ekintzak edo kanpainak gehienez ere 12 hilabete iraunen du.

(33) GGKE-elkartetat hartuko da honako baldintza hauek betetzen dituena: bi GGKE edo gehiagok osatzea, baldin eta lanabes hau erabiltzeko baldintza orokorrak eta Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8. artikulua ezarritakoa betetzen badituzte.

(34) Araudi bidez definitu eta zehaztuko dira baldintza hauek bete izanaren adierazleak.

(35) Honako hau ulertzen da "eragin" hitzarekin: populazio batengan jarduera multzo batek lortzen duen ondorioa. Horrekin loturik, honelako faktoreak hartuko dira kontuan: a) jardueraren hedadura (onuradunen kopurua, betiere erabiliko diren metodologiek bermatzen badute zerbitzuak emate hutsetik egitura-osagaietarako iragaitea erraztuko dutela. b) Jardueraren sakontasuna: ea abiatzen diren prozesuek ahalmenik duten erakunde, arau eta balio kulturaletan aldaketak eragiteko, mekanismo biderkatzaileen bidez. c) Berrikuntza: garapenerako prozesuak irekiak izaten dira, bai populazio batek izan ditzakeen nahien konbinazioari dagokionez bai nahi horiek betetzeko erabiltzen diren bitartekoei dagokienez (beti testuinguru, kultura, eskura dauden giza eta material baliabide eta abarri egokituta). Metodologia berriak, instituzioen sinergiarako modu berriak eta abar oso baliagarriak izan daitezke aukera berriak eskaintzeko zuzeneko onuradunak ez diren beste talde zabalentzat. d) Esku-hartze maila desberdinen arteko elkarrekintza: globalizazioaren baitan, garapenerako prozesuen erronketako bat da egitura sozialeko maila desberdinetan gertatzen diren prozesuak sinergiaz elkar lotzea. Esaterako, talde edo komunitatean gertatzen diren emantzipazio prozesuak (mikro), eskualde mailan gertatzen direnak (meso) eta herrialdean eta nazioartean jazotzen direnak (makro) uztartu behar dira, pobretze dinamikei aurre egiteko, horiek ere elkarri lotuta baitaude.

(36) Kostu horiek programako zati bereiztezinak dira; hortaz, soilik programa onartzen bada finantzatuko ditu Nafarroako Gobernuak.

(37) Ikus 3. kapitulu, 3.2. epigrafea, C.4 atala.

2. GGKEetarako gehienez 25.000 euroko finantzaketa izanen da, eta 50.000 gehienez GGKE elkarteentzat.

3. Urteroko fondo guztien % 2 eta % 3 artekoa izanen da diru-kopurua.

4. Ekintza edo kanpaina beste eragile batzuekin batera gauzatzea positiboki baloratuko da.

5. Nafarroako Gobernuak proiektuaren gutzitza % 80 finantzatu ahal izanen du gehienez. Aurrekontu-kreditua gainditzen bada, portzentaje tarteak ezarriko dira, balorazioan lortutako puntuaren arabera.

B.2. Garapenerako Hezkuntzako Proiektuak eta Programak

Garapenerako Hezkuntza (zentzu mugatuan) hezkuntzako esku-hartzeak dira, eraldatzaileak, eta horien helburua kontzientzia kritikoa eta trebetasunak (berrikuntza, komunikazioa, eragin politikoa eta ikasketa) sortzea da. Hezkuntza formal zein ez-formalera zuzentzen dira. 3 urte arteko iraupena izan dezakete esku-hartze mota hauek.

Plan honek irauten dituen lau urteetan zehar lanabes hau bilakatu egingen da. Plana hasi eta handik bi urtera, Garapenerako Hezkuntzako proiektu guztiak (urtebeteko iraupena izanen dutenak) Garapenerako Hezkuntzako programa baten edo zenbaitzuen inguruan antolatuta egotea dugu helburu, kalitate eta eragin handiagoa duten programen inguruan, alegia. Programa horiek esku-hartzeko hainbat eremu barne hartuko dituzte, baina hezkuntza bereziki. Nafarroako Garapeneraren aldeko Kontseiluaren Garapenerako Hezkuntzako lan batzordeak gidatu eta adostuko du prozesu hau, eta derrigorrez zuzenean nahiz zeharka parte hartuko dute Hezkuntza Departamentuak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eta Nafarroako Garapen Lankidetzarako GKEen Koordinakundeak.

Plan Zuzentzaileko lehen fasean, urtebeteko proiektuen oinarritzko ezaugarriak hauek izanen dira:

1. Urtero egingen da dirulaguntza emateko deialdia, eta proiektuek 12 hilabete iraunen dute.

2. Proiektuko gehienez 60.000 euroko finantzaketa izanen da, erakunde bakarraren kasuan, eta 120.000 gehienez erakundeen elkarteentzat.

3. Lanabes honetarako diru-kopurua aurrekontu guztiaren % 2 eta % 3 artekoa izanen da.

4. Proiektua beste eragile batzuekin batera gauzatzea positiboki baloratuko da.

5. Nafarroako Gobernuak proiektuaren aurrekontuaren gutzitza % 80 finantzatu ahal izanen du gehienez ere. Programa onesteak esan nahiko du eskaera gutzitza baiezkoa eman zaiola, programaren egokitasunaren arabera, lanabes honetarako urteroko deialdiaren oinarrietan ezarri diren diru-funtsak agortu arte.

6. "Proiektuaren Zikloaren Kudeaketa" metodologia baliatuko da proiektuak kudeatzeko. Hura marko logikoaren ikuspegian oinarrituko da, eta hartan esku-hartzearen aldiak zehaztuko dira: arazoak identifikatzea parte-hartzearen bidez, gauzatzea, segimendua eta ebaluazioa. Parte-hartzeak diren beste metodologia batzuk ere osagarri gisa erabil daitezke.

Gorago aipatu diren programari edo programei dagokienez, horien ezaugarriak behar den garaian zehaztuko dira, Nafarroako Garapeneraren aldeko Kontseiluaren Garapenerako Hezkuntzako lan batzordearen eskutik.

C) AHOLKULARITZA TEKNIKOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA

Modalitate hau desberdina da GGKEek gauza-ohi duten Garapeneraren aldeko Lankidetzaren aldean (aholkularitza teknikoari dagokionez batez ere), baita Garapenerako Hezkuntzaren baitan orain arte egin izan diren ikerketa eta prestakuntza jardueren aldean ere. Komunitate antolakuntza eta ahalmenak sortzeko zehar-ildoarekin lotuta dago (Nafarroan egiten diren prestakuntza eta ikerketa jarduerak barne); beraz, edozein eragilek egin ditzakeen esku-hartzeak dira, esaterako, zuzenean Nafarroako Gobernuak, bere departamentu eta sozietate publikoen bidez, GGKEek, sindikatuak, enpresa txiki eta ertainak, edo horietako edozeinek Nafarroako Gobernuarekin itunduta. Nolanahi ere, derrigorrezkoa izanen da jarduera horiek gauzatuko dituzten eragileen gaitasuna eta espezialitatea egiaztatzea.

Bi lanabes aurreikusten dira: lehena, Garapenerako Laguntza Ofizialaren hartzaile diren herrialdeetarako Aholkularitza Teknikora zuzendua, eta, bigarrena, Nafarroako bertako prestakuntza eta ikerketara zuzendua.

Irabazi asmorik duten eragileen kasuan, argi eta garbi erakutsi beharko da horien erakunde-helburuen artean lankidetzeta eta garapeneraren aldeko konpromisoa dagoela, eta egingen diren jarduerak irabazi asmoa duten jardueretatik desberdinak direla. Edonola ere, jarduera hauek entitate horien Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren barnean kokatuko dira.

Eragileen arteko koordinazioa sustatuko da (puntuazio positiboa emanen da baldin eta eragile horiek irabazi asmorik gabeko entitateekin koordinatzen badira), sektoreak egituratzen eta gizarte zibila sendotzen lagun dezaten, eta jardueren doakotasuna bermatzeko mekanismoak ezarri ahal izanen dira.

C.1. Aholkularitza teknikoko proiektuak

Proiektu hauen bidez laguntza hartzaileak diren herrialdeetan honelako arloak lantzen dira: ekoizpen nahiz ekonomia arloko laguntza, teknologia zein teknika transferentzia, prestakuntza eta segimendua. Gainera, lanabes honen helburu izanen dira antolakuntzako esperientziei buruzko ikerketak edo sistematizazioak, baldin eta beren xedea bada laguntza hartzen duten herrialdeetako bazkideen jarduera profesionala nahiz kudeaketa-koa hobetzea.

Proiektu hauei dagokienez, zati bat Nafarroako Gobernuaren beraren jarduera izanen da. Administrazioaren garapenaren aldeko lankidetzako programa bati hasiera emanen zaio, non Nafarroako Foru Komunitateko zein Sozietate Publikoetako langileak parte hartuko baitute aholkularitza teknikoko jardueretan. Aholkularitza teknikoko jarduerak horiek honako eragileetako batek identifikatuko ditu: Estatuko Administrazio Orokorak, egoki den Departamentuak edo Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak. Programa hori egoki den moduan arautuko da⁽³⁸⁾, baina, dena den, honako elementu hauek kontuan hartu beharko dira:

a) Ekimenak Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari Zerbitzua) aldeko txostena izan beharko du, ekintzaren egokitasunari buruz (Plan Zuzentzaile honek ezarritakoa aintzat hartuz), baita dagokion Departamentuaren aldeko txostena ere, eginen diren helburu eta jardueren inguruan.

b) Jarduerak soilik eragindako gastuak (bidaiak, egonaldiak, materialak, txertaketak, bisak eta abar) Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak ordainduko ditu, eta, hartarako, aurrekontuko kontusail egokia prestatu beharko da.

c) Parte-hartzen duten langileek ez dute ordain ekonomiko berezirik jasoko, soilik ohiko ordainketa erregimenean aurreikusitakoa.

d) Plan Zuzentzaile honetan lehenetsitako herrialdeetan egindako jarduerak hobetsiko dira.

Bestalde, eta urteroko deialdi bidez, aholkularitza teknikoko lanabesa beste eragile batzuen bidez gauzatzea planteatzen da, eta hauek izanen dira ezaugarri nagusiak:

1. Urteroko deialdia izanen da, eta gauzatzeko urtebete izanen du gehienez (aurrekontu-ekitaldi bat).

2. Esku-hartze horiek 100.000 euroko gehienezko kopurua izanen dute, urtero.

3. Lanabes honetarako gehienezko diru-kopurua (gorago aipatutako Administrazioaren garapenaren aldeko lankidetzako programa barne) urtero izanen diren fondoan % 2 eta % 3 artekoa izanen da.

4. Positiboki baloratuko da programak gauzatzeko eragile nafarrak eta laguntza hartzaile diren herrialdeetakoak elkartzeari (bereziki eragile sozial, publiko eta pribatuak konbinatzen badira).

5. Dirulaguntzen deialdian egitekoa den programaren prestakuntzarako gaitasuna eta espezializazio tekniko eta teknologiko maila baloratuko dira, baita eskaera egin duen erakundearen ahalmenak ere.

6. Nafarroako Gobernuaren finantzaketa proiektuaren guztizkoaren % 50 eta % 80 artekoa izanen da gehienez ere, finantzaketa zein eragile motarekin batera ezartzen den. Onespenak esan nahiko du eskaera guztizkoari baiezkota eman zaiola, proiektuen egokitasunaren arabera, lanabes honetarako urteroko deialdiaren oinarrietan ezarri diren diru-funtsak agortu arte.

7. "Proiektuaren Zikloaren Kudeaketa" metodologia baliatuko da proiektuak kudeatzeko. Hura marko logikoaren ikuspegian oinarrituko da, eta hartan esku-hartzearen aldiak zehaztuko dira: arazoak identifikatzea parte-hartzearen bidez, gauzatzeari, segimendua eta ebaluazioa. Parte-hartzeak diren beste metodologia batzuk ere osagarri gisa erabil daitezke.

8. Lehenetsitako herrialdeetara zuzenduko dira, baina, salbuespen gisa, beste herrialde batzuetan jarduerak egiteko aukera aintzat hartuko da.

C.2. Prestakuntza, ikerketa eta erakundeak sendotzeko proiektuak Nafarroan

Garapenerako lankidetzaren kalitatea eta haren eragileak hobetzeko (Plan Zuzentzaile honek ezarritako helburuekin bat) lanabes honek

(38) *Jarduera mota hauetan parte-hartzen duen administrazio publikoetako langileen gaiari heldu behar zaio batez ere. Hartarako, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko egungo Foru Legea berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu beharko da.*

bere baitan hartzen ditu prestakuntza jarduerak (profesionalak), ikerketakoak eta eragile nafarrak sendotzeko eta aholkatzekoak, . Lanabes honen bidez prestakuntza espezializatua eta ikerketak sustatu nahi dira. Hainbat motako ikerketak, hain zuzen ere: garapenerako ikerketak, lehentasunezko jarduera sektoreei buruzko ikerketa aplikatuak, Plan Zuzentzaileak zehaztutako zehar-ildoei buruzkoak, Nafarroan egiten den kudeaketa hobetzeari buruzkoak, esperientzien sistematizazioa eta jokabide egokiak sozializatzeari buruzkoak, sektore edo estrategien ebaluazioari buruzkoak, etorkizunari begirakoak, berariazko diagnostikoak eta beste batzuk, prestakuntza izaera badute (ikastaroak, jardunaldiak, laguntza eta aholkularitza, eta abar). Betiere, baldin eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntza hobetzen laguntzen badute.

Hona hemen lanabes honen ezaugarriak:

1. Urteroko deialdi bidez arautzen diren esku-hartzeak dira. Gehienez ere gauzatzeko urtebete (aurrekontu-ekitaldi bat) izanen dute.

2. Esleituko den diru-kopurua gehienez 60.000 eurokoa izanen da.

3. Lanabes honetarako diru-kopurua urteroko fondoen % 2 izanen da gehienez.

4. Urteroko deialdiaren baremaziorako positiboki baloratuko da hainbat motako eragileak elkar-tzea.

5. Nafarroako Gobernuaren finantzaketa proiektuaren guztizkoaren % 80 artekoa izanen da gehienez ere. Proiektuen onspenak esan nahiko du fondo horiek guztiak emanen direla, proiektuen egokitasunaren arabera, lanabes honetarako urteroko deialdiaren oinarrietan ezarri diren diru-funtsak agortu arte.

6. Positiboki baloratuko dira emaitzak sozializatzaren ebaluazio-ekintzak, eta jokabide egokiak ezagutarazten dituztenak, eremu hauetan: garapenerako lankidetzaren zein hezkuntza, antolakuntzaren kudeaketa, kudeaketa politikak GGKEetan, kalitatea, eta hobekuntzako beste ekintza batzuk.

D) EKINTZA HUMANITARIOA

Ekintza humanitarioko esku-hartze eta larrialdietara zuzendutako fondoei helduko zaie kapitulu honetan. Fondo horien helburua krisiek eragindako lagunen bizi-kalitatea hobetzea da. Garapeneraren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 13. artikulua hauxe adierazten du (ekintza arloen zerrenda da): "Laguntza humanitarioko programak eta proiektuak, dela

hondamendi naturalengatik dela giza ekintzagatik larrialdian edo berehalako arriskuan dauden gizataldeei lagun egitekoak eta horiek berregokitzekoak. Laguntza humanitarioak badu beste helburu bat, alegia, populazio zaurgarrien bizitza babestea, gizaki orok baduela hautatzeko gaitasuna ematen dioten eskubideak eta duintasuna aitortuta. Laguntza humanitarioaren berezko helburu dira laguntza, babesa eta aurrea hartzea".

Modalitate hau modu egokian gauzatzeko laguntza humanitarioko funtsen emakida berariaz arautuko da, eta bi eredu desberdin aukeratu ahal izanen dira: batetik, GGKEak aldeztu aurretik publikoki kreditatu ahal izanen dira, lanabes hau erabili ahal izateko, edo, bestetik, fondoak eskuratzeko prozedura arautuko da. Betiere, bermatu beharko da funtsak erakunde onuradunaren esku behar bezain azkar jarriko direla.

Plan Zuzentzaile honentzat arreta berezikoak edo lehentasunezkoak diren herrialdeetako gatazka, krisi eta hondamendiei arreta berezia eskainiko zaie. Halaber, kontuan hartuko dira laguntza behar eta ahazturik dauden krisiek duten babesgabezia eta epe luzeko gatazketan murgilduta dauden herrialdeak.

Lanabes honen ezaugarriak hauek dira:

1. Berehalakoan zuzenduko dira funtsak honako egoera hauek arintzeko: larrialdi humanitarioak, elikagai faltako larrialdiak eta natur nahiz giza hondamendiek sortutakoak.

2. Modalitate hau berariaz arautuko da. Modalitate honetan lehiatzeko GGKEek agiri bidez egiaztatuko dute badituztela behintzat gutxienezko eskarmentua, esku-hartzeko ahalmen nahikoa, gaitasun tekniko egiaztatua eta esku-hartzeetako independentzia, segurtasuna eta egokitasuna bermatzeko neurriak.

3. Positiboki baloratuko dira ekintza horiek non ekintza proposatu eta gauzatu duten erakundeek larrialdia baino lehenagotik ere erakunde-harremanak dituzten. Halaber, lagunduko den eskualdea eta eragindako komunitatea etorkizunean ere garatzen laguntzeko asmoa positiboki baloratuko da.

4. Laguntza humanitario eta larrialdietako kontusaila gehienez ere garapenerako lankidetzaren fondoen % 3 izanen da. Hala ere, kasu berezietan, Gobernuaren ekimenez ezohiko kontusailak ere onetsi ahal izanen dira.

5. Ekintza humanitarioko esku-hartzeak, edonolakoak izanik ere, proiektu moduan aurkeztuko dituzte GGKEek, eta honako hauek adieraziko dituzte: testuingurua, esku-hartzearen justifikazioa

eta jardueraren metodologia, Marko Logikoaren lkupegiaren baitan (formatu erraz eta azkarragan, baina betiere esku-hartzearen lorpen eta eraginak argi erakusteko moduan).

6. Positiboki baloratuko dira beste administrazio publiko zein pribatuekin koordinatutako proposamenak (laguntza eraginkorragoa izan dadin).

7. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak aukera du deialdietatik kanpoko funtsak baliatzeko eta beste erkidego autonomo batzuekin, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziarekin edo baita nazioarteko organismoekin ere koordinaturik baliabideak eskaintzeko, krisi egoeran dauden gobernuen mesedetan.

8. Jarduera bakoitzeko kopurua 30.000 bat eurokoa izanen da.

E) LANABES BERRIA: ESTRATEGIA MISTO-AK

Lanabes berria dugu hau, eta, egoeraren azterketan Nafarroako garapenerako lankidetzaren ahuleziak ikusirik, horiei erantzuna eman nahi die. Lanabes hau sortu da kontuan izanik garapenerako lankidetzako eragileek, zehazki GGKEek, egin-kizun bikoitza betetzen dutela Nafarroako gizartean. Alde batetik, lankidetzarako harreman egonkor eta iraunkorrak izaten dituzte Hegoaldeko herrialdeekin, giza garapenaren alde lan egiteko, eta, beste aldetik, gure gizarteko balio, kultura eta jokabideetan eragin nahi dute, pertsona guztien duintasunarekin konpromiso handiagoa izan dezagun. Bada, lanabes berri honek esanguratsuki eragiten du helburu bikoitz horrek behar dituen bi osagaietan:

– Harreman prozesu egonkor eta iraunkorragoak aurreikusten ahal dira finantzaketarekin lotutako baldintza administratiboak erraztuz.

– Esku-hartzeko modalitate desberdinak (esaterako Hegoaldeko prozesuei segimendua egitea, ikerketa, garapenerako hezkuntza, eta abar) elkarrekin erlazionatzeko helburua du.

Bestalde, lanabes honek bultzada eman dezake etorkizunean Nafarroako garapenerako lankidetzan eragileak sendoago izan daitezen, lan baldintza hauei esker.

Estrategia mistoa den aldetik, lanabes honek zenbait GGKEren gidaritza bultzatu nahi du. Ibilbide eta gaitasun esanguratsuko GGKE horiek eragin hobezinak gauzatzea dugu helburu. Ildo honetatik, lanabes hau Nafarroako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak aurrera egiteko estrategia orokorra da.

Plan Zuzentzaile honen helburua da lanabes berri hau txertatzea eta inplementaziorako lau urteetan zehar pixkanaka aurrera egitea. Hortaz, Plana indarrean den aldiaren erdi aldera arte ez da lanabes hau inplementatuko (ikus 7. kapitulua denboraren zehaztapenak ezagutzeko).

Estrategia mistoek helburu bikoitza dute: alde batetik, beste administrazio publiko batzuen (berezi-ki Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia –AECI-) kudeaketa ereductara hurbiltzea, eta, beste alde batetik, batez ere garapenerako lankidetzak helburua duten Nafarroako erakundeen konfiantza eta egonkortasuna indartzea. Nafarroako erakundeei aukera eman nahi zaie honako **ezau-garriak** dituzten garapenerako lankidetzako ekin-tzak gauzatzeko:

1. Ekintzak Plan Zuzentzailearen esparruan txertatuko dira. Hortaz, Planaren helburu estrategikoak lortzen lagunduko dute, eta bat eginen dute haren sektore-lehentasunekin, zehar-ildoekin, geografia-lehentasunekin eta, egoki denean, estrategia eta herrialdeekin.

2. Positiboki baloratuko da estrategia horiek Espainiako Garapenaren aldeko Lankidetzarekin aurretik hitzartutako jarduerekin bat egitea.

3. Estrategiak hitzarmenetan gauzatu dira, eta horietan hauek jasoko: berariazko helburuak, eremu geografikoak, jarduera-sektoreak, lanabesak, espero den eragina eta “ex post” ebaluazio plana.

4. Soilik Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak entitate egokitza⁽³⁹⁾ jotako era-

(39) *Proposamena egiten duen erakundearen gaitasun egiaztatueta oinarritzen da lanabes hau. Horregatik, irizpide objektibo batzuk zehaztuko dira lanabes mota hau eskuratuko duten erakundeak aukeratu ahal izateko. Aukeraketa prozesu ireki eta iraunkor baten bidez eginen da. Hona hemen kontuan har daitezkeen zenbait irizpide:*

- *Errotzea: Egoitza egonkorra Nafarroan izatea edo bertan modu argian finkatua egotea, nahikoa gaitasuna izanik lana Nafarroan kudeatzeko eta prestakuntza eta gizarte mobilizazioko jarduerak Nafarroan egiteko.*
- *Politika propioa: Bere proposamenerako esparru izanen den planifikazio estrategiko instituzionala izatea, baita erakunde-politika ongi zehaztuak izatea ere (ebaluazioa, generoa, boluntarioak, komunikazioa eta lanpostuak, besteak beste).*
- *Ibilbidea: Nafarroako instituzio publikoekin eta bereziki Nafarroako Gobernuarekin batera egindako proiektuetan eskarmentu garrantzitsua izatea, garapenerako lankidetzak eta hezkuntza arloetan. (JARRAITZEN DU 63. ORRIALDEAN)*

gileentzat eginen dira. Eragileak egokitzat jotzeko prozesu hori Nafarroako Garapenaren Aldeko Kontseiluaren esparruan adostuko da, Plan Zuzentzaile hau onetsi ondoren.

5. Plan honen sektore-lehentasunen barnean zehaztuko da estrategia, eta erakunde sustatzaileen edo sustatzaileen proiektuarekin bat etorriko da. Integritasunari dagozkion osagai hauetako bat barne hartu beharko du:

- Plan Zuzentzaile honetan lehenetsitako zenbait sektore hartzea bere baitan.

- Ekimena proposatzen duten erakundeek berezko dituzten arloak barne hartzea, elkarrekin loturik, lokailu diren osagaien bidez (lekuan bertan esku-hartzea, ikerketa, garapenerako hezkuntza, sentsibilizazioa, komunikazioa, aholkularitza teknikoa, eta abar).

6. Lekuan bertan esku-hartzeko strategiaren helburua eragin positiboa izatea da, ondoko ikuspegietako bat edo zenbait konbinatuz:

- Osokotasun maila jakin bat duten jardueren kontzentrazioa eremu geografiko zehatz batean.

- Gaikako ardatzak aukeratzea hainbat lekutan lantzeko, honako helburuekin: osagarritasuna, ikasketa komunak, politiken diseinuan parte-hartzea, eta abar. Nafarroako eta esku-hartzen den

tokiko hainbat eragile baliatu ahalko dira, elkarketa egonkorren edota noizbehinkako elkarlanen bidez.

7. Erakunde bakoitzeko, hitzarmenek gehienez 1.000.000 euroko urteroko diru-hornidura izanen dute.

8. Estrategia gauzatzeko gehienez 3 aurrekontu-ekitaldi izanen dira.

9. Estrategia bakoitzak segimendu prozesua izanen du, lanabes hau arautzen den neurrian garatuko dena.

10. Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren gutzitzaoren % 80 arte finantzatu ahal izanen du.

11. Lanabes honetarako aurrekontuetako dirukopurua urteroko fondoan % 15 eta % 20 artekoa izanen da.

12. Hitzarmentan jasoko dira behar eta ahalmenen diagnostiko eta identifikazio orokor bat eta "ex post" eta eraginari buruzko ebaluazio bat, nahitaezkoa eta kanpotik egina edo mistoa, hitzarmena gauzatzen den azken hiru hilabeteetan bete beharrekoa.

13. Nafarroan eta lekuan bertan, hitzarmenen kontabilitate-segimendua kontu-ikuskapen bidez egin ahal izanen da, Nafarroako Gobernuak argiro onartutako profesional kreditatuen bitartez, eta hori dena Dirulaguntzei buruzko Foru Legeari aurka egin gabe.

(39) (62. ORRIALDETIK DATOR).

- *Funtsen dibertsifikazioa: Erakundeak finantzaketa iturri aski anitzak izatea, baita finantzaketa pribatuarekin lotutako gutxieneko batzuk ere.*
- *Autonomia: Erakundeak Nafarroako Gobernuarengandik aski independentzia izatea finantzaketari dagokionez.*
- *Gaitasun profesionala: Erakundeak langileak behar bezalako gaitasun profesionala izatea, eta Hitzarmenean azaldutako estrategia garatzeko aski egonkortasun izatea.*
- *Gardentasuna: Datu ekonomiko guztiak kontu-ikuskapen publiko bidez dokumentaturik egotea.*
- *Kaudimena: Ekonomia eta finantza datuek erakundearen ekonomia eta finantza osasuna abalatztea.*
- *Elkartzea: Erakundeak borondateak batzeko eta gizarte sarea indartzeko gaitasuna egiaztatzea. Sarean lan egitea eta entitate txikiagoak babestea (erakundearen gizarte erantzukizuna).*
- *Jokabide egokiak: Egiaztagiriren bat izatea, egindako lanaren kalitatea, kudeaketa ona eta antzekoak bermatuko dituen.*
- *Genero estrategia: Erakundeak genero-politika izatea.*
- *Garapenerako Hezkuntza: Garapenerako Hezkuntza eta sentsibilizazioan eskarmentua izatea.*
- *Parte-hartzea eta barne demokrazia.*

MODALITATE ETA LANABESEN LABURPENA

A) Garapeneren aldeko Lankidetzak (% 65 - % 75)

Lanabesa	Eragileak	Eremu geografikoa	Sektore-lehentasunak	Gauzatze-denbora	Aurrekontu-muga urtero	Eregimena	Dirulaguntza kalkulatzeko sistema	Aurrekontua, funts guztiak kontuan hartuta
A.1 Mikroekintzak	Urtetako deialdia	Ez dago mugarik, baina, egoki denearn, Giza Garapenerako Indizearen arabera lehenetsiko dira	Horiekako bat: Kontuan hartuko dira baremoan	Urtebetekoa	25.000 € arte, eta gero urtero berrikusiko da	Baterako finantzaiza (gehienez % 80)	Esatutakoa puntuazioaren arabera emanen da, eta egoki denearn Giza Garapeneraren Indizearen eta sektorekako egokitasunaren arabera lehenetsiko dira	% 5 arte
A.2 Proiektuak	Urtetako deialdia	Ez dago mugarik, baina lehentasun geografikoak aintzat hartuko dira	Horiekako bat: Kontuan hartuko dira baremoan	Urtebetekoa	25.000 eta 120.000 € artean bermerik gabe, eta 180.000 € bermerarekin	Baterako finantzaiza (gehienez % 80)	Behar izanez gero, portzentaje-tarteak ezamiko dira, puntuazioaren arabera	% 25 eta % 40 artean
A.3 Programak	Urtetako deialdia, bizpahiru urtetan gauzatzeko	Lehentasuneko eremu geografikoak	Bi behintzat, edo eragin zabaleko bat	Zenbait urtetakoa (3 urte gehienez)	120.000 eta 240.000 € artean (300.000 GGKE-elkarreentzat); Banku-abala edo legezko beste bermeren bat behariko da.	Baterako finantzaiza (gehienez % 80)	Esatutakoa puntuazioaren arabera emanen da	% 30 eta % 35 artean

B) Garapenerako Hezkuntza (% 6 arte)

Lanabesa	Eragileak	Eremu geografikoa	Sektore-lehentasunak	Gauzate-denbora	Aurrekontu-muga urtero	Erregimena	Dirulaguntza kalkulatzeko sistema	Aurrekontu a, funts guztiak kontuan hartuta
B.0 Ekiniza propioak	GGKE - Nafarroako Kirol eta Gaztearen Institutua	Ez dago mugarik - Nafarroa	Horiekako bat	Urtebete		Gastuen % 100 laguntzen ahal dira diruz	Eskatutakoa puntuazioaren arabera emanen da	% 1 arte
	Euskadiko Kutxa	Ez dago mugarik - Nafarroa	Horiekako bat	Urtebete				
B.1 Sentsibiziaziorako ekiniza eta kanpainak	GGKEak eta GGKE-elkarteak	Nafarroa	Garapenerako Hezkuntza	Urtebete	25.000 € arte (50.000 € GGKE-elkarreentzat)	Baterako finantzatzea (gehienez % 80)	Emakidarako portzentaje-tareak, puntuazioaren arabera..	% 2 eta % 3 artean
B.2 Proiektuak	GGKE-elkarteak (hobe) eta GGKEak	Nafarroa	Garapenerako Hezkuntza	Urtebete	120.000 € arte (60.000 € banakako GGKEentzat)	Baterako finantzatzea (gehienez % 80)	Eskatutakoa puntuazioaren arabera emanen da	% 2 eta % 3 artean
B.2 Programak	Zehaztu gabe, baina demagorrez Nafarroako Garapen Lankidetzarako GKEen Koordinakundea eta Hezkuntza Departamentua	Nafarroa	Garapenerako Hezkuntza	Zenbait urterakoa (2 urte)	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe	

C) Aholkularitza tekniko, prestakuntza eta ikerketa (% 4 - % 5)

Lanabesa	Eragileak	Eremu geografikoa	Sektore-lehentasunak	Gauzate-denbora	Aurrekontu-muga urtero	Erejmena	Dirulaguntza kalkulatuzeko sistema	Aurrekontu a. funts guztiak kontuan hartuta
C.0 Aholkularitza tekniko (zuzeneko)	Nafarroako Gobernuko Departamentuak eta Sozietate Publikoak	Lehentasuneko eremu geografikoak. Salbuespen gisa beste herrialde batzuk ere kontuan hartuko dira	Horiétako bat	Urtebete				% 2 eta % 3 artean
C.1 Aholkularitza teknikoko proiektuak	Eragile espezializatuak	Lehentasuneko eremu geografikoak. Salbuespen gisa beste herrialde batzuk ere kontuan hartuko dira	Horiétako bat	Urtebete	100.000 € arte	Baterako finantzatzea (gehienez % 80)	Esatutakoa puntuazioaren arabera emanen da	
C.2 Prestakuntza, ikerketa eta erakundeak sendotzeko proiektuak Nafarroan	Eragile espezializatuak	Nafarroa	Horiétako bat	Urtebete	60.000 € arte	Baterako finantzatzea (gehienez % 80)	Esatutakoa puntuazioaren arabera emanen da	% 2 arte

Lanabesa	Eragileak	Eremu geografikoa	Sektore-lehentasunak	Gauzate-denbora	Aurrekontu-muga urtero	Erejmena	Dirulaguntza kalkulatuzeko sistema	Aurrekontu, funts guztiak kontuan hartuta
D.1 Laguntza humanitarioko proiektuak	GGKEak	Ez dago mugarik	Horiétako bat	Urtebete	30.000 € arte	Gastuen % 100 laguntzen ahal dira diruz	Esatutakoa puntuazioaren arabera emanen da	% 3 arte

E) Lanabes berria: Estrategia mistoak (% 12 - % 21)

Lanabesa	Eragileak	Eremu geografikoa	Sektore-lehentasunak	Gauzate-denbora	Aurrekontu-muga urtero	Erejmena	Dirulaguntza kalkulatuzeko sistema	Aurrekontu, funts guztiak kontuan hartuta
E.1 Estrategia mistoak	GGKE oso gaituak	Lehentasuneko eremu geografikoak.	Bi behintzat, edo eragin zabaleko bat, eta Garapenerako Hezkuntza	Zenbait urtetakoa (3 urte gehienez)	1.000.000 € arte	Baterako finantzatzea (gehienez % 80)	Esatutakoa puntuazioaren arabera emanen da	% 15 eta % 20 artean

6. KAPITULUA: AURREKONTUARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Nazio Batuek behin eta berriz adierazi dute osoki aplikatu eta sakonago garatu behar direla Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko Biltzarrean (Monterreyko Biltzarra) hartutako konpromisoak eta adostutako erabakiak, eta, era berean, aitortzen dute lotura handia dagoela finantzaketa eta nazioartean adostutako garapenerako helburuen lorpenaren artean, bereziki Milurtekoko Garapen-Helburuei dagokienez. Ildo horretatik, "Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko Biltzarreko emaitzen segimendua eta aplikazioa"⁽⁴⁰⁾ izeneko azkeneko txostenean hain adierazten da: "pozik ikusten dugu emanen diren baliabideak handitu egingen direla, herrialde askok jarritako epeen ondorioz, honako helburu hauek izanik: barne produktu gordinaren % 0,7 zuzentzea garapenerako laguntza ofizialerako, 2015erako beranduen jota; barne produktu gordinaren gutxienez % 0,5 zuzentzea 2010erako, beranduen jota; eta % 0,15 eta % 0,20 artean zuzentzea herrialde ez horren aurreratuetarako, 2010erako, beranduen jota (Bruselako Ekintza Plana, 2001-2010 hamarkadarako, Herrialde Ez Horren Aurreratuetarako* izeneko programa bete-tze aldera). Eta hala egin ez duten herrialde garatuak akuilatzen ditugu ildo horretan ahalegin zehatza egin dezaten, beren konpromisoekin bat".

Espainiako Lankidetzarako II. plan zuzendariak adierazten du Espainiak konpromisoa hartu duela egungo legegintzaldiaren bukaerarako (2008) Barne Produktu Gordinaren % 0,5 emateko, eta 2006rako aurreikusitako ekarpena (Espainiako Nazioarteko Lankidetzarako Urteko Planaren -PACI- arabera) Barne Produktu Gordinaren % 0,35 izanen da.

Gaur egun Nafarroako Administrazio Publikoek 19 bat milioi euro ematen dute (16 milioi Nafarroako Gobernuak eta 3 milioi Toki Entitateek).

Plan Zuzentzaile honetan gutxi gorabeherako aurrekontu bat ezartzen da, eta urteroko gauzatze-plan bakoitzean zehatza egingen da.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak asmo irmoa du Monterreyko konpromisoetan aurrera egiteko mekanismoak errazteko. Plan hau indarrean den lehenbiziko bi urteetan Nafarroako Gobernu-

ren aurrekontuen % 0,7 mantenduko da, Nafarroako Parlamentuak 1994an ezarri zuen baldintzetan, eta, egoera ekonomikoak ahalbidetzen duen neurrian, Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 0,7ra 1994 urtean Foru Parlamentuak ezarritako mugarik gabe iristeko ahaleginak egingen ditugu.

Nafarroako Gobernuaren finantzaketa kudeatzeko lanabesak berregituratzeko beharrezkoa da lanabes berriak progresiboki abiatzea. Horretarako ondoko konpromisoak hartuko dira aurrekontuetan (betiere gutxi gorabehera):

1. Urtero erakunde bakar bati esleitzen zaion diru-kopurua garapenerako lankidetzako fondoetako % 10 izatea gehienez ere (lanabes guztien artean).

2. Nafarroan egiten diren jardueretarako baliabideak % 8ra mugatzea (Garapenerako Hezkuntza, Sentsibilizazioa eta Ikerketa eta Prestakuntza artean).

3. Garapenerako lankidetzarako dauden fondo guztiak goragoko ataletan azaldutako lanabesen bidez esleitzea.

4. Lanabesen gauzatze-epeak lanabesen izaera eta beharretara gehiago moldatzea, eta ez hainbeste dirulaguntzak gauzatzeko arautegira.

5. Aurrekontuaren gutxienez % 80ko diru-kopurua Plan Zuzentzaile honek lehenetsi dituen herrialdeetara bideratzea.

6. Izaera berezia duten eta bultzatu beharra duten herrialdeetarako diru-kopurua pixkanaka handitzea.

7. Funtsen gutxienez % 30 Afrikarako ekintzarako bideratzea.

8. Funtsen gutxienez % 20 subjektutzat emakumeak edo emakumeen elkarteak dituzten ekintzarako zuzentzea.

9. Nafarroako Gobernuak zuzenean egiten dituen garapenerako lankidetzako ekintzak gehienez ere % 4ra mugatzea.

10. Nafarroako Foru Administrazioaren kudeaketa administratiboaren kostuak Garapeneraren aldeko Batzordeak baimendutako moduan kontabilizatzea.

(40) Dokumentua: A/60/487, 2005eko abenduaren 19koa.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	